

JOKIN APALATEGI

**Euskal Herriaren  
emantzipazioaz**



*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren  
diru-laguntza jaso du*

© Jokin Apalategi

© Utriusque Vasconiae

Lehen argitaraldia: Donostia, 2013ko maiatza

ISBN: 978-84-941044-0-4

Lege-gordailua: SS-700-2013

Azalaren diseinua: Raphaële de Gorostarzu

Irudiko azala: Raphaële de Gorostarzu

Diseinua eta maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE

Ategorrieta Hiribidea, 3-3.

20013 Donostia. Tel.: 943-270433

Iparaldean: 0033547640386

Banatzaileak:

BITARTE – 31195 Berriozar (Nafarroa).

Tel.: 948-302239

JAKIN – 64100 Baiona (Lapurdi)

Tel.: 05592232

<https://sites.google.com/a/utriusque.com/utriusque-vasconiae/>

Debekatuta dago, legean aurrikusitako kasuetan izan ezik, liburu honen erreprodukzioa, banaketa, komunikazio publikoa eta eraldaketa egitea jabetza intelektuala duten titularren baimenik gabe. Aipatutako eskubideak haustea jabetza intelektualaren kontrako delitutzat har daiteke (Kodigo Penaleko 270 art. eta ond.)

## AURKIBIDEA

AITZINSOLASA . . . . .	7
I. LEHEN GIZARTE EUSKALDUNEN	
ANTOLAMENDU PLITIKOAK . . . . .	9
II. GIZARTE POLITIKOAREN SORRERAK	
ANTZINATEKO MUNDU GREZIAR- ERROMATARREAN . . . . .	51
III. HERRIXKA, HIRIA, ZIUTATEA ETA	
POLISA . . . . .	77
IV. NAZIOGINTZA: ZUZENBIDEAREN ETA	
GIZA-ESKUBIDEEN LORATZEA . . . . .	101
V. BIZIRAUPEN-ASMOKO GUTXIENGO	
SOZIALAK . . . . .	133
VI. BURUJABETZA ASMOKO GUTXIENGO	
NAZIONALAK . . . . .	169
VII. AZKEN BERBAK: BEHINBEHINEKO	
ZIURTASUN MUGIKORREZ EMANAK .	187
VIII. BIBLIOGRAFIA . . . . .	191
ERATXIKIA . . . . .	203



## Amane eta Gau bilobei

\* \* \* \*

“Nire testua orrazketa zorrotz bezain zehatzez argitu duen Andoni Sarriegi Eskisabel ozenki eskertu nahi dut”.



## AITZINSOLASA

Aho batez, behin eta berriz, esan eta idatzi dena da, euskaldunok (–**vascos**–, 1949an, Julio Caro Baroja, «Los vascos», Istmo S. A., Madrid; –**basques**–1975ean, Ph. Veyrin, «Les basques», Arthaud, Paris; –**euskarianos**– 1847an, A. Xaho, «Histoire primitive des Euskariens-Basque», Jaymebon éditeur, Bayonne-Madrid; –**vascones**– 1637an, A. Oihenart, «Notitia Utriusque Vasconiae, tum Ibericae, tum Aquitaniae», Paris; –**vascongados**– 1729an, Manuel Larramendi, «El imposible vencido, arte de la lengua Bascongada», Hordago, Donostia; –**cantabros**– 1562an, N. Landucci, «Dictionarium linguae Cantabricae»; –**vizcainos**– 1587an, Andrés de Poza Yarza, «Defensa de la nobleza Vizcaina», manuscrito en la Biblioteca Nacional; –**navarros**– 1545ean, B. Etxepare, «Linguae Vasconum primitiae», Aduertant Impresor, Bordeaux; –**euskotarrak**–1892an, Sabino Arana Goiri, «Bizkaya por su independencia: Cuatro glorias patrias», Inmprenta Sebastián de Amorrortu, Bilbao) aspaldidanikoak garelara, herri zaharra, garai batean ukan genituen auzo-herriak desagertu direnean, guk geuk iraun egin dugula. Dakiguna da ere Crô-Magnon askaziaren hasierako garai haietatik datorren herri bakarrenetarik garelara exis-

titzen gaurko Europan. Uharte bat garela gizateria-  
ren itsaso handian. Euskal Herria, Vasconia, País  
Vasco, Pays Basque, Basque Country, Navarra,  
Euskaria, Euskadi deitua izan dela gure lurraldea,  
besteak beste.

Historiaurretik gatozke. Baina lekukotasun  
gutxi heldu zaigu horretaz. Izan litezke guretzat la-  
nabes preziatuak helburu horretarako, arkeologia  
(antzinateko artea eta monumentuak aztertzen di-  
tuen jakintza, bereziki gaur egun arte iraun duten  
eraikin eta objektuen agerle bezala), paleontologia  
(historiaurreko izaki biziak heldu zaizkigun fosilen  
bidez aztertzen dituen jakintza), mitologia (his-  
toriaurreko gizon-emakumeen pentsamendua eta  
kultura kontakizunaren bidez deskribatzen duen  
jakintza) eta hizkuntzalaritza (gizon-emakume tal-  
de bateko kideek elkarrekin komunikatzeko duten  
hitzezko adierazpena aztertzen duen jakintza). Lau  
jakintza arloak zaizkigu baliagarriak, baina, berezi-  
ki mitologia eta hizkuntzalaritza erabili beharko  
genituzke euskal gizartean politikan ukandako  
bilakaera mentalaren gibeletik jardutean. Gaine-  
ra, jakinean, Euskal Herria luzaz produkzio ida-  
tzirik gabe bizi izatean, usadio zaharrak garrantzi  
handiko iturri bihurtu zaizkigula. Erreferentzia  
gehigarri bezala ere protohistoria daukagu. Euskal-  
dunok idazten ez genuen garai berean, hizkuntza  
idatzia zuten beste herri batzuek gutaz idatzitako  
berriekin datorkiguna, alegia.



## I. LEHEN GIZARTE EUSKALDUNEN ANTOLAMENDU POLITIKOAK

Euskal Herrian historiaurreko aztarnak atxikitzen dituzten guneak anitz dira, eta horietan aspaldidanik eta etengabe egiten diren indusketan beti elementu berriak agertzen ari dira, nola altzairu, harri (litiko) edo antzekoen arlokoak, hala gizon-emazteki haien hezurdurei eta bereziki buru-hezurrei dagozkienak, zeintzuek neurketa zientifiko sistematikotik pasatzean tokiko jendetzaren barnean egon den jarraipen harrigarria nabarmen uzten baitigute. Euskara sortu zuen gizon-emaztekiak noiz jarri zuen euskal gizartea abian halakotzat eratuz? Nolakoa zen?

### 1. Lehen euskal gizon-emakumeez

Erantzun zaila duen galdera da. Baina, J. M. Barandiaranek, gure antropologo jakintsuenak, hizkuntza garden eta zehatza erabiliz ondoko hauek idatzi zituen: «Europako alderdi honetan, Neanderthalgo gizakiaren ondoren –Goien Paleolitos Aroan, (Kristo baino 40.000 urtez lehenagotik 8.000 lehenago arterainokoan, alegia)–, beste askazi batzuk ageri zaizkigu: *Homo sapiens sapiens* de-

lakoaren kimuak, *Crô-Magnon* izenekoa batez ere. **Soina aski luzea, buru dolikokefalkidea, aurpegi zabala, bekoki irtena, okotza tutur zuena.** Gizaki hori hedatua zegoen Euskal Herrian: hala dakusagu Itziarren Urtiagako aztarnategian, askazi horren gisako hezurak bertan aurkitu baititugu. Goi-Paleolito Aroaren azkenaldikoak dira eta beren bidez ikasi dugu Crô-Magnon-kide zen gizakia euskal askazirantz aldatzen ari zela –**aurpegi isla zuzentzea, berori luzatzea eta matrail-hezuraren mehetasuna**– (J. M. Barandiaran, 1972, 33. or.). Lehen deskribapen hau zehazten joango da liburuko beste hainbat pasartetan: «Würm izotzaldiaren azkenaldia eta Lumentxako *Littorina littorea* izeneko izpelkien amaiera batera gertatu ziren. Madeleindar heziera ere azkenetan. Ehiztarien eginkizun handia ttikitzen ari zen. Goi-Paleolito Aroa iragan eta Mesolito garaia hastean: **orain dela hamar mila urte**». (Ibid. 68. or.) Eta garai berri horren berri zabalagoa emanez hau dio: «Giroa biguntzen zihoan; lehengo ihizi batzuek alde egin zuten hemendik. Belar, barazki eta zuhaitzak hazkurri berri eta mardulagoak ematen hasi ziren; gure mendiak izotz eta elurretatik garbitzen ari ziren. **Harpeetan ez ezik, ibar zabaletan eta goi-mendietan ere bizi ahal zitekeen oraingoan gure gizakia**». (Ibid. 68. or.) Are gehiago zehazten du aipatu garaia: «Orduko lagunak ez zituzten ordea harpeak erabat utzi eta oraino maiz ehizan zebiltzan eta hortik zuten janaria askotan biltzen; baina bazekiten lurretik eta itsasotik ere hazkurria sortzen. Inguruan zituzten zaldiak, behiak, oreinak, basahuntzak, orkatzak, basakerrak, eta abar. Bai eta hegaztiak ere, batik

bat: pagoilarrak, antzarak, zozoak, zapelatzak, eskinosoak, pagausoak, etab. Itsasoan edo itsas ertzetan biltzen zituzten arrain batzuk eta izpelkiak, batez ere ostrak, txirlak, mangolinoak, muskuiluak eta lapak. Hauen aztarnak eta beste askorenak agertu izan dira aldi horretako lagunak ibili diren tokietan: Santimamiñen, Atxetan, Lumentxan, Bolinkoban, Silibrankan, Laminen eskatzen, Urtiagan, Ermittian, Berroberrian eta Isturitzen.» (Ibid. 70. or.) Bizi-aukera berri hauek hemengo gizakia areago bereiztera bultzatu zuten: «Giroa biguntzeak, mendi-lurren zabaltzeak eta hezetasunez janzteak, lurpetik harat bizi ahal izateak, janaren aldakuntzak eta lanbide berriek hasi erazi zuten **hemengo gizakiaren aldaketa**. Hori dakusagu Urtiagan aurkitu ditugun giza hezurretan. Crô-Magnon izeneko askazia, gure eskualde honetan, **oraingo euskal tankera hartzen ari zen**. Beraz gaurko euskal egitea –soinarena– ordutik datorkigu.» Ibid. 71-72. or.)

Ondoriozta dezagun lurralde hauetako azken glaziazioaren amaieraz ari garela. Eta klima-aldaketak azpiegituran bezala kulturaren ere aldaketak eragingo zituela ehiztari-biltzaile zen jendetzarengan. Orduz geroztik lehengai berrituarekin topo egingo du hemengo gizakiak. Izan ere, lautada zabaletan harat-honat zebiltzan belarjaleen talde handiek (zaldi, elur-orein, bisonte) iparralderantz jo baitzuten, eta haien orde, orein-, orkatz- eta basurde-talde ttipiz populatutako oihan epela hedatu zen. Ehizatzeke metodoak ere aldatu behar izan zituzten, azagaia utzi eta arkuaren alde egin baitzen, baso barruan erabilgarriagoa izaki. Otsoa etxekotzean, zakurra arrunt laguntzaile zoli zitzaie-

keen ehizan. Silexez egindako lanabes batzuetan agertu erabilera-zantzuei so, badirudi landareen bilketa areagotu egin zela. (Vincent Mistrot Koordinatzailea, 2011, 12. or.)

Gure egunetan euskaldunen presentzia kanpoko lurraldeetara begira aztertzen ari da hainbat ikerketa-disziplina eta ikerketa-zentro, eta geroz eta aurkikuntza deigarriagoek erakusten digute itsasbideetatik ere urrunera mugitu zirela glaziazio-amaieraz geroztik euskaldunak. Horien lekuko dugu Stephen Oppenheimer. Mediku genetista honek dioenez, egungo Britainiar Uharteetako jendetzaren DNAk aztertzean, duela 8.500 urtez geroztik, bertan, euskal tankerako gizakiaren presentzia nabarmena da. Metodo horrekin jardutean, amarengandik jaraunsten zaigun DNA mitokondrialak, eta aitaren lerroa adierazten diguna aldi berean kontuan hartzen badira, Britainiar Uharteetako biztanlego-zati baten jatorria euskal tankerako gizakiarena da. Zientifikoki egiaztatzen zaigu, beraz, Wüm izozte handiaren aroan Kataluniatik Kantabriara, Euskal Herria barne duela, hedatzen den pirinear kate osoan euskara eta euskal kultura erabiltzen zuen gizaki mota hura giro bigunagoen etorrerarekin emigratzaile azkar suertatu zela. (Stephen Oppenheimer, 2006)

Bestalde, bi mila eta zortzigarren urtean, azaroaren 30ean, igandez, «Les conquérants» izenburuz, Nicholas Brown USA-tarrak, 2004an egindako Fikziozko Dokumental bat eskaini zuen France 5 telebista-kateak. Dokumental hartan agertu zena-ren arabera, amerikar kontinenteko ipar aldera lehenik ailegatu ziren gizakiak europarrak izan ziren.

Baina ez da horretan amaitzen berria, zeren euro-  
par haiek Bizkaiko golkotik abiatuiko lau homo  
sapiens izan baitziren. Würm izoztearen garaian  
Euskal Herria baitzen Europa atlantikoan bizi-  
tzen ahal zen lurralde bakarra. Badirudi, fikzioz-  
ko dokumental hori gaiaz egiten ari diren azken  
ikerketa zientifikoetan oinarritzen dela. Denbo-  
rak esango digu uste-hipotesia horren egia. Baina,  
egiaren traza guztiak ditu, noski.

Aipatu euskal tankerako gizakiaren aldaketa  
hori ez da horretan amaitzen. Aitzitik aurrerago  
ere irauten du. Honela adierazten zaigu: «Aldake-  
tak berriro Mesolito garaian azkenaldian ageri  
zaizkigu. Giroa, ordea, biguna da orain ere: hala  
adierazten digu behinik behin mangolinoen eta  
muskuiluen ugaltzeak eta *littorinen* guttitzeak. Je-  
sukristo baino **lau bat mila urte lehenago hasten  
da hemen garai hau** Garai hartako gizakia jada  
euskal kidegokoa zen, noski: hala erakusten digu  
Lumentxan zegoen buru-hezurak.» (Ibid. 78. or.)  
Guregandik geroz eta gertuago ageri den bizikera  
zuten gizaki haiek euskaldunak deitzen ditu J. M.  
Barandiaranek, hots, gure hizkuntza hitz egiten  
zutela dio. Geroago ikusiko dugu horren zergatia  
gure antropologo jakintsuaren ekarpenetan: «Bai-  
na orduko **euskaldunek** bizikera berria asmatu edo  
jarrarazi zuten. Horren argibiderik egokienak Me-  
solito ondorengo mailak diren tokietan ageri zaiz-  
kigu: Santimamiñen, Atxetan, Lumentxan, Bo-  
linkolan, Urtiagan, Ermittian, Urion, Moulignan,  
Isturitzen etab.» (Ibid. 79. or.)

Horri guzti horri ingurugiroaren antropiza-  
zioa gehitu behar zaio. Abeltzaintzaren lorpenaz,

nekazaritzaren garapenaz, eta herrixken agerpenaz (eta ez askotan aipatu izan denez «hirienez»); geroago eztabaida zabal bat irekiko dugu, atal batean herrixkak, hiriak eta ziutateak bereiziz) gizakiek paisaian, inguramenari zegokionean, aldaketak eragiteko adinako presentzia eta bultzada lortu zuten. Garai hartan, Euskal Herriaren luzamena zen Akitanian, Bergerakeko Vaures auzoan, hektarea eta erdian, prebentziozko arkeologiaren baitan Inrapek egindako indusketetan, Neolito garairik berrienerako (K.A. 3500eko) hogeita hamar bizileku baino gehiago aurkitu dira. Bizileku guztiak ez dira garaikideak, oinplano batzuk beste batzuen gainean daude-eta. Pentsatzekoa da herrixkak gutenez ere mende bat edo bi iraun zutela. Eguneroko bizimoduari atxikitako objektu ugari ere jaso da bertan: aizkoren preformak, eta aizkora landuak, karrakailuak, zulagailuak, aiztoak, gezi-punta zorrotzak, zeramika-zatiak, eihera-harriak, leungailuak eta hezurrezko tresnak, besteak beste. Garai berarekin jarraikiz, K.a. 3000-2800 urteen arteko garaiko bi eraikin handiren zantzuak atzeman ditu Dordoinako Beauclairen, Inrapeko beste talde batek. Handiena 66 m. luze eta 18 m. zabal da; bestea 50 m. bider 20 m.koa da. Isurialde biko estalkia landare-gaiz egina zegokeen. Arkitektoen kalkulu arabera, 1500 zuhaitz baino gehiago beharko ziratekeen bakoitza eraikitzeko. Etxe bakoitzak hainbat familiari eta haien abereei egingo ziekeen abegi. Luberrituriko sailak ez ziratekeen nahitaez Vaures auzokoak baino gehiago.

Hala ere, etxe txikiagoak zituzten eraikinak ere agertu dira. Adibidez, Dordoinako Neuvic-

sur-l'Islen, A89 autobidea egiteko lanetan ari zirela agertuak. Brontze-garaiko datazioa eman zaie. Neurri apalagokoak izanik, seguru aski ez zuten familia bana baizik hartzen beren baitan. Bizileku bakartuak daude paisaian. Orain ezagutzen ditugun garai hartako tokien kopuruak salatzen digu, Akitanian jendetzaren dentsifikazioa orduan agitu zela. (Vincent Mistrot Koordinatzailea, 2011, 15-16. or.)

Berriro ere gizarte-aldaketak bizi-bizi abiatuko dira metalaren aroan. Gizarte protohistorikoetan sartzearekin metalaren agerpenak iraultza tekniko eta sozioekonomikoak eragingo baititu. Landu zen lehen metala urrea izan zen. Neolitikoen bukaeratik aitzina gertatu zen gurean. Hotzean, mailukada hutsez, landu daitekeena da urrea. Bigarren metala kobrea da. K.a. 2500. urte ingurukoa da Sonporteko lepotik gertu, Urdosen, Bearnoko Aspe haranean aukitu da Pirinioetako kobre-meategirik zaharrena. Su bidez ustiatutako galeria ttipiez osatua da. Hirugarren metala brontzea da. K. a. 2200. urte ingurukoa da Brontzeak birziklatzeko erraza izatea du ezaugarri nagusia. Hain zen metal baliotsua non hautsitako objektu oro berriro ere urtu egiten baitzen. Hori dela eta, brontzeko objektuen aurkikuntzak izugarri arraroak dira bizileku izandako aztarnategietan. Iritsi zaizkigun objekturik gehienak borondatezko gordailuei esker iritsi zaizkigunak dira, maizenik lurperaturik zeudenak, edo halabeharrez, lur uxarratuetan ageri izan direnak.

Metala aberastasun-iturri izanik, haren ekoizpena, eraldaketa edo merkataritza kontrolatzen

zutenei bestelako aberastasun gaiak kontrolatzen zituztenekin trukeak negoziatzeko orduan indarrezko prosizio bat ekartzen zien. Horrela, gizarte mota hartan klase berriaren agerpenarekin taldeen arteko hierarkizazioa areagotu egin zen. Eta luzaz organizazio elemental hutsa zen euskal gizartea organizazio hierarkizatu izatearen bidean jarri zen. Horrek, euskal gizarte politikoarentzako ondorio zuzenak ekarri zituen.

## 2. Euskaraz

Gure hizkuntzaren noizkotasun lehena zehaztea ez da erraza. Laburbilduz J. M. Barandiaran antropologoak honela iruzkintzen du bere **Lehen euskal gizona** (1972) liburuan (1934garren urtean **Euskalerriko leen gizona izenez** argitaratutakoaren birmoldaketa denean): «Irudikurrak ditugu gai honetan lehenen ageri zaizkigun ezaugarriak, batez ere Goi-Paleolito Aroko ihizi irudiak, burdinorri garaiko giza irudiak; euskararen azterrenak (tresnen izenak); ondoren, euskara, indoeuroparren hizkuntzaz ikutua; batez ere –azken aldean– latinak zerbait kutsatua». (op. Cit. 114. or.) Noizkotasunaren galdera horri erantzuteko orientazio batzuk ematera ausartu zen berriro, 1953an, Buenos Airesen Ekin argitaldariak argiratatuko bere **El hombre prehistórico en el País Vasco** liburuan, orrialde eta erdiko testu bat idatzi zuen gaiaz. Euskaraturik hau da testuak dioena: «Lanabes batzuen euskal izenak, horiek fabrikatzean Neolitiko eta Eneolitiko garaietan erabiltzen ziren materialei erantzuten diete. Horrelakoak dira *aizkora*, *aitzur*,



*aizto* eta *zulakaitz*, zeintzuen osagarri den *aitz* eta horrek *harri* esan nahi baitu. Hori euskarak harri aroko hiztegiaren elementuak gordetzen dituenaren seinale da.

Kobrearen eta eztainuaren euskal izenak *urraida* (*urre* eta *aidez* osatua dena) eta *zirraida* (*zilar* eta *aidez* osatua dena) izatea eta bere eraketak metal horien agerpen historikoaren ordenari justuki erantzunez egitea, aztarna da, euskal hiztegiak kobrea (Eneolitiko Garaikoa) eta eztainua (Brontze Garaikoa) zabaldu aitzineko hitzak –urre eta zilar–gordetzen dituela ikusteko.

Errealitate beraren beste aztarna batzuk hauek dira: *ozme* (*oz*, *ortz* eta *me* «harri» edo «mineral»), *ozmiarri*, *ozkarri* (*ortz* eta *harri*), *txilistarri* eta *oneztarri*, zeintzuk indoeuoparren garaietan (Neolito amaieran) Europan arras zabaldutako ideia mitologikoak agertzen baitituzte.

Bestalde, pirinear Eneolitikoaren gertakizun nagusienekin baskoide toponimiaren guneak bat etortzeak, euskarak gertakizun horiekin izandako lotura erakusten du. Horrela bada, egiantzekoa da pentsatzea, euskara, neolitiko aroan ibar pirinearretan eta beste auzo-herrialde batzuetan bizi zen jendeak hitz egina izan zitekeela”. (Ibid.,156. or.)

Honainokoa J. M. Barandiarenek bere ikerketa-lanen ondorio lorturiko komentzimendua da. Geroago aipatuko dudanagatik oso erroturik zeukan bere baitan hipotesi hau. Baina jarrai dezadan aipatzen ari garen testu honen bigarren parte-a. Honela dio: «Egungo hainbat hizkuntzalarik (Trombetti, Marr, Dumézil, Uhlenbeck, Lafon, Bouda) euskara eta kaukasiar hizkuntzen artean

aurkitzen duten ahaidetasuna, hasiera bateko euskal kaukasiar kultura eta hizkuntza komunetik abiatuta jardunez esplikatuko lukete. Dirudienez, azken hau, hasierako indoeuroparrarekin ahaide-turik zegoen, Neolitiko amaieran Uralen Ekialdeko eskualdeetan eta Volga erdialdeko eskualdean hitz egiten ziren hizkuntza fino-ungariarekin partaidetzan biziz, beraz, ondoriozta daitekeena da euskal kaukasiar sendiko hizkuntzak Europaren mugak eta Asia izan zituztela sehaska eta foko horretatik mendebaldeko herrialdeetara hedatu zirela. Eta hau gure aldiaren (kristau aroaren) aitzi-neko III.milurtekoan gertatua izan behar zukeela. Iradokizun hauek betetzen badira, euskara, asiatar jatorrikoa izanik, duela 4.000 urte inguru herri immigrante batek ekarri izango zukean edo Enolitikoaren hasieran pirinear jendetzan bizimodu berriak sartu zituen kultur mugimendu bati loturik helduko zen». (Ibid., 156-157. or.) Baina hipotesi horren konstatazio koherente eta logikoa errespetu osoz aurkeztuz gero, J. M. Barandiaran, gaian bere aburua desenkarnatuki ematera ez badoa ere, esandakoaren mugak seinatzera igarotzen da: «Baina orainokoa goizegi da gai honetaz irtenbide kategoriko bat formulatzeko, antropologiak, arkeologia prehistorikoak eta linguistika konparatuak etorkizunean egingo dituzten ikerketen mende gelditzen baita». (Ibid.157. or.)

Gainera, On Joxemielek berak 1972an birrargitaratu zen «Lehen euskal gizona» liburuan ondoko hau idatzi zuen: «Euskal Herriko gizakiak mendez mende egin duen ibilaldian Lehen Paleolitoaz gero, ez da hemen, oraingo euskal lurrotan

behintzat, kanpotiko herri berririk bertakotzat jarri. Lehengoak iraun du, nahiz eta bere hezieran aldaketa ugari egin. Eraberritze agerikoenak beste herriekiko ikutuetatik helduak dira, gaur amerikarren eta japoniarren eraginez tresna eta lanbide asko sartu zaizkigun bezala.»( op. cit. 106. or.)

Kanpotiko herri berririk bertakotzat jarri denik ez dela izan irmoki azpimarratuz gero, hala ere, euskal lurrotan eragina ukan duten kanpoko herriak badirela aitoztuz, horietaz ere jardungo da: «Azkenealdietan indoeuroparrek zerikusia haundia izan zuten euskaldunek; burdin aroan, batez ere, kelta herriekin; burdinoria, burdina, hilak erretzea, harrespil erako hobiak, eta abar, ez dira Euskal Herrian sortuak, herbestetik ekarriak baizik. Herri haien aztarnek euskal hezieran ere gaurdaino iraun dute, izen hauek, adibidez, duten mamiarekin behintzat: ostegun, oinaztarri, Donibane eguneko sua, gabon-zuzi, eguberri, gerixeti.

Jesukristo baino 200 urte lehenago beste herri batek hasi zuen hemen bere eragintza: erromatarrek alegia. Garai hartan Euskal Herria noraino hedatua zegoen, Estrabonen, Pomponio Melaren, Senekaren eta beste idazle batzuen bidez eta herrien ohikundeei begiratuta susma dezakegu (J. Caro Baroja, 1985): Asturtarren aldetik Garona ibaira arteko lurraldeak Pirinio mendiak eta ibarrak erdian— bere muga barruan zituen. Beraz, asturtarrak, kantauriarrak, baskoiak, barduliarrak, autrigoiak, karistiarrak, ilergetarrak, zerretarrak, jakatarrak eta akitaniarrak euskaldun zirela dirudi eta egiaz hala zirela esatea da bidezko, beste iritzi bat, hobeki oinarritua, agertzen ez zaigun arte be-

hientzat. Lehen Paleolito Aroaz geroztik lurralde honek ez zuen izan aldaketa hanundirik. Geroztik, ordea, zedarrriak hurbilduz eta Euskal Herria ttikituz doa.

Aldaketa horretan erromatarrak ibili ziren nagusi: aldi luzean euskaldunekin harreman asko izan baitzuten. Seiehun urtean, beren agintarien eta hezieraren indarrez, arestian aipatu ditugun herri gehienak berendu zituzten». (J. M. Barandiaran, 1972, 106-107. or.).

1980eko hamarkadan, ni neu lekuko ere izan nintzelarik, urteetan zehar lantzen joan zen aburua noraino heldua zeukan neurtzeko okasioa bizi izan genuen. Maite eta biok, Atauna gurasoak bisitatzeraz joaten ginen bakoitzean, usadio genuen, On Joxemiel eta Pilar bizi ziren Sarako etxetik igarotzea. Hitz-aspertu aberatsak eta irekiak ukaiten genituen berarekin. Azken haietariko batean, Sarako etxera ailegatu, eta On Joxemielen lan-gelan sartu gineneke, hizketan hasi eta, zera komentatu zigun. «Aste honetan Euskal Telebistako kazetari bat bere ekipoarekin hartu nian hemen gauden gela honetan bertan. –Ba al dakizue zer galdera egin zidan? –On Joxemiel, zer diozu euskaldunok Kaukasotik gatzozela diotenen hipotesi horri buzuz?– –Hara zer erantzun eman nion: Kaukasotik Euskal Herrira bezainbeste bide zegoela Euskal Herritik Kaukasora. Alegia, zergatik ezin daiteke pentsatu euskaldun immigranteek eraman zutela hasierako kaukasiar hizkuntza bezala ezagutzen duguna?»–

Hau horrela balitz, euskararen noizkotasunaz esan dena, euskal kaukasiar hipotesia jarraiki, alegia, ankaz gora jarriko litzateke, eta euskal kauka-

siarrak duen data baino antzinagokoa izan liteke euskararena. Horrela pentsatzea hipotesi zientifiko bezala zilegi litzateke gainera. Baina zer diote geroztiko hizkuntzalariek?

Hizkuntzalari prestu zenbait ausartu da gai hori euskal kaukasiar hipotesiaz at argudiatzen. Horien arteran, guztien gainetik, Koldo Mitxelena daukagu. «Maleruski arras zabaldua dagoen sinismen batetik jali daitekeenaren aurka, hizkuntza bat beste bat baino antzinagokoa den galderak ez du inolako zentzurik. Idatziari esker hizkuntzetaz zerbait dakigunez geroztik –hori azken 5.000 urteetara mugatzen da– hizkuntza oro (edo hobeki agertuz hizkuntzaren estatu oro) aurreko hizkuntzaren estatu batetik eratortzen da. Arras alderantziz, herri jakin batean hizkuntza baten antzinatasun handiago edo txikiagoaren inguruko galdera, zentzuz bete-betea izan daiteke: horrela euskara herrialde hauetan auzoko hizkuntza erromanikoak baino zaharragoa da, jatorrian duten latina, lekukotasun anitzez frogaturik dagoenez, gurera heldu zenean anitzez aurretik euskaldunen hitz egiteko moduak sendoki errotuak zeudelako. Hala ere, guk ez dugu ondorioztatu nahi, erromatar konkistaren lehen uneetan, Gaule eta Hispania herrialdeetan hitz egiten ziren hizkuntzen artean zaharrena zenik: zaharrena da bakar-bakarrik *in situ* gure egunak arte iraun dutenen artean, alegia». (Luis Michelena, 1983 225-262. or.). Errenteriarak zuhurtziarekin hitz egin digu gaiaz. Hala ere, hizkuntzei buruz idatziari esker dakigunean, duela 5.000 urtetik dauzkagu berririk zaharrenak eta ez legoke gure hipotesiaren aurkakorik. Zerbait da!

Are gehiago dena, Koldo Mitxelena, euskara «immigranteen» hizkuntz ekarpena izan litekeela Euskal Herrian dioen hipotesiaren aitzinean, On Joxemielek zeukan ezbai jarrerari lotzen zaio zeharkako arrazoitze baten bidez: «Ongi ezaguna da latinizazioak Europar Mendebalde osoa baldintzatu nahi izan zuela hizkuntzari dagokionean. Baina gutxiago dakiguna da latinizazio hori, ikuspegi zabalago batetik so eginda, aurrez hegoaldean bezala mendebaldean denbora luzez bizitako hizkuntz prozesu indo-europarren beranduagoko aldi bat besterik ez dela, zeinaren lehen bulkada, aburu komunarekin ados joanik, Europako erdialdeko eskualdeetatik eratorritako herrien immigrazioari esker gauzatu zen. Alta bada, euskara erromanizazioaren ahaleginak ahalegin gorde egin zen, nahiz eta erromanizazio horrek Inperioaren mendebaldean lurraren latinizazioa izan jomuga, eta salbuespen bakarra da, erreomanizazio-prozesua eteteagatik libratu ziren eskualde mugatiarren artean, Bretaña bezala edo eta Afrikako iparraldean beste batzuek diren bezala, antzeko hizkuntzari menpekotu gabeko eskualdetakoak, alegia.

Salbuespeneko gordetze horrek, behartuki mirarizkoa izan ez bada ere, ondorioen multzo bat ekarri du euskararen jitea markatuz eta bizirik irautea baldintzaturik. Europako zati honen hizkuntz paisaia izan zitekeenaren lekuko bakar bilakatuz, indigenen arteko indigenena, gorputz arrotz modukoa kontsideratu izatea ekarri du». (Ibid., 227-228. or.).

Ikus ere L. Mitxelena, *L'euskaro-Caucasien*, in *Encyclopédie de la Pléiade*, Le langage, Gallimard, Paris, 1968.

Hitz bakanetan adierazi nahiz, hau da esaten zaiguna, latindarren immigrazioak euskara galtzerik lortu ez bazuen, antzinagoko immigrazioek euskara ekarri eta hemengoei ezartzea lortu zutela dioen euskal kaukasiar hipotesia ahula dela. Nik behintzat gisa honetan ere erabiliko nituzke errenteriar jakintsuaren hitz neurtuak. Beste behin ere On Joxemielek idatzi zuena errespetatzen da: eszeptizismo berberarekin aurkituko ginateke.

Ildo beretik jardunez erabateko moduan ixten digu Jesus Altunak euskal-kaukasiar hipotesi horren baliakizuna paleoantropologoaren arrazoiekin. «Euskal Herriaren Paleoantropologiazko zirriborro labur honetan, konstatatu duguna da Cro-Magnon arrazako euskal gizakiak izan zirela. Goi-Paleolitoaz gero Euskal Herrian errotu zirenak, alegia. Gizaki haiek bilakaera-prozesu autoktono eta bereizgarri bat hasi zuten Magdaleniensearen amaieraz geroztik egungo euskal arrazara heldu arte. Bilakaera hori erabakigarriagoa izan zen Azil aroan, Urtiagako buru-hezurraren lekukotasunak frogatzen duenez, eta Brontze Aroaren aitzinetik amaitu zen. Horrela bada, euskal arraza ez da eratu beste nonbait, gero gaur egun bizi den Euskal Herrira inmigrazioz ailegatzeko, aitzitik Euskal Herrian bertan eratu zen, Burdin Aroko inbasio garrantzizkoak bezain handiak abian jartzerako eraikita egonez». (Jesus Altuna, 1983, 95. or.).

Adiskide min izan nuen Jacques Allières ikerle fin bezain sakonaren lan bat erabiliz euskal jatorriaz hemotipologia jakintzatik atera izan diren ondorio batzuk hitzez-hitz eraldatuko ditut honera. «1917-1919 urteen inguruan, L. Hirszfeldek,

ordurarte ezagutzen genituen odol-taldeen maiztasunak jendetzen arabera nola aldatzen zihoozen odolaren osagaika berak aztertuz frogatu zuen. Alta bada, mendebaldeko Europaren markoan, eta orokorkiago oraino arraza zuriko jendetzen osotasunean, euskaldunek, hain zuzen, toki orijinal bat okupatzen dute, A.-E. Mourant, Moulinier, eta J. Ruffiéek finkatu zigutenez: honetan datza hori guztia, O taldearen maiztasuna oso altua, A ahula, eta B ia ezereza edukitzeak bereizten ditu euskaldunak; eta *rhesus* sistemari dagokionean, oraino handiagoa da euren orijinaltasuna, zeren mundu mailan ezagutzen den rhesus negatiboaren maiztasunik gorena baitaude. Jite hematologiko hauek gainezka egiten dute gaur egungo euskaldunen eremutik, progresiboki baretzen joanez eta A.-V. Valoiek «Frantziaren hego-mendebaleko bazterra» deitu duenean, eta «akitaniar perimetroari» dagokion guztian aurkitzen da. Berriki J. Ruffiéek et J. Bernardek zera erreparatu dute elkarrekikotasun hertsu batek harremanean jartzen zituela O eta Rh-taldearen maiztasuna altuaren lerro isigenikoak eta aurrez aipatu ditugun lerro linguistikokoak eta toponimikoak, baita hainbat kultur emankizun ere. Bestalde, hizpide ditugun lerro hemotipologikoak, hainbat pirinear eskualde arkaikoenetan (Euskal Herrian, Bigorren eta Goi Couseransen) aurkitzen ditugunak, Mundu Zaharraren beste hainbat eskualdetan ere ageri dira, hain zuzen, euskal emaitzak gogorarazten dizkiguten hizkuntz kapa zaharrak edo emaitza arkeologiko eta hisrorikoak dituztenetan: Irlandan eta Eskozian, Ipar Afrikan (berebereetan, hain zuzen), Sardinian, Liguruan,



Kaukason, eta abar, garrantzizkoenak bakar-bakarrrik aipatzekotan». (J. Allières, 1797, 25-56. or.).

### **3. Bizimoduak eta bizilekuak**

Ezpairik gabe jendea zertaz bizi zen eta nola gerizatzen zen naturaren afrontuetatik at bere burua gordetzeko unean, jakiteak, euskal gizartearen lehen antolamendu politikoaren ezagutzara hurbilduko gaitu. Lekukotasun haundiegirik ez badugu ere gaian, beti bezala, saiatuko gara gizarte-egoera hura irudikatzen. Orokorrean eta aski urrunera so eginez, dakiguna da, duela hamar mila urte, euskal askaziko gizaki haiek «ez zituztela harpeak erabat utzi eta oraino maiz ehizan zebiltzala eta hortik zutela janaria askotan biltzen; baina bazekiten lurretik eta itsasotik ere hazkurria sortzen. Inguruan zituzten zaldiak, behiak, oreinak, basahuntzak, orkatzak, basakerrak, eta abar. Bai eta hegaztiak ere, batik bat: pagoilarrak, antzarak, zozoak, zapelatzak, eskinasoak, pagausoak, eta abar. Itsasoan edo itsas ertzetan biltzen zituzten arrain batzuk eta izpelkiak, batez ere ostrak, txirlak, mangolinoak, muskuiluak eta lapak. Horien aztarnak eta beste askorenak agertu izan dira aldi horretako lagunak ibili diren tokietan: Santimamiñen, Lumentxan, Bolinkoban, Silibrankan, Laminen eskatzen, Ur-tiagan, Ermittian, Berroberrian eta Isturitzen». (J. M. Barandiaran, 1972, 70. or.). Euren bizimoduan itsaskien erabilpena aberasten joango zen itsasoe-tan ontzietan ibiltzeko ahalak sendotzen joango ziren heinean. Dakiguna da, itsasoan edo uretan ibiltzeko larruzko ontziak zituztela lehenik; gero

hasi zirela zurezkoak egiten: sunbil hustu bat, ontzi bat. (J. M. Barandiaran, 1972, 109. or.).

Geurera pittin bat (makroan ari gara) hurbil-  
duz, denborari muga bat ezarri nahirik, galdera  
batekin bideratuko gara, zer dakigu erromatarren  
idazkien aurreko garai hurbileko euskaldunen bi-  
zimoduez? Europan hobekien ezagutzen dugun  
greziarren munduarekin konparatu nahirik den-  
bora-irizpidea markatuz abiatuko gara. Jesukristo  
baino bi mila eta bostehun urte lehenago euskal lu-  
rretan zegoen giro geofisikoa oraingoaren antzekoa  
zen. Abereek noizbehinka lekuz aldatuz, urte-garai  
guztietan janaria atzeman ahal zuten. Abeltzainak  
zirenez, nagusiki Pirinio inguru gehienez hedat-  
zen ziren. Izen zehatzagoz esateko, leku nagusiak  
aipatzeko izendatu beharrezkoak dira «Gorbeia  
mendia, Betaio, Mazo, Armiñon, Eretza, Eskartxa-  
bel, Oiz, Kalamua, Gibijo, Arrato, Entzia, Urbasa,  
Andia, Ataun-Burunda, Altzania, Aizkorri, Elo-  
sua, Polpol, Aralar, Orin, Belabieta, Larrun, Ha-  
txuri, Hartzamendi, Iuskadi, Urrixka, Berdaritz,  
Sorogain, Astakarri, Lindus, Atalosti, Abodi, Irati,  
Ahuzki, etab. Batez ere beheko landetan mugitzen  
ziren arren, utzi zizkiguten aztarnek erakusten di-  
gutenez mendi horietako harpeak bizileku zituz-  
ten. Horren lekuko dira Santimamiñe, Lumentxa,  
Urriaga, Jentiletxeeta, Urio, Isturitze etab. Badira  
beterrietan ere: Añes aldean, Errioxan, Kuartan-  
gon, Araba-zelaietan, Artaxoan, Haizkibelen, Lan-  
darbason, Urruñan, Azkaine-Sara inguruan, Men-  
dibe aldean, eta abar.

Harpezuloen barruan, sarreratik hurbil, bizi  
ohi ziren: han bazuten argia, han bazuten behar

hainbat aire-berritze. Han zeukaten sutokia ere, lur-rean sakondua, harrizko aulkiak biran-biran. Baina lurpetik at ere ba zituzten aterpeak: Urbiko sarreran den Elola zelaitxoan, Santimamiñeko elizaño ondoan, Errioxak Guardia inguruko Los Molinos soroan, eta abar, oraino gaur egunikus daitekeenez. Garai hartako aztarna aipagarrienak, nolana ere hilarriak ditugu, mairietxeak eta trikuharri edo dolmenak izanik ere. Badira larehun guttienez lehen aipatu ditugun leku horietan. Mairietxe ez ezik, badituzte trikuharriek beste izen batzuk ere Euskal Herrian, lekuan lekukoak: mairu-hilarri, jentil-harri, armura, almora, armorkora, murko, morkuero, jentiletxe, tartaloetxe, sorginetxe, sepultura, kutxa (hilarri soila).

Landu gabeko harri mokorrez eginak izaten dira. Harri horiek, lur-rean zutik jarriak, lauki edo lerro gehiagoko orubea mugatzen dute. Mokorren gainean, harri zabal bat edo beste, izaten dute estalkitzat. Sortaldetik daukan zutikako mokorra besteak baino laburragoa –apalagoa– izaten da, eta berorren eta estalkiaren artean hutsune bat agertzen da: hilotzak sartzeko ataka dirudi. Kutxa hau sarritan muino edo lur- eta harri-pila batez inguratua eta estalia egoten da.

Dolmen batzuek ataka aurrean sarbide bat dute: harluxe lerro birekin mugatua eta gainetik hartzabalez estalia –Aizkomendi, Sorgin-txabola, Igartza, Artekosaro, Gurpide–. Beste batzuek, berriz, kutxa bikoak dira: Jentilarri (Arraztarangoa), Harzabal eta Berdarizkoa.

Trikuharriaren luzera sortaldetik sartalderantz doa. Beraz, sarrera aurrez aurre sortaldeari dago-

kio. Barruan hilen soinak, luzetara etzanik, burua sartaldean eta oinak sortaldean direla.

Dirudienez, bizilekuetan edo haien aldamentan eraiki ohi zituzten mairietxeak. Gainera gehienetan larreki asko izaten den tokietan daude: larre edo luondo handien barnean edo sarreran, harrate inguruetan, ibar batetik besterako bideak elkartzen diren tokietan, lepoetan, etab.». (J. M. Barandiaran, 1972, 84-88. or.).

Hala ere, euren bizimoduaz ez dezagun errazegi atera abeltzainak zirelako ondoriorik. «Beste askok, ordea, bazuten beste zereginik: Santimamiñeko, Lumentxako eta Urtiagako ihizi-hezurrek ongi erakusten digutenez, toki batzuetan bederen, abeltzaintza baino nagusiago zela ehiza. Gainera alderdi batzuetan –ibar eta beterrietako landetan– nekazaritza zerbait hedatua zegoen: orduko aitzurerek, eihera-harriek eta nabarrek hori adierazten digute, noski». (J. M. Barandiaran, 1972, 93. or.).

Burdin aroko azkenalditik aurrera aldaketa nabarmenak daude: «Orduko aztarnen eta idazkien bidez ikasi dugu burdin aroaren azkenaldian eta erromatarren garaian euskaldunek gehienik abeltzaintza zutela beren bizibiderik nagusia. Toki batzuetan ordea –herri beheretan bereziki–, nekazaritza ere bazuten, eta gainera, meatzaritza, olagintza, ehiza, arrantza eta eskulangintza asko». (J. M. Barandiaran, 1972, 107. or.). Bizimodu nagusia oraino ez bada ere nekazaritza tokien araberaren indartzen ageri da: «Nekazaritza toki zelai eta bigunetan hedatua zen, nahiz eta abeltzaintzaren mendean izan gehientsuena. Galaleek eta eihera-harriek, Cortesen, La Hoyan eta Urreatxen

aurkituek, hala derakuskigute; bai eta Etxauriko eta La Hoyako golde-muturrek eta igitaiak ere». (J.M.Barandiaran, 1972, 102. or.).

Honek guztiak bizilekuetan eraginak izango ditu. Hiru motatako bizilekuak ageri dira azken aldi honi loturik: «Euskaldunek, toki batzuetan elkar hartuta, **hiriak** (geroago ikusiko dugu zer-nolako hiriak ziren, zeren beranduago atal berezi bat eskainiko baitiegu hiriei eta hirigintza derberdinei) eraiki zituztela, batez ere, Erriberan eta Errioxan, Arabako Iruñan, Salbaterrabiden, Surbin, eta tontorretakoak Kurutzemendin, Urratxen, Nabarrizko Arrolan eta Intxurren. Etxe-pilak, bakoitzak lauki luzeko hesoina zuela, harriz eta lur-zotalez eginiko etxe-hesiak, egurrezko zurajearekin. Egite bera ageri da Iruñako eta Salbaterrabideko etxeetan eta badira zoruan zuloak ere, gauzak (aleak?) gordezko». (J. M. Barandiaran, 1972, 101. or.) Bide-nabar, aurrera dezagun, Herribehera eta Errioxa lurraldeetako lehen **hiriez** Julio Caro Barojak egiten digula aipamen deigarria: «Ebroren ertzetan herriak jazarrita edo gurutzatuta ageri dira, zeinak Marcialek idatzi zuen testu baten esanahi sakonean pentsaraztera garamatzen, bilbilitanoak hau idatzi zuen: «nos Celtis genitos et ex Hiberis nostrae nomina duriora terrae». **Zekak**, dirua egiten zuten etxeak ziren, alegia, beren baitan kontuan hartuz, garrantzi soziologiko handiko irizpide bat ateratzera garamatzate. Dirudienez, **hiri-eraikitzeaz** ari baitira, neurri dexenteko jendetza-guneak izan bide ziren, *nahiz eta sekula ez dugun pentsatu behar modernitateko hiri handien aitzinean gaudenik*. Estrabonek jada Posidonio jarraiki, Polibioren ara-

bera, Tiberio Senpronio Grakok Zeltiberian menperatu zituen hirurehun hirietaz ari dela satirizatu egiten du gaia. Garaituriko aipatu gune horiek gotorlekua zuten jendetza txikiko gune sinple batzuk ziren. Greziarrek **pyrgoi** deiturikoak ziren, alegia. Geografo berak diosku herri iberikoetan (jatorri desberdintasuna kontuan hartu gabe) orokortasunean aurkitzen dugun goi-zibilizaio baten falta nabarmena, propioki hiriak ez ukaitetik zetorrela». (J. Caro Baroja, (1985, 13. or.).

Honela bada, aldi berean harpeetan bizitzen jarraitzea ez da galtzen: «Harpeetan ere bazituzten bizilekuak, batez ere Solacuevan, Obenkunen, Txarratun, Santimamiñen, Sagastigorrin, El Bortalen, Goikolaun, Urion eta Harixtoin». (J. M. Barandiaran, 1972, 102. or.)

Bada beste bizileku mota bat, han-hemen barreiatua, «etxolena» deituko duguna, nekazaritza edo lurlantzea aurrerantz zihoan hein berean ugartzen joan zena: «Bizilekuak edo etxeak oraingo artzain-etxolen tankerakoak zituzten: orube luzanga, xipitola sarreran, sukalde etzangua erdian eta goinubea atzean. Horrela ageri da Cortesen, batez ere». (Ibid. 109. or.) Beste toki batzuetan, Urreatxen bezala, lur gaineko bizileku horiek berehala bilakaera edukiko dute harrespilez eginak izatera igaroaz. Horrela agertzen zena eta gerora garrantzi handia hartu zuena «baserri edo etxaldearen» agerpenarekin lotuko dugu. Modu horretan «baita lur gainean ere, han hemen sakabanatuak bizileku asko agertzen da –baratze edo harrespilek hala adierazten digute–, bereziki Askonobi mendiko Elortan, Iratin, Okaben, Lindusen, Atalostin, Za-

hon, Baiguran, Iuskadin, Hartzamendin, Ezurretan, Mailarretan, Pittarren, Leraten, Oiartzungo mendietan, Elazmunon, Olegin, Aranon, Unamunon, Etzelan, Oentzunen, Altxistan, Adarran, Erezan, Betaion etabar». (Ibid. 102. or.)

Bizilekuez programatikoa dirudien aipamen sailkatzaile hau egiten digu On Joxemielek: «Harpeak aldi luzean; gero etxolak; ondoren etxeak (olaetxe, harretxe)». (Ibid. 114. or.).

Erromatarren presentzian bada euskal gizartean giza harremanak baldintzatuko dituen egoera berri bati buruzko sormen-lekukotasunik. «Ordutik hasten dira hemen, dirudienez, herri-lurrak banatzen eta norbanakoen jabetzak sortzen: *fundi* izeneko lurraldeak jauntxoek eskuetan eta langile dohakabe asko haien menean. Etxeak eta lurrak herriarenak baitziren lehen; aurrerantzean, ordea, lurrak eta etxeak lagun bakarren eskuetarantz zihoazen. *Tegula* edo teila –etxe estaliaren gaia– etxearen lekuko eta bakarjabetzaren ezaugarri bihurtu zen». (Ibid. op. Cit. 107-108. or.). Jabetza pribatuaren, eta klase sozialen agerpena somatzen ditugu. Erdi Aroko euskal jauntxoek historiak hor hartzen ditu erroak.

Hala ere, ez dezagun ahantzi euskaldunok luzaro eta iraunkorki eduki dugun oinarrizko bizimodua artzaintza izan dela. Gure egunak arte bizi-bizirik heldu zaigu. Noiztik datorren? «Gorbeian bezala Gipuzkoa aldeko Aralarren, Altzarian, Entzian eta Urbanan eraikin dolmenikoek eta saroiak eskualde berbera okupatzen dute, eta horrela denez, fenomeno hauek (artzaintzak eta hedapen dolmenikoek) zera adierazten digute,

euren artean zerikusia dutela, alegia. Horiei, gainera, beste fenomeno hau gehitu behar zaie, hots, lurren izaeragatik edo eta itsas mailarekiko duten altuera handiagatik, toki horiek ez direla egokiak laborantza egiteko, beraz, horrek adierazten ahal digu enolitiko aroko euskal jendetza –gehiengoa bederen– artzaintzara dedikatzen zela». (J. M. Barandiaran, 1974, T. 5., 389-398. or.). Dakiguna da gainera, gaur egungo lurlangintzako baserri anitz, garai bateko saroiak eraldatu eta nekazaldegi bihurtetik datozela. Horrela da adibidez Ataungo hogeita hiru baserriren kasuan zeintzuek antzinako saroiaren izena hartu baitzuten, dokumentalki frogatzen ahal denez. (Ibid. 391. or.). Baina horrela da Euskal Herriko lurralde zabalagoetan ere. D. Jeronimo de Irustak J. M. Barandiarani baserri eta saroiari buruzko berriak eman zizkion. Berriatuko baserrien artean, ondoko hauek saroiak izan zirela zioen, hain zuzen: «Burgo, Burgaria, Anakabe, Egiguren Nagusia, Ergaitiz, Pertika, Iturriño, Elexpuru Nagusia (neguko zazpi saroi ditu), Laka Erdikoa, Gorostadi, Albo Agirre (saroi da, baina ez du etxerik) eta Leorreta (hau ere etxerik gabekoa da). Baita Xemeinen ere saroiak dira Ataun Torrea eta Ataun Bekua. Bellastegi auzoan (Amoroto) hamalau neguko saroi aurkitzen dira. Eta Barurdon (Mendexa) bederatzi. Leinzko Gatzegien muge-tatik ez urrun ere, Barrundian (Araba), neguko saroiak ikusi eta neurtu zituela». (Ibid. 391. or.). Antzinako larre eta saroi anitz artzaien artean zatikatuak eta banatuak izaten ziren. Oraino toki anitzetan irauten duten lur sailkatuak izen desberdinez deitzen dira: saroi, soro, korta, gorta. Saroi



bakoitzak bere mugarri nagusia zeukan, hots, korta-harria, edo haustarria deitu izen den lurrean sartutako harria; eta beren eremuak borobilak izanik luzera desberdineko erradioekin, neguko sarioa bazen korta-nagusia, zeritzon eta udako sarioa bazen korta txiki bezala ezagutzen zen. Sarioien neurketan erabiltzen zen neurketa-unitatea *hamalauoiñ* deitua, hamalau oineko luzera duen haga bat zen. Neguko saroi baten erradioa 63 *hamalauoiñ*ekoa zen eta udako sarioena 31 *hamalauoiñ*eko, D. Jeronimo de Irusta Asterrrikako (Berriatua, Bizkaia) auzotarrak, gai honetan jakitun zenak, 1923an adierazi zidanez, diosku On Joxemielek. Gaur oraino Gamiz, Morga eta beste herri batzuetan haustarri ize-na ematen zaio mugarri nagusiari. (Ibid. 390. or.)

Artzainak gure egunetaraino, eta gure egunetan ere, oso ezagunak ditugu Euskal Herri osoan. Araban eta Nafarroan herri-lurretan edo herri-oihanetan jarduten dute eta, horiek, herritar desberdinen aziendak zaintzen dituzte soldatapeko izanik. Baina beste anitzetan artzainek beren artalde propioak dauzkate bizibidea ateratzeko. Horrelakoek gehienetan artzaintza eta laborantza nahasten dituzte. Hori dela eta, lurlagintza eta artzaintza nahasten dituzten familien baserriak, anitzetan, lurberri edo herri-oihanen eskualdeen mugakide dira eta azken hauetan artaldeak bazkatzen dituzte. Azkenik, bakar batzuk soilik dira artzaintza hutsetik bizi direnak. Horrelakoek lekualdaketa praktikatzen dute beren aziendekin, udan, mila metroz goitik dauden mendi gorenegara, freskuregara igoz. Horrela da Gorbeian, Urbian (Aizkorri), Entzian, Urban, Aralrren, Lindusen eta abarre-

tan. Bazter bikain horietan eraikitzen dituzte bizietxe edo aterpe udatiarrak, oihandar gisakoak, bordak edo etxolak noski, beheko eskualdeetan edo haranetan dituzten baserri edo famili etxeen luzapen bihurtzen direlarik. Izen desberdinak hartzen dituzte han-hemen Euskal Herrian zehar: kamaña, txabola, etxola edo olha, borda. Gaur egun gehienetan, txabola bakoitzean artzain bat bizitzen da bere familiarekin edo hura gabe, bakarrik. Baina Gorbeia txabola bakoitzean hainbat aldiz bi artzain edo gehiago bizi izan dira elkarrekin uda aroan bizitza komuna eginez. (Ibid. 396. or.) Horrela denean, antolamendu bat badago artzain bakoitzaren eskubideak eta errolak finkatzen dituen. 1933an Gorbeia Altamiñepe taxabolako artzain bat Arrabara aldatu zen eta urtebete bere betiko txabolatik at egon ondoren berriro lehenera itzultzen saiatu zen, baina antzinako artzainkideek ez zioten baimenik eman, urtebete txabolatik at egotean lehendik zituen eskubideak ahitu zitzaizkiola aurpegiaratu. Txabola eraikita zegoen lurraldearen ugazabak ere artzainkideei arrazoia eman zien.

Zuberoan olharen araudia eta kudeaketa anitzez ere zehatzagoa da. Olhakideen arteko harremanak bi printzipioren funtzioan apailaturik daude: *üngirü* (txandaketa) eta *aldizkatzia* (egin-kizunetan ordezkatzeko seriala usadiozko sei errolen hierarkia atxikiz) izeneko printzipioen baitan, alegia. Funtzionamenduaren forma tradizionalenean, sei artzainkidez osatzen da olha bakoitza, eta artalde komunera artzain bakoitzak txotx oso bat (berrogeitamar edo hirurogei esne-ardiz eta bi ahariz

osatzen dena) eramaten du. Guztiek egun berberak igarotzen dituzte olhan eta elkarrekin egiten duten gasna berdintasun osoan partitzen dute uda amaieran. Nork noiz bere etxera edota olhara jin-joanean ibili behar duen eta ardi-jezte sasoian nork zer egin behar duen urratsez urrats betetzen da.

Santa Grazin, hogeigarren mendearen hasiera arte, olha bakoitzeko sei artzain-kideek, txandaka, sei pertsonaia tradizionalen errolak betetzen zituzten. Artzain-kide bakoitzak betetzen zuen errol espezifiko bakoitzak hogeita lau orduko iraupena zuen. Denetara sei errol ziren eta hierarkikoki ordenaturik zeuden, apalenetik ospetsuenera igaroz ondoko hauek ziren: neskatoarena, axurzainarena (bildotsen zaindaria), antxüzainarena (esnetako ez diren ardien zaindaria), artzain-mithilarena, artzain-nausiarena eta etxekanderearena. Gisa honetan jardutean, artzainek oihaneko olhetan herriakako etxeetan ohiko zen emakume kutsuko etxeko lanen unibertsoa erreproduzitzen zuten. (Sandra Ott, 1993, 165-183. or.).

Artzaintzatik bizi direnek udazkenean berriro lekualdaketak egiten dituzte urriaren amaieran edo azaroaren hasieran oihanetan lehen elurrak agertzearekin

Batera. Zenbaitzuk euren baserrietan dituzten larre eta soroetara eramaten dituzte artaldeak, gauetan korta eta txaboletan atxikiz. Beste batzuek, ordea, baserriak altuera handian dituztelako edo aski lurralderik ez dutelako, beste baserri batzuen lurretara eramaten ditzute negurako. Horrela, ohikoa da Zeanuriko artzainak negu aroan Igorren, Lemoan edo antzeko herrietan ikustea.

Antzeko portaera dute Amezketan, Idizabal, Zegama eta Otxandioko artzainek ere. Badira ere, Idiazabal eta Segura bezalako herrietako artzainak, negu-aroan Mungiaraino doazenak. Baserrietan ostatu hartu ohi dute kontsumoa eta berotzeko beharrezko den suaren gastuak euren kontura hartuz. Besteen baserrietako lurretan ibiltzea ez zaie kobratzen. Joateko ordua datorrenean, ardiek egindako simaurra eta txerriak janaritzeko gazura urririk emateaz gain, gasna bat edo beste oparitzen diete lurra opa izan dizkietenei.

#### 4. Antolamendu politikoaz

Euskal gizartean antolamendu politikoaren sorrera eta bilakaera bizimoduak desberdintzeari loturiko urratsek markatzen dute. J. M. Barandiaranek hau idatzi zuen: «Etxea eta etxearen gainetik auzunea (ehiztarien etxe-elkartea), agian haran edo ibarreko lagunarteak; gero herriak eta herrialdeak» (op. Cit. 1972, 114. or.) Honi zera gehitu behar diogu, toki askotan, bilketa hutsaren bidez, hazkurrria ere sortzen zutela. «Ale-bilketak bazuen bere garrantzia: urte-garai luzean zehar, ezkurra (haritzarena, ametzarena eta artearena) baitzuten janaritzat erabiltzen. Ale hori idortu, apurtu eta ehotzi egiten zuten eta haren irinarekin ogia egiten». (Ibid. 108. or.). **Auzunearen** lehen bertsioa bada ehiztariei dagokie. Argi dago bizi beharra bermatzeko naturaren menpe euren buruak ikusten zituztenez, euren arteko harremanei ordenamendu kolektibo iharrikizatu bat emateko modu bezala ulertu behar da antolamendu hori. Naturaren ardatzean mugitzen

ziren. Justizia naturak egiten zuela onartzea beste erremediorik ez zeukaten. Eurek euren arteko gatazketatik libratzea zuten egin zezaketen eginahal bakarra. Horretarako biderik edo gidarik ziurrena eta sinpleena odolekoen gizarteak irauten zuen bitartean odolekoen legea jarraitzea hautatu zuten.

Bizi moduak aberasten joan zirenean, abeltzaintza lortu zutenean, adibidez, hemengo aberetzat izendatuak agertzen zaikigu, ahuntzak, ardiak, behiak, zaldiak, akerrak eta zerriak, edo eta nekazaritza eta itsasgintza abiatzea, antolamendu berriak eratzen joan ziren. Artzaintz-bizibidea bereziki garrantzizkoa gertatu da mendeetan zehar jendetza-sisteman, zeren larreen inguruan egokitu eta hedaturik zeuden saroi eta artzain-landetxeak zeuzkaten funtzioek mugatuta baitzeuden eta egokiera eta hedadura horrek berak gure egunak arte iraun du, nahiz eta antzinako artzain-aterbeak edo jendetza mugikorren gune haiek, gaur egun, nekazaritza iraunkorreko jendearen baserri edo bizileku bihurtu izan.

Otsoaren arriskuagatik batez ere, artzainek jarraituki mendietan zeuzkaten aziendak zaintzera behartuak zeudelako, malda apaleko larreguneak dauzkaten Baztan, Lapurdi eta Nafarroa Behereko menditxoak edo muinoak bilatzen zituzten, beraz, leku horiek udan eta udazkenean artzain-jendetz gainezka betetzen ziren. Bestalde, artzain-bizimoduaren beharrek, larreak zeuzkaten gure mendietan gizarte-lanabesez horniturik bizitzera eramaten zituen. Horrela etxolak edo bordak, ardiak jendezko eremuak eta otsoengandik gordetzeko eskortak bezalako eraikuntza osagarriak josita bizi ziren.

Garai berriagoetan bada ere, bizimodu horren iraupen-seinale dira mendietako larreguneen inguruetan aurkitzen ditugun baselizak. Besteak beste, oraino hor daudelako aipatzen ahal ditugu, Tolono mendikatean dauden San Tirso eta San Killiz (Kiriko), Markinezko Beolarra, Ioarreko Kodesko Ama Birjina, Gibijoko Hirutasuna, Gasteizko eta Entziako mendietan dauden San Bittor eta San Bartolome, Urkiolako San Antonio, Arantzazuko Ama Birjina, Andimendiko Santa Marina, Beriaingo San Donato, Aralarko San Migel, Aizkorriko Sancti Spiritus, Larrungo Sancti Spiritus, Iratiko Salvatore, Oriko San Jose, etab.

Aldi berean aisialdiei jaramon eginez pilotarako espazioak zeuzkaten sarrietan: pilotasoro edo pelotaleku deitzen zituzten. Horrela Aralarko mendikatean badago bazter bat garai batean artzainek pilotan jokatzen zutelako pelotaleku deitzen jarraitzen dena. Ataungo mendietan, udaletxeko artxiboetan ageri denez, lau pelotaleku zeuden. Berastegin ere ezagutzen da pilotasoro (Etzala menditik hurbil dagoen muinoa). 1876. urtean argitara eman zen «Carte topographique des frontières dans les Pyrénées occidentales» argitalpenean dioenez, Larrungo tontorrean pilotakogaina deitu bazter bat zegoen. Pilotasoroak aurkitzen dira halaber Etxalarko Irazukun, Zugarramurdiko Ieraxelain, Urbiko lepoan eta Urtzelain, Baztango Axuela mendiaren oinean dagoen Eskisarin, Salaberriko sarioian, Karakoetxeko sarioian, Aldudetako mendien muinoan dagoen Elokadin eta Ehiartzeko lepoan, Urepeleko mendiaren muinotik hurbil dagoen Mearrozteiko lepoan eta Gartzelako lepoan,

Erro Haranean, izen bereko muinoan dagoen As-takarrian, etab. (J. M. Barandiaran, 1974, T.6., 143-147. or.).

Gehitu dezagun ere euskal jendea haran edo ibarretan eta mendietan banatzea ekarri zuten euskal luraren baldintza geografikoek, eragin zuzena izan zutela antolamendu politiko berrien bilakae-ran. Euskal Herria Hegotik Iparrera zeharkatzen badugu berehala jabetuko gara jendetza-sistemak aldatu egiten direla. Errioxako eskualdean giza ezar-ketak alor despopolatu zabalaren erdian etxe-elkarte haundien forma hartu zutenean eta Gasteizko lau-tadan etxeak bata bestearengandik distantzia labu-rrer bereizturik elkarrekin txiki-tan bildu zirenean, Gi-puzkoan, Bizkaian eta Nafarroako mendi-aldean, eta euskal Pirinioaren iparraldean, giza ezarpenak sakabanatutako etxeetan egin ziren bakoitzak bere izena hartu eta elkarrekiko barreiatuta. (J. M. Ba-randiaran, 1974, T. 6., 248-250. or.).

Erromatarrak heldu zirenean, haien lekuko-tasunek dioskutenez, «euskaldunek bazituzten etxeak eta herriak; eta elkar hartzen zuten, beren eskubideak eta lurak gordearazi behar zituztenean bai eta beste hau ere: ezkonlagun bakar batekoak zirela; alabak –ez ordea semeak– izaten zirela etxean jarraitzen zutenak, amaren sorlekua izaten zela etxeen bizilekua eta etxeen ondasunak ama-ren lerroan jarraitzen zutela gizaldiz gizaldi; emakumeak lur-lanari emanak zeudela eta gizonak ehizari eta gudu-eginkizunei; hala eta guztiz ere, aitek etxean izen handia zuela eta haren esanak eta aginteak begirunez onartuak izan ohi zirela; etxe-rra opari bat zetorkielarik –ardoa edo beste ezgauza

bat-, beren ahaideekin elkaturik ospatzen zutela, etab.». (J. M. Barandiaran, 1972, 110. or.).

Testu honetan gai-zerrenda gogoetagarri bat dager. Elkartasun primitiboa; ezkonlagun bakarra; amaren aldeko jarraipena; alaben oinordekotasuna; lan-zatiketa primitiboa; aitarekiko errespetua eta duintasun-kontsiderazioa, etab.. Hala ere, testu horren ulermenak, bereizketak eta zehazketak eskatzen ditu. Gure testua irakurri orduko ere, egoki deritzogulako, has gaitzeze Platonen Errepublikaz François Châteletrek dioena gogoratuz: «Urrezko Aroaren ondoren (zeinetan gizakiak jainkoek zuzenean gidatuak zeuden eta horregatik euren buruak naturalki justutzat ikusten zituzten), kaktalismoaren aroa heldu zenean, gizateria lanaren agindura eratu beharrean aurkitu zen; jainkotiar laguntzarik gabe, lehen-lehenik txirotasunean aurkitu zen. Orduan, Errepublikaren analisiak dio, **botere politikoa eta botere patriarkala nahastu egin zirela**. Merkataritza berriz, trukera murriztu zen eta lanaren zatiketa sinplea zen, bakoitzak bere ohituren arabera produzitzen zuen eta taldetxoari beharrezko zituen ondasunak hornitzen zizkion. Modu alai eta sinplean bizitzen zen, hots, harmonia oinarrikoenean, zeinetan behar bakoitzak, bitartekari beharrik gabe, atsegina izatea lortzen zuen». (François Châtelet, 1972, 103. or.).

J. M. Barandiaranek euskal gizarte primitiboaren botereaz idatzitako testuan berritasun bat nabarmentzen da guztiaren gainetik. Orduan hemen, **botere politikoa eta botere matriarkala**, edo matriarkatu kontziliatzaile bat zegoela azpimarratzen zaigu. Ezaguna da gizarte matriarkalak izan



direla eta gaur egun oraino ere, urri badira ere, ba direla. Euskal gitzartea horietariko bat izan dela ere garbi dago. Baina, gaia zentratu nahirik berriki antropologo batek bere doktorego-tesian erakutsi digunak lagun gaitzake. Isaure Gratacos antropologoak gai zabal hau honela aurkezten digu: «Pirinear legeak arras antzinateko datoz; ezpairik gabe, ikusiko dugunez, substratu pre edo protohistoriko batetik, noski: horrek esan nahi du Neolitikoaz geroztik euskaldunek pirinear kate osoa jendeztatu zutela. Mendiko egitura sozialek, ezpairik gabe gogorarazten digute, kelta gizarte baten adierazle direla: horretan ere, **gizonak eta emazteak berdintasuna zeukaten**, ezkontza ororen gainetik hitzarmen bat zen, birjintasunak askatasuna bakar-bakarrik esan nahi zuen, eta ez zen fisikoa, gizarte hartan tabu sexualak ez baitziren existitzen. Baina euskal emaria keltikoa baino antzinagokoa da eta era bereizgarrian iraun du. Gisa horretan, bada, pirinear originaltasuna ez datza emazte-izaeraren naturan, aitzitik hainbat gehiago datza bere iraunkortasun luzean, bakarrean, Europan bizi izanez». (I. Gratacos, 1987, 11. or.). Oraino are gehiago ere sendotzen du argudioa: «Gaskoi Pirineoen originaltasuna zera da «egitura arras antzinateko eta ukituezinezkoei esker» bertan sexuen arteko harremanak zeharo desberdinak izan zirela eta gelditu direla (nahiz eta XIX. mendean geroztik andeatu izan diren). Legeetan ez zen existitzen menpekotasun maskulinorik. Emazteak eta gizonak berdintasun sozial parekoena zeukaten eta aldi garaikidean bakarrik sartu da bestelakorik XIX. mende industrialarekin, «kultura unibertsalarekin» hain zuzen,

beste nonbait antzinetetik errotutako eskemen etorrerarekin, noski». (Ibid. 11. or.).

Etxeak euskal lehen gizarteko egituretan duen garrantzia gure lanean nabarmentzen doalarik, galdera hau egingo dugu: zer izan zen etxeko nagusi kontzeptuaren lehen adiera? I. Gratacosek ez du ezpairik gaian: «Ama Lurraren gurtzan dagoen fokalizazio mitologikoan badira maitagarriak (**had**as) eta Neolitikoaz geroztik datorkigun egitura sozialaren oroitzapena, parte batean, euren bidez datorkigu. Europaren zati handi batek luzaz ahan-tzi dituen egitura haietan, emakumeek toki berezia zeukaten, eta pozten gara duela hamarkada batzuz geroztik, Europa, bere osotasunean, hori ezagutzen hasi dela konstatatzearekin Aita-ama-haurra hirukotea propietate pribatuaren sorrerarekin agertzen da, hots, ondasun baten edukitzai-leak bere oinordekoa nor izango den ezagutu nahi izan duenetik. Dakigularik, nekazaritza Europako Mendebaldean agertu aitzin Ekialde Ertainean eman izan zela, arrazoi hori izan al liteke mendiak berez diren gune geografiko babestuagoetan, egitura komunitarioak iraupen luzeagoa izanarena? Pirinear katearen Erdigunean –Bigorre, Comminges, Couserans– lurrak kolektiboki jaraunsten ziren eta Bigarren Inperiora arte «komunalak» deitzen ziren; lurralde osoaren %80 zen horrelakoa (eta gutxi gora-behera ehuneko berdina zen –eta batzuetan handiagoa– Pirinear katearen Atlantiko aldean, baina anitzez txikiagoa garai berean Ariègen: %20 soilik)». (Ibid., 77-78. or.). Eta argudio-kate honi jarraiki **oinordekoaren** gaiari bete-betean heltzen dio: «Nire etxean» Comminges Goikoan, «nire

etxea» horrek balio berezia dauka. Hau esan nahi du, Margarita, haurrideetan zaharrena edo lehena izanik, bere familiako etxearen eta funtsezko ondasunen oinordekoa izan dela. Ondorioen ondorioz, bere etxean berarekin bizitzeko sartu zen senarrak, kasuan, ondasun txiki batzuk ekarri zituela. **Emitza zera da, Europan salbuespen izanez, Pirinear katearen Erdigunean bezala Mendebaldean ere emazteei oinordekotasun-eskubidea eta horri jarraitzen dioten abantailak eta funtzioa itsatsiak onartzen zaizkiela».** (Ibid., 79 or.).

Hau izan bazen ere milaka urtez usadiozko lege zaharra, pixkanaka, galtzen edo apaltzen joan zen propietate pribatuaren ezarpenaren eta kanpoko inposizio politikoaren presiopean. Honen berri Maite Lafourcadek handizki eta zehaztasunez josirik ematen digu. Badirudi euskaldunei arazo gertatu zitzaizela lurraren zatiketa eta oinordekotasun moldatu bat prestatu zutela hori apaltzeko eta horri aurre egiteko. «Oinordeko zen emazte baten eta gizonezko baten arteko ezkontza, teorikoki zilegizko zena, arras salbuespenezko bihurtu zen, zeren senar-emazte bakoitza beren aldetik euren etxe desberdinen jarraipen-eramaile izatean ez baitzen hori ongi betetzeko modurik ikusten. Euren usadioekin konbentziturik zeudelako, Euskaldunek ezarritako ordena hausten zuen bi etxaldean elkar-tzea higuintzen zuten.

Usadio hauek, herritar guztiak bizi zitezen baliabideen eta jendeen artean oreka jarrzera destinatuak, medeetan zehar egin zituztenen izpiritu praktikoa eta jakinduria erakusten digute, eta azkenik, Hamaiseigarren mendean beren Usadioak

idaztean finkatu egin zituzten. Euskal baserritarrek inolako salbuespen eta aldaketarik gabe aplikatzen zituzten, frantses lege iraultzaileak heldu arte, hots, zeintzuk kontra egonik ere inposatu zizkieten arte». (Maite Lafourcade, 1989)

Ezkontzaz sortzen zen komunitatearen funtzionamendua ere deskribatzen zaigu. «Usadiozko komunitatea, Lapurdin, ezkontza orduan lortutako ondasun higigarriez edo higiezinaz, eta ondasun propioen mozkinaz bakarrik osatzen zen. Ezkonkide bakoitzak ezkontza orduan ekarritako ondasunak, higigarriak edo higiezinak, eta gero ezkontza aroan emari moduan, oinordekotzaz edo beste modu batez jasotakoak, bakoitzari propio bezala ezagutzen zitzaizkion. Puntu honi dagokionean, Lapurdiko Usadio idatziak zehaztasun-falta agertzen duenez, Bordeleko parlamentuko zuzenbideak, murriztuz interpretatzen du, erromatar zuzenbideari ezezagun zaion nozioaren defaboretan jardunez; jasotakoak jarraituki senar-emazteei «ex mutua collaboratione» etorritako ondasun bezala definitzen baititu, hots, euren lanez eta ekonomiaz lortutakoak bezala. Baina printzipio hori euskal usadioen berdintasun-izpirituarekin bat ez zeto-rrera planteaturik, Lapurdiko Usadioak hurrengo artikuluan tentua jartzen zion ahalguztiduntasun horri Emazte ezkonduak hiru kasutan senarraren ezkontiar baimenik gabe ere ondasun komunak konprometitzen ahal zituen: publikoki merkatarari zenean bere merkataritzaren beharretarako; ezkontzan izendatutako ondasunen mantenimendurako, eta haur komunak janaritzeko. Hiru kasu horietatik at ere emazteak bere baitan hitzarmen-

dutako betebeharra ez zen baliogabea. Bere ekime-  
nak juridikoki baliozkoak baziren ere, senarraren  
indarrak horien ondorioak eteten ahal zituen baina  
senarra hiltzean zordunek berriro eskatzen ahal ziz-  
kioten emazteari». (Ibid., 79-81. or.)

Argi eta garbi dago, euskal usadiozko legea,  
iraunez ere, hasierako berdintasun-izpiritu hura  
galtzen doala. Erromatar zuzenbidea darabilten  
herrietan ez dago euskal usadiozko legearekiko  
eroapenik. Baina usadiozko legearen existentzia eta  
izpiritua sustraian daude.

Propietate pribatuaren ezarpenarekin euskal  
antolamendu politikoak familiaren oinordekotasun  
erreferentziala hartuko du. **Familia** da euskal anto-  
lamendu politikoaren oinarritzko unitatea. Euskal  
gizabanakoek horren bidez edo hori ordezkatu  
betetzen dituzte euren funtzio sozial eta politikoak.  
Etxearekin lotutako erakunde ekonomiko-sozia-  
la da euskal familia. Etxeari loturik doaz aterbea,  
lantegia, tenplua eta, antzinatean hilobia edu-  
kitzearenak. Gurasoek, haurrek eta arbasoek elka-  
rrekin osatutako elkarte da. Horrela bada, etxea  
da hurrenez hurreneko belaunaldiek odolezko  
komunitateaz, tradiziozkoaz, elkarrekiko dituzten  
eskubide eta betebeharez euren artean batzuek  
besteenganatzen dituzten espazioen sostengua, sin-  
boloa eta antzeztokia. Familiak, etxea zatikatzea  
tronkalitate-erregimenarekin arautu zenean tes-  
tamentu-askatasuna, ezkontide-elkartasuna, senar-  
emazteen arteko ondasunen jabekidetasuna eta  
arbasoen gurtza atxikitzea baimentzen ditu. (En-  
gracio de Aranzadi –Kizkitza–, 1932)

Eta familia auzokideen artetik **auzoa** sortzen da. Etxe bakoitzak etxe-talde edo auzoarte bateko kide izanez auzoa osatzen du. Auzunea euskal erakunde zaharra bezain sendoa da. Eritasun-kasuetan, azienden ezbeharretan, etxearen suteetan, gariak segatu eta eulzteko eginkizunetan, arto-zuriketetan, lur-laiatzeetan, karea eta soroetarako ongarriak egin eta banatzeetan usadiozko legez auzokideen laguntza jaso izan da. Kristautasuna Euskal Herrian errotu zenean auzo-erakunde hori erabili zuen elizak parrokiaren bidez usadizoko betebehar horiek lotuz. Horrela, parrokiako elizaren aldeko lehen auzotarrek laguntza eman behar zioten beharretan aurkitzen zen auzotarrati. Eritasun-une larrietan eta elizakoak administratzeko orduan, eurek ohartaraziko dituzte medikua zein apaiza ; heriotza kasuan, eurek oharraraziko dituzte lehengusuak bezala gainerako auzokideak, eliza eta auzitegia; hilotza etxean egongo den bitartean hildakoaren etxeko lanak euren kargu hartuko dituzte; hileta garaian segizio- buru izango dira; sortzeetan, ezkontzetan eta lan larrietan ere laguntzen dute.

Eta auzoetatik **herria eta bailara** datoz, zeintzuek euren bizikideentzat arauak diktatzen dituzten larreen, basoen, iratzeen eta uren probetxurako, bide berriak irekitzeko eta zaharrak konpontzeko edo mantentzeko edota mendietako piztiak ehizatzeko, hori bai, beti ere usadio zaharrekin ados etorri. Bailarak, beren aldetik, federatu egiten dira fazeriak, batasunak edo elkartasunak antzeko eginkizunetarako osatuz, eta iherarkian goragoko maila batean, batzarrak ospatuz, zeintzuren barnean

familiek edo euren eskudunek ahotsa eta bozka duten. Bailaren federazio hauek ongi mugatutako batasun geografikoen arabera eraturik daude Euskal Herrian (Aizkorri, Aralar, Hernio Altzania, Urumea, Oiartzun, Leitzarain, etab.). Bailaren bidez administratu izan da gutienez ere Eneolitikoaz geroztik Euskal Herria, nola udalerrien hala eskualdeen alorretan. (J. M. Barandiaran, 1974, T. 6., 251. or.).

Bailaren gaineratik euskal eskualdeak aipatzen dira, eta ondoko lerroetan horiek aztertzen saiatuko gara. Baina horretara ailegatu aitzin, gure aburuan hain determinantea ez den, baina, geografioen artean arrakasta eduki duen ikuspegi zahar bat badela gogoratu, on Joxemielekin batera euskal erliebearen garrantzia azpimarratzera abiatuko gara. «Erliebeak bere laukiak ezarri zizkion gizabanakoari, horrela sorreran bailara geografikoa zena bailara politiko izatera igaro arte». (Ibid., 143. or.). Era berean urrats bat harago ere ematen du ondokoa dioenean: «Paisajearen batasunak etnia baten eta jendetza baten kultura homogeen eta koherentearen eraketa erraztu zuen. Gisa horretan bere bizimoduarekin, erakunde juridikoekin, erlijioarekin eta hizkuntzarekin garaturiko euskal herri tradizionala sortu zen; kategoria horiek egitura organikoaren ziklo bat eratuko dute, horietariko elementu bakoitza osotasunaren funtzioen arabera eraikiz eta bilakaeraziz». (Ibid., 143. or.). Hain zuzen ere, geografo ikuspegi hori baliatuz, G. Viersek On Joxemielen aurkakoa ondorioztatu nahi izan zuen, honako hau idatzi zuenean: «Euskal etnia ongi mugatutako lurralde batekin ez da identi-

fikatzen, aitzitik komunitate linguistiko batekin, Eskualdunekin, hots, euskaraz mintzatzen direnekin, gisa honetan Euskal Herriak mugak aldatzen ahal ditu politikarekin nahastu gabe Irudi luke bada, Euskal Herriaz hitz egiteko modu onargarri bakarra, Frantziako euskal probintzietz edo eta Espainiako euskal probintzietz mintzatzea dela, zeina inolako susmorekin talka egin beharrik izan gabe ulertu behar den, noski». (G. Viers, 1975, 19-20. or.). Baina G. Viersen inkoherentzia «neokolonialista», inuxenteena ere konturatzeko modukoa da. Nola esango digu bada gaia «politikarekin nahastu gabe» erabaki behar dela, eta jarraian, euskal etnia bere baitan definitzeko modu bakarra Frantzian eta Espainian kokatzea dela?

Euskal etniaren muga geografikoak beti ez dira berdinak izan. Behin eta berriz gogoratu dugu jada euskal tankerako gizakia pirinear kate guztian eta areago ere haren mendebaldean bezala ekialdean zeuden lurraldeetan bizi izan zela milaka urteetan zehar. Baita emigrazio-eragile izanez Euskal Herritik urrun dauden hainbat uharte eta kontinentetara ere hedatu zela.-

Baina euskaldunez ailegatu zaizkigun idatzizko lehen lekukoak gogoratzean zera ikasten dugu, euskal etnia euskalkietan dibertsifikatua zela eta gaurko eskualdeek degizkiguten mugak haus-ten zituztela tribu haiek. Honekin, bistan denez, geografoak idatzitako muga politikoak erliebearen emaitza direlako esaldia pikutara doa, noski.

Aintzinateko idazleek (greziarrek eta erromatarrek, eta guztien gainetik Jesukristoren aitzineko II. mendean bizi izan zen Polibeok), euskal tribuek



okupatzen zituzten lurraldeez utzi dizkiguten le-  
kukotasunak eskualde mugatu batzuk diseinatzen  
dizkigute. Gure egunetan «betikotzat» ematen zai-  
gun eskualdetiar bereizkuntzatik at dagoen euskal  
mugen mapa bat islatzen digute, noski.

Euskal etniako tribu nagusia, erderaz, «**Vas-  
conia**» deitzen zen, hots, aldi berean Euskaldunen  
eta Gaskoien sorrerak adierazten dizkigun izen  
hori erabiltzen zen, eta gaur egungo bi Nafarroak,  
Aragoiko iparrataldea, hots, Gallego erre kara arte-  
ko Huesca (Oska), eta Arabaren ekialdea biltzen  
zituen. Mendebaldeko auzotzat «**Vardulia**» zeuka-  
ten, nagusiki Gipuzkoan bazeuden ere, Araban  
Guardiaraino ailegatzen ziren. Horien hurbilean  
«**Caristia**» lurraldeko tribua zegoen, Bizkaia eta  
Gasteiza arteko Arabaren zatia hartzen zuena. Gai-  
nerako Arabaren zatia eta Errioxa, hots, hegoalde-  
koa, «**Beronia**» tribuak okupatzen zuen. Azkenik,  
«**Autrigones**» tribua ozeanora arteko mendebal-  
dean zegoen. Honi guztiari gehi diezaiogun Ze-  
sarrek De bello gallico, I, 1ean **Akitaniarrez** dioena:  
hots, Garonak, Pirineoak eta Ozeanora artekoak  
eratzen duten lurraldean bizi zirela. Azken horien  
artean, noski, iparreuskaldunen zati bat ere hor  
dago. (J. Allières, 1997, 15.<sup>a</sup> eta hurrengoak)

Noiztikoak ditugu orduan euskal eskualde  
historiko izendatzen ditugunak? Ez da erraza data  
zehatz bat jartzea. On Joxemielek diosku: «Euskal  
Herria aldi historiko luzez gero zazpi eskualde edo  
demarkazio politikotan zatituta egon dela: hots,  
Lapurdi, Zuberoa, Nafarroa Beherea, Nafarroa  
Garaia, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba deituetan». (J.  
M. Barandiaran, 1974, T. 6., 251. or.) Eta funtzio

politiko-administratiboak errekonozitzen dizkie eskualde horiei. «Eskualde horietariko bakoitzak, euren lur-demarkazioen bailarak elkartuz, bailarek eta bailaren federazioek zeuzkaten antz-antzeko funtzioak bete dituzte, nahiz eta goreneko mailan Forua deitu legeen kodigo bat jarraitu» (Ibid., 251. or.). Eta, bidenabar, Foruei buruzko adierazpen bat egiten digu: «Foruek herriaren egintzetan daukate jatorria, lehenik usadio eta ohitura bilakatuz eta geroago herri beraren batzar legegileetan sagaratu. Euskal Herriaren antolamendua bada, funtsean errepublikarra zen, zeinaren funtsezko unitateak sendi jendeztatzailleak eta lurrak ziren eta euren gogoia gizakia eta lurra libre aitortzetik eratoritzen zen». (Ibid., 251. or.).

**Orain artekotik ondorio bat atera bageneza, hauxe litzateke: Lehen aroan familia zela subira-notasunaren eta erabaki-hartzeen gunea edo ardatza. Jarduera mota hori tradizio zahar bezain luzea den sistema ere badela gehituko dugu, zeren Euskal Herria, beste edozeren gainetik, artzain-gizarte bat izan baita luzaro. Gainera, sistema hori aipatuko ditugun hurrengo aroetan sartuz gero ere, ez da sekula zeharo desagertu.**

## II. GIZARTE POLITIKOAREN SORRERAK ANTZINATEKO MUNDU GREZIAR-ERROMATARREAN

Europar gizarte zaharretan, «gai politikoak» bi aro handi nabarmen ezagutu ditu, batzuetan lehenago eta beste batzuetan geroago izan bada ere. Horietarik lehena Jesukristo aitzineko VI. mendera arte helduko da Grezian. Bigarren aroa berriz, Clistheneren erreformarekin abiatzen da ofizialki, nahiz eta hori gerta zedin gertatu behar zena, lurlangintzak ekarri zuen eta horrek aristokraten aginte-ezarpenarekin zerikusi hertsia du.

### 1. Lehen aroko gizarte politikoaren elementu osagai nagusiak

#### *Familia-komunitatea*

Lehen aroko antolamendu politikoa naturalki komunitario zenari lotuta ageri zaigu, hots, interes eta ezaugarri berdinak zituen giza taldeari eta konplexutasun gutxiko erakundeen sorrera apreziatzen da. Gogora dezagun, aro hori kontuan izanik, Aristotelesek dioena: «komunitateen artetik lehena (jatorrizkoa, originarioa) familiaren etxea da». (Aristoteles, 1981, 49. or.). XVIII. mendean,

anitzez geroago bada ere, gauza bera errepikatuko digu J. J. Rousseauk lehen gizarteak aipatzean eta hauxe baieztatzen du: «Gizarte mota guztien artean antzinakoena familiarena dugu, eta bakarra da naturala dena» J. J. Rousseau, 1972, 161. or.). Homeroren poemetan (K.a.IX. mendea), sendia aitak eta amak, eta beren seme adindunek osatzen dute hauen emazte eta haurrekin batera. Jarraian, «etxeak» familiaren muina (gurasoak eta haurrak) bilduko du beti eskas diren etxeko esklabo batzuekin batera. Espartan agertzen da halaber aitaren familiako ondasunak ezin direla kanpora eraman. Horrek «**genos**» erara garamatza artez.

Grezian adierazten zenari Erroman beste hau ere gehituko zaio. Paterfamilias baten mende daudela pertsonak bezala objektu edo gauzak oro, alegia. Zehaztasun gehiagorekin izendatuz, mendekotasun horien artean leudeke: zuzeneko ondorengoak, ezkontzaz taldeko partaide bihurturiko emazteak, seme-alabatzat onartutako pertsonak, familiako aitaren onarpen librearekin «adrogazio» prozeduraz etxeratuak, eta baita esklabuak, animaliak eta mota guztietako ondasun materialak ere. **Genos** berean hainbat familia elkaturik egon litezke eta benetako klan bat egiteraino hel daiteke.

### *Genosa*

Greziarren sisteman klan edo belaunaldi desberdinez osatutako sendi hedatua zen. Hala ere, «fratia» baino melarragoa zen, noski. Aztertzen ari garen lehen aroan, izen bereko arbasoak zituztenen ondorengotasuna adierazten zuen. Horretan odolaren irizpidea nagusi zela topatzen dugu.

Lehen aroaren amaieran, nobleetara mugatzen joango da sistema mota hori. Horren barne, eginkizun erlijioso komunetan jarduten zuten, baina urtean behin batzartu egiten ziren jarduera politikoa erakusten zuten funtzionarioak (dekretuak onarrarazteko eginbeharra zuten) hautatzeko, eta legearen araberako semeak inskribatzeko. Genos batek, arbaso ospetsu baten ondorengotza erreibindikatzeko zuten hirurogei senditaraino elkar zitzakeen. Batez beste, lurjabe handiak ziren. **Eupatrida** ere izendatzen zen euren buruaz ari zirela, hots, ongi sortuak zirela adierazi nahiz. Lehen aroaren aldi hori, hirien sorrera edo bigarren aro bat eskatzen ari zela jabetzen gara. Eta gerora hala gertatu zen.

### *Gensa eta Gentilicea*

Erroman sistema hori Greziarekiko ahuldua aurkitzen dugu. Ziurrenik, Greziako hirien ondotik datorren Erromaren nagusitzeak bere lehen arokoa, hots, antzinakoa iluntzen digu. Erroman Gensak indarra galtzen ari direla ageri da. Ez daude erregistratuak, euren arbasoak ez dira gurtzen Grezian bezala. Hala ere, garbi dago genosaren ordezkioak direla, zeren ondasun komunak dauzkate. Gainera kideak elkartuz erritual erlijiosoetan ere agertzen zaizkigu.

Gentilice adjetiboa maiz genseko kideek adierazpen nominatiboaren ondorio eta luzamen bezala erabiltzen dute.

### *Tribua*

Hainbat fratieren elkartzetik sortzen da. Jatotri eta adur hurbiltasuna dago muinean. Tribu ho-

riek, lehen aroan, eraikin politikoaren gailurrean dagoen etnosera bideratuko dute agintea. Greziako gizartea polis aroan sartzen denean ere ez da desengingo tribu-sistema. Kronikan agertzen digutez polis bat hainbat eta hainbat tribuz osaturik zegoen. Adibidez, dorioen polisetan hiru tribu zeuden. Ionioen polisetan berriz lau. Eta azkenik, K.a. VI. mendean Clisthenek egindako erreformaren ondorioz, badakigu jakin Atenasen hamar tribu sortu zituela.

Delako erreformak, besteak beste, odolaren irizpidea ukatuz eta nahastuz haren jardueraz ematen zen solidaritate-sistema suntsitu zuen. Horren ordainez, «justizia» planteamentuak gogoetatuko dira hiriarri helbide duina emateko. Horren frogarik bikainena Plantonek Errepublikak edo Estatua liburuaren bigarren atalean eraikitzen duen eztabaida dugu. (Platon, 1993, 69-94. or.).

### *Ethnosa*

Polisa sortu aitzineko tribuen erakundetze nagusia adieratzen digu. «Herria» bezala ere itzul daiteke. Kontuz, hala ere, «herria» horrela hartzean, horren transposizioa gurera egin nahi denean. **Lan-zatiketarik egiten** ez den bitartean komunitatearen mugak izan ditzake. Baina **klaseak** agertzen joango diren heinean eta propietate pribatua eraikiko delarik, komunitateko «**libreek**» bakarrik osatuko dute «herria». Idatzietan ere erabiltzen da «herri barbaroak» adierazpena grekera ez dakitenak izendatzeko. Ethnos komunitarioak gobernantza asanblearioa adieraziko du. Hori bai, gizona ordezkaritza bakarrik onartzen da.

## 2. Bigarren aroko gizarte politikoaren elementu osagarri nagusiak.

### *Polisa*

Aristotelesek barneratuko gaitu polisaren muinera: «Hainbat alderri elkartzean polisa sortzen zaigu, komunitate akasagabea da, zeren eta bizi beharraren larriduran bere jatorria ukanez, baina ongi bizitzeko bizirik iraunez, erabateko autosufizientzia lortzen baitu Autosufizientzia bikaintasuna da, eta egoera ezin hobea Polisa gauza naturala da, eta gizakia, berriz, izaeraz, animalia zibikoa da» (Aristoteles, 1981, 49. or.).

Hasteko, «cité» eta «ville» bereizi egin behar dira berehala. Polisak behin ere ez du balio «ville» adierazteko. Izan ere, Aristotelesen testuan argi agertzen denez «polisak» bere burua gobernatzeko eta defendatzeko lain den gizarte-erakuntza esan nahi du. Polisaren elementu bereizgarriak ondoko hauek dira: 1) Lurraldea (chôra) du; bere hazkurria bermatuko dio gizarteari eta jende samaldarengandik buruzagitza jasoko duenak, erresistentzia garaian azken bastioi izango denez, akropoliaren oin gotortua ukanen du. 2) Ziutate edo polisa bakoitzak bere erakunde propioak bilakarazi egiten ditu. 3) Identitate-sentimendu azkarra lantzen du. 4) Poliseko bizilagun guztiak ez ziren hiritar izaten. Hiritartasuna poliseko pertsona «libreak» bakarrik zeukaten. Eta polis bakoitzean «libreak» **erregimenaren** arabera gutxiago edo gehiago izan zitezkeen. Are gehiago ere esan behar da gai hau zehazteko orduan: polisetako pertsona libre guztiak ez zirela

hiritar: horrela adin txikiko mutikoak (adin nagusira helduak ez zirenak, alegia) ez ziren hiritar; edo emakumeak behin ere ez dira izango nahiz eta euren bidez gizon libreek hiritar gaitasuna transmititu; are gehiago, oraino atzerritar erresidente zirenak, nahiz eta aberatsak izan, ez ziren hiritar.

Arau orokor bezala esan dezagun, hiritar zen norbaiti aurrez hiritartasuna zuen beste norbaiten seme izatetik zetorkiola. Bestalde, hiritartasuna gradualki jasotzen zen: hiritartasunaren eskubide politikoeak adinaren arabera, jaiotzarenean bezala ondasunenean, murrizketak jasaten zituzten magistraturetara ailegatzeko orduan. Hiritar eskubide bat lortzea biziki zaila zen, eta horretarako prozedura konplexuak jarraitu behar ziren. Erromaren goreneko unean, hiritartasuna kolonietako bizilagun batzuetaraino ere ailegatu zen. Erromako inperioan sartzen ziren lurraldeetako jende aberatsei berehala ematen zitzaien. Servius Tullius idazleak ondasunen araberrako bost hiritar mota deskribatu zituen.

### *Ordinesa*

Erroman ordena bat hiritar klase bat da K.a. I. mendean geroztik. Hasieran, bada, zaldunei eta senatariei bakarrik doakie izen hori. Birrantomenduan, Augustok, kategoria sozio-ekonomikoak ematen zuen estatutuari lotu zion horren aitortza eta hortik abiatuta Estatuaren zerbitzurako arauturiko karrerari atxikitako kategoria funtzionalek osatuko dute aurrerantzean. Inperioaren garaian zaldunen ordena gora eta gora joango da senatariei ordena beheeraka joango den heinean. Azkenik, Antioaren garaian, bereizketa piztuko da, alde bate-



tik **honestiores** (zaldun, senatari eta jauntxo muni- zipalek osatzen zuten hiritar mota zen), eta beste- tik, **humiliores** (horretan gainerako jende arruntak sartzen ziren) izenekoak zeuden. Eta laster balio juridikoa hartu zuen bereizketak.

### *Estatua eta Erregimenak*

Grezian gai politikoa urrezko aroan sartu ze- nean, Justizia eta Ongia gidari izanik, horiek zer gobernu motarekin hobekien lor zitezkeen ezta- baida landu zen. Platonen eta Aristotelesen gogoe- tak ditugu gai horretan gorenako eta eredugarri. Horrela bost erregimen mota bereizirik, Justizia eta Ongia irizpidearekin, hoberenetik txarrenarako iherarkian bost erregimen sailkatuko dizkigu lehe- nak; eta egokiak eta desegokiak binomio plurala- ren pean sei izendatuko dizkigu bigarrenak.

### 3. Platonen ekarpenak

1) Lehena eta hoberena **Errepublika** da (kon- tuz, hala ere, ez baita gero latindarrek itzuliko du- ten Res Publicarekin nahastu behar). Platonek hor, sinpleki «gizartea» edo «estatua» adierazteko erabili zuen eta errepublika izenari berehala **aristokratiko izen laguna** erantsi zion, bertutean bezala jakin- tzan gizarteko kide hoberenez osatutako erregime- na adierazteko. Platonen baldintzetako erregimen ideala, inon ez zen gauzatu, nahiz eta aristokratek hainbat gizarte kudeatu zituzten Greziako Estatu haietan.

«Gizartea» aztertzen hasita, justizia eta injusti- zia bertan nola sortzen joan ziren aurkitzen saiatuko

garela aurreratuz, gizartearen jatorria nondikoa den galderari erantzuten dio: «Ez al da gizabanako bakoitzak bere buruaren kontura jardutea aski ez duela ikusi eta hainbat gauzen beharra esperimentatzean duen ezintasunaren emaitza? Beste kausarik bai al dago?

–Ez.

–Horrela bada, gizabanako bat gauza baten beharrarengatik beste batekin elkartzera behartuta gertatzean, eta beste bat beste behar batengatik gauza bera egitera, behar horiei erantzuna eman beharrak, gizabanako anitz elkar laguntzeko helburuarekin elkartu zituen gela berean eta gisa horretan sortutako gizarteari Estatuaren izena eman diogu, ez al da horrela?

–Bai.

... –Eta gure Estatuak, nola hornituko ditu bere beharrak? Horretarako beharrezkoa izango da bata laborari, bestea arkitekto eta hirugarrena ehule izatea. Gehituko al diogu halabear honi zapatari bat edo beste antzeko edozein artisau?

–Ordu egokian.

–Estatu oro lau edo bost pertsonaz osatzen baita funtsean.

...–Gauzak nola egingo dira hobekien, gizabanako bakoitzak lanbide anitz betez, ala bakoitza bere lanbide soilera mugatuz?

–Hobeki joango dira gauzak bakoitza bere lanbide propiora mugatuz, noski». (Platon, 1993, 79-80. or.).

Gizartearen bilakaera politikoa agertzen hasita **lan-zatiketaren** lehen deskribapen formala egin

digu Platonek. Xehetasun gehiago ezagutu nahi izanez gero atal osoa irakurtzea gomendatzen dugu, zeren, zehaztasunetan aberatsa baita.

Baina, Platonek badaki oraindaino agertu duen guztiarekin gizartean justizia eta injustizia nola sortzen diren galdeari ez diola erabat erantzun. Horrela bada, gai horren inguruko elkarrizketak jarraitu egingo du.

«—Nola aurkituko ditugu gizartean edo Estatuan justizia eta injustizia? Non uste duzu daukateela jatorria elementu desberdin horien guztien artean?

—Ez dut ikusten, Sokrates, nolaz eta harreman elkarkideetan ez den, zeintzuk hiritarren behar derberdinengatik sortzen diren.

—Beharbada, jo duzu zehazki arazoaren mui-nean; ikus dezagun eta ez gaitezen adoregabetu. Has gaitezen begiratzen Estatu horretako biztanleek egingo duten bizibidea. Beren lehen ardura janariak, ardoa, jantziak, oinetakoak eta egongela lortzea izango da...

... —Baina ez da bakarrik Estatu baten jatorria bilatzen ari garena, aitzitik atseginez gainezka egingo duen Estatu batena. Beharbada ez dugu horretan gaizki obratuko, zeren gisa horretan jardunez jakin ahal izango baitugu nondik sartzen diren justizia eta injustizia gizartean. Eta Estatu edozeinetariko izanik ere, benetako Estatu, Estatu sanoa da aurkitu berri duguna...

... —Hasieran aipatu dudan Estatu sanoa, orain txikiegi geratuko zaigu. Handitzera beharturik aurkituko gara, eta horrela, bertan jende-multzo bat

sarraraztera, ezen luxuak, eta ez beharrak sarrarazi dituenak Estatuan, horrelakoak baitira mota guztietako ehiztariak eta beren artea praktikatzen dutenak irudien, koloreen edo doinuen imitazioaren bidez; gainera, poetak, beren segizio guztiarekin, rapsodak, aktoreak, dantzariak, antzoki-enpresarioak, mota guztietako langileak eta guztien gainetik emakumeentzako lanean ari direnak ere...

...Horrela, aski larre eduki nahi badugu eta laborantzarako lurra, gure auzoei lapurtu beharko diegu; eta gure auzoek beste hainbat egingo dute gurekin baldin eta beharrezkoaren mugak gaindituz, ukaitearen nahikari ase-ezinari eskaintzen bazaizkio.

—Horren ondorioz gerra egingo al dugu Glaukon, zeren, beste zer egin daiteke?

—Ba, gerra egingo dugu.

—Oraingoz ez dezagun hitz egin gerrari jarraiki helduko diren ongiez zein gaizkiez. Esan dezagun, bakar-bakarrik, Estatuentzat bezala partikularrentzat ere hain zigor kaltegarria denaren jatorria aurkitu dugula. Orain gure Estatua armada ugari bati toki egin beharko diogu, zeren arerioaren bila joanez, Estatua eta honen ondasun guztiak defendatu beharko baititu inbaditzaileei aurka eginez.

—Izan ere, hiritar soilek eurek erasotzea eta defendatzea ez al dute ezinezkoa izango?

—Ez, baldin eta Estatua planifikatu dugunean egindako proposamena egokia bada.

—Adostu genuen, gogoratzen baduzu, gizabanako berberak ezin zituela ukan anitz ofizio aldi berean.

–Horrela da

–Zure aburuan, gerrariarena ez al da bada ofizio bat?

–Bai, noski!» (Platon, 1993, 82-84. or.).

Ikusten dugunez logika zorrotzean eta arrazonamendu ziur bezain ximplean jardunez, Platon heldu da Estatua eta bere zaindarien arazoa planteatzera. Testu beraren berehalako pasarte batean erantsiko du halaber zaindari horiek gerrari bezain filosofo izan daitezen ezinbestekoa dela. Nola hezi gizabanako arruntak eginkizun berezi horretarako? Hezkuntzaz gogoeta bikainak daude bere testuan.

Baina aitzina eginez gogora dezagun zer bizi-modu proposatzen dien: «Nire Glaukon maitea, gure artean onarturik daukagu, ongi eraikitako Estatu batean dena komuna izan behar dela zaindaritza-ofizio horretara dedikatuko direnen artean: emakumeak, seme-alabak, hezkuntza, bakeari eta gerrari dagozkien ariketak eta filosofian zein jakintza militarrean bete-beteak diren gizonak hautatu behar direla buruzagitzarako.

–Bai». (Platon, 1993, 230. or.).

Komunismoaren lehen formulazio ziurra da testu hau. Hala ere, hogeigarren mendean ezagutuko ditugun komunismo proiektuetatik urrun dago, zeren orain eta hemen Estatuko goi zaindariantzat bakarrik proposatzen baitira neurri horiek. Beste bertsio batean, eliza katolikoan apaizentzak egingo zen plangintzak ere badu antzekotasunik, nahiz eta elizako apaizen kasuan «emakumeak eta seme-alabak» zelibato-neurriarekin ordezkatu.

## *Timokrazia*

Idealtzat eman den errepublika aristokratikoa, ordea, arras zaila gertatuko da inon gauzatua ikusteko, eta inoiz horrelako zerbaitera hurbilduko den erregimenik izanda ere, imagina daitekeena da biziki erraz degradaziora irrist egin daitekeela. Aldaketa ahal hori arrazoitzen saiatzen da Platon: «Ahalegin gaitezen esplikatzeko, zer gisatan ukan dezakeen tokia aristokraziatik timokraziarako iragaitzak. Ez al da egia, gobernu politiko bateko aldaketek gobernatzen duen alderdian zatiketa bat piztean dutela jatorria, eta txikia izanagatik ere alderdi hori bere altzoan harmoniaz biziko den bitartean, ezinezkoa izango dela Estatuan berrikuntzarik egitea?

–Bai hala da.

–Horren ondorioz, nola aldatuko du bere aurpegia gure baldintzetako Estatu batek? Liskarra sortu eta gerrari eta buruzagien artean iragaziz, klase horietariko bakoitza bestearen eta norberaren aurka armatzera helduko da...

Zatiketa gauzatuz gero, burdinazko eta brontzezko bi arrazak aberasten saiatuko dira lurrak, etxeak, urrea eta zilarra eskuratuz, aldiz, urrezko eta zilarrezko bi arrazak, naturaz aberatsak izanik, eta gabetu gabeak, bertutera eta lehen konstituzioaren sostengu izateko eskainiko dira. (Platon, 1993, 233. or.)

–... Mota honetako gobernu bat, aristokraziaren eta oligarkiaren arteko zerbaite izango ote da ba?

–Bai.

–Iraultza, bada, nik agertu dudana moduan burutuko da; baina, zer izango da horrelako gobernu

berri baten forma? Ez al da nabaria, ordea, antzinekotik zerbait atxikiko duela eta bataren eta bestearen artean den bitarteko toki bat okupatuko duen gobernu oligarkikotik ere zerbait jasoko duela?

–Ezpairik gabe.

–Aristokraziatik, magistratuenganako errespetua gordeko du, baita ere laborantza, artea, mekanika eta irabazpideko lanbideei gerrariek zieten gorrotoa eta ariketa gimnastikoak eta militarrek praktikatzeko zuten ardura.

–Bai.

–Bere gauza propio bezala, berriz, jakintsuak lehenengo duintasun postura altxatzeko larderia ukanen du, zeren bere erraietan ez baitira gehiago bertute xalo eta garbidun jitearekin moldatuko, aitzitik elementu derberdinez osatutako jiteak agertuko dira; aginterako izpiritu gutxi ilustratuak, haserrekorrak, eta bakerako baino gehiago gerrarako sortuak hautatzea; gerrako estrategiak eta mainak kontuan hartzea, eta beti armak eskuan izanik prest egotea». (Platon, 1993, 232-234. or.).

### *Oligarkia*

Degradazioz degradazio oraino desegokiago den hirugarren erregimen mota bat deskribatzen zaigu. «Azttertzea tokatzen zaigun gobernu uste dut oligarkia dela.

–Zer ulertzen duzu zuk oligarkiaz?

–Hiritar bakoitzaren kondizioa zentsoak agintzen duen gobernuaren mota bat da; zeinetan aberatsek, agintea erabiltzen duten pobreak partaideztatik at utziz». (Platon, 1993, 236. or.).

Erregimen oligarkikoan aberats izan eta ordinesen barnean egoteaz gain konplexutasun edo kompetentzia teknikoengatik gutxi batzuk bakarrik karguak betetzen ahal zituzten. Interes partikularrak zeuden lehen mailan.

### *Demokrazia*

Nola Platon hala Aristoteles demokrazia aipatzen dutenean erabat ados daude termino horren itzulpena egiteko orduan: pobreak esan nahi du lehen adierazpenean. Inongo ezbairik ez dago gobernu mota desegokia zela egiten diguten deskribapena kontuan hartzen badugu. Ez du inolako zerikusirik guk XVII.-XVIII. mendeaz geroztik interklasismoaren ondorio emango diogun adierazpen berriarekin. Gehiegi erabiltzen dugu bada terminoa gure demokrazia greziarrena dela diogun bakoitzean. Hara hemen Platonen aurkezpena: «Gobernua demokratiko egiten da, pobreek aberatsak garaituz, batzuei lepoa mozten dietenean, besteak desterrura igorzen dituztenean, eta gelditzen direnekin karguak eta negozioen administrazioa partitzen dutenean, gobernu mota horietan partiketa ohikotasunez zoriaren arabera egin da.

–Horrela ezartzen da demokrazia, bai armen bidez, bai aberatsek, beren buruez beldur izanez, erretiratzeko erabakia hartzen dutenean». (Platon, 1993, 242. or.).

Hala ere, alde baikorrek ere badituen gobernu mota da: «Lehenik eta behin, mundu guztia libre bihurtzen da Estatu honnretan; bertan askatasuna arnasten da traba guztien gainetik; bakoitza nahi duen hura egiteko jabe da.



–Horrela kontatzen da». (Platon, 1993, 243. or.).

Jende arrunta jende bereziari kontrajartzen zaio greziarren demokrazian. Denak libre direla adierazten delarik, kontu egin behar da «denak» horrekin, zeren aberatsak baztertuak izan baitira. Orduan, ez dago interklasismorik gure hurbilagoko mendeetan demokrazian egingo den moduan.

### *Tirania*

Hasteko gobernu mota horretan boterea duenak erabiltzen duen ankertasuna da deigarri. «Ikus dezagun, Adimanto maitea, tirano-gobernua nola osatzen den, eta lehenik eta behin bere sorrerak ez ote dion zor demokraziari.

–Nola?

–Oligarkian ongirik bikainena kontsideratzen dena, hori bera esan daiteke dela tirano-erregimen jatorria, hots, partikularren gehiegizko aberastasunak; ez al da horrela?

–Bai.

–Bere hondamendia dakarrena, ez al da aberastasunekin ase-ezina, eta hori dela-eta gainerako guztiaren aitzinean axolagabezia erakusten duena?

–Hori ere benetan horrela da.

–Arrazoi berarengatik, demokraziarentzat bere hondamendiaren arrazoia, bere benetako ongia bezala begiratzen duenaren nahikeria ase-ezina izango da.

–Zer da ongi hori?

–Askatasuna. Sar zaitetz Estatu demokratiko baten barruan eta alde guztietatik gauza bera en-

tzungo duzu, hots, euren ongirik preziatuena dela askatasuna, eta arrazoi hori dela eta, libre sortu den edozein gizonek bere bizilekua bertan ezarriko du beste inon baino lehen.

–Antzeko esamesak entzutea benetan ohikoa da». (Platon, 1993, 247-248. or.).

#### 4. Aristotelesen ekarpenak

Platonengandik hurbil badabil ere anitz deskribapenetan, hala ere dena ez da kointzidentzia. Hasteko, erregimenak klasifikatzeko orduan ez du hoberenetik txarrenera ordena hierarkikoa ezartzen. Platonentzat hoberena bakar batek egi-ten duen bitartean, aldiz Aristotelesek, justizia eta ongia lortzeko **egoki plural** bat dagoela aitortzen du. Beste hainbeste egingo du **desegoki plural** bat izendatuz helburu haietatik at dabiltzanak aipatzeko orduan.

Hara bere erregimenen eskema:

- |                                                                              |                                                                                |
|------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------|
| 1) Egokia litzateke eta pertsona bakar batek gobernatuko luke:<br>–<Monarkia | 1) Desegokia litzateke eta pertsona bakar batek gobernatuko luke:<br>–>Tirania |
| 2) Egokia litzateke eta gutxi batzuek gobernatuko lukete:<br>–<Aristokrazia  | 2) Desegokia litzateke eta gutxi batzuek gobernatuko lukete:<br>–>Oligarkia    |

3) Egokia litzateke eta anitzek gobernatuko lukete:

—<Errepublika

2) Desegokia litzateke eta anitzek gobernatuko lukete:

—>Demokrazia

Zergatik eta nola agertzen da gobernu mota hauetariko bakoitza?

Bosgarren liburuaren lehen atalean, erregimen hauen arteko hurbiltasunak eta diferentziak aipatzen ditu. Hasteko printzipio bat gogoratzen du:

«Izaera daukaten erregimenak mota anitzetakoak ohi dira, zeren justizia eta berdintasun proportzionala denek onarturik ere, ez baitira erregimen horietara berdina doitzen. Hala nola, jendea hainbatetan berdina ikustean, absolutuki berdina zela uste izan zenean, demokrazia sortu zen (berdinki libro kontsideratzean absolutuki berdintzat eman baitzituzten euren buruak) eta, aldiz, zerbaitetan desberdinak ikustean, absolutuki desberdinak kontsideratzera igaro ziren eta oligarkia sortu zen. Hortik dator orduan, berdina diren ustean, eskubide guztietan berdintasun osoan partaide izateko eskabidea; edo desberdinak diren ustean, desberdintasun gehiago eskatzea, zeren «gehiago edukitzeak» desberdintasuna azkartzea suposatuko bailuke.

Horren ondorioz, sistema guztiek justizia maila bat gordetzen dute, baina termino absolutuetan tronpatuta daude; eta arrazoi horregatik, ziuatetiarrak, erregimenaz bakoitzak daukan ideiarekin ados parte hartzerik ez duenean, asaldatu egiten dira. Bertutean desberdin direnek, beste guztiek baino arrazoi gehiago lukete asaldatzeko, baina

gutxiago asaldatu ohi dira; ba sinesgarri litzateke pentsatzea eurek bakarrik direla absolutuki desberdinak. Aldiz, bada batzuk askazian nabarmen-tzeagatik besteekin berdintasun-traturik onartzen ez dutenak, desberdintasun hori dela medio; eta uste dute noble direla berek hartzekoen artean daudelako arbasoetatik datozkien bertuteak eta aberastsunak.

Laburbilduz, bada, horiek dira asaldaketa-rako arrazoen artean aurkitzen diren printzipio eta funts nagusiak; horregatik, bi modutara sor-tu ohi dira aldaketak. Batzuetan ezarririk dagoen sistemaren aurka beste berri bat ezartzeko, adibi-dez, demokraziaren ordez oligarkia edo eta oligar-kiaren ordez demokrazia, edo eta oraino aurreko bien aurka errepublika eta aristokrazia, edo azken hauen ordez aitzinekoak. Beste batzuetan ez da izaten ezarrita dagoen sistemaren aurkako aldake-ta, ezarririk dagoen «estatusa» gorde nahiko dute eurek administratzekotan, adibidez, oligarkiaren edo monarkiaren kasuetan. Baita ere, daukaten zer-bait gehiago ala gutxiago bilakarazteko izan liteke aldaketa; adibidez, oligarkia bat badago, oligarkia gehiago izan dadin, edo eta dagoena demokrazia bada, demokrazia gehiago edo gutxiago izan da-din, ez da gauza bera beste erregimen batzuekiko, areago ertzera eramateko ala biguntzeko. Azkenik, Konstituzioko puntu bat edo beste aldatzeko as-moz ere izan liteke, adibidez, magistratura bat sor-tu ala suntsitu nahi delako.

Honela bada, alde guztietan desberdintasuna-ri nahasketa politikoak jarraitzen dio –nolaz eta ez garen desberdintasunei proportzioan doakionaz

ari (zeren monarkia heredagarria edo jaraunsgarria desberdina baita, berdinen artean ematen denean)—, izan ere, orokorrean, gizon-emakumeak berdintasuna lortzeko asaldatu egiten baitira.

Hori bai, bi modutakoa izan daiteke berdintasuna, zerren berdintasun aritmetikoa eta merezimenduaren araberkoa existitzen baitira. Aritmetikoa diodanean kopuruz eta neurritz berdin eta identiko denaz ari naiz, eta merezimenduaren araberkoa aipatzean proportzioan berdin denaz ari naiz». (Aristoteles, 1981, 209-211. or.).

Aldi berean aldaketaren bila murgiltzen direnen printzioak eta iturburuak sakontzen jardungo da: «Gizon-emakumeek iraultzara doazenean zer egoera animikotan, zer motibazioekin eta zer nolako abiapuntua hartuz zalaparta politiko eta barne-eztabaidetan jardun ohi duten jakitea beharrezkoa da.

Berdintasunaren bila dabiltzanak, berdinak direlako, gutxiago daukatela uste baldin badute, asaldatu egingo dira, eta gehiago daukatenak eta desberdintasuna nahi dutenak, desberdinak direlako, gehiago eduki ordez berdin edo gutxiago daukatela uste badute, beste hainbat egingo dute (eta horretara batzuetan justuki joko dute, baina beste batzuetan injustuki jo lezateke); horrela bada, beheragokoak badira berdin izateko asaldatuko dira, eta berdinak badira, goragoko izateko. Honezkero garbi dago beraz zer egoera animikotan doatzen iraultzara batzuek eta besteak.

Asaldatzearen iturburuan mozkinaren, oho-arearen eta desohorearen zioak egon litezke. Desohorea eta zigorra ekiditeko, nola bakoitzaren in-

teresean hala lagunenean, ziutateetan zalapartak sustatzen dira.

Aipatu jarrerak eta helburuak dituztenek nahasketetarako dituzten kausak eta printzipioak, zazpi edo gehiagotan finka daitezke. Horietako bi aurrez aipatu berri ditugun berberak lirateke, nahiz eta zentzu berean ez erabili. Izan ere, mozkinengatik eta ohorearengatik batzuek besteen aurka borrokatzera ematean, onura propioa lortzeko ez ezik, orain, justuki ala injustuki, baina besteek kopuru handiagoan dauzkatelako egiten baitute. Gainera, harrokeria, beldurra, domeinu-lehia, mesprezua edo neurri gabeko hazkuntza gerta litezke; eta beste dimentsio batean ere azpajokoak, zabarkeria, txikikeriak eta homogeneitate-eza egon litezke». (Aristoteles, 1981, 212-213. or.).

### *Monarkia*

Aristotelesentzat, herrien arabera, **prestutasunak** (disposizioak) leudeke monarkiarako, aristokraziarako edo eta errepublikarako. «Monarkiatik gertu legoke buruzagitasun politikoan bere bikaintasunarengatik beste guztiei gain hartzen dien familia bat modu naturalean sortzen duen herria. Aristokraziarako prest legoke, berriz, botere politikoaren zuzendaritzara beren bikaintasunarengatik destinaturik dauden gizon-emakume libreen gobernu propioagatik gobernatuak izateko gai diren ziutatetiarren gizostea naturalki sortzen duen herria. Herri-errepublika litzateke, aldiz, beren merezimenduengatik ongi hornitutakoan artean magistraturak partitzen dituen legearekin ados obedituz gobernatzeko lain den gerrari-jiteduna-

ren gizostea naturalki sortzen duena». (Aristoteles, 1981, 161-162. or.).

Honela bada, zindo jarririk, hau dio monarkiaren alde: «Familia bat edo edozein norbanako bere bertuteagatik beste guztien gainetik bereiziz nabarmentzen denean, orduan, bidezko izango da familia hori erreala eta guztiaren subiranoa izan dadin eta norbanako hori errege. Hau ez dago bakarrik ados konstituzioak eraikitzen dituzten aristokrata, oligarka eta demokratek aldarrikatutako justiziaren printzipioarekin, aurrez esan dugun guztiarekin ere ados dago. Ez da normala orduan horrelako norbanako bat hiltzea, deserriatzea, ezta ixilaraztea ere eta beste guztiek bezala berak ere obeditu egin behar duela kontsideratzea; ez baita naturala zatikia osoaren gainetik jar dadin eta halako nagusitasuna duenari hori gerta dakion. Honela bada gelditzen den irtenbide bakarra zera da horrelako norbanakoari obeditzea eta gorengo autoritatea ukanez, ez partziala, absolutuki erabil dezan onartzea». (Aristoteles, 1981, 162. or.).

Ezaguna da monarkiaren defentsa sutsu honek zeharo konbentzitu zuela Akinoko Tomas. De Regimine Principum edo gobernu monarkiko deituriko bere obran, Txipreko Erregeari eskaintzen dion lehen liburuan, bosgarren eta seigarren ataletan bereziki, garatzen duen argudioa gogoratu besterik ez dago. Aristotelesekin egindako hiru gobernu mota egokien bereizketa bururaino bultzatuz, egokien artean hoberena zein den galdera eginez ondoko erantzun hau landuko baitu bosgarren atalean: «Norbanako batena baino anitzen gobernu sarriagotan tiranian endekatzen delako, ondorioz

gubernurik hoberena monarkikoa da. Berehalako bi arriskuren artean norbaitek hautua egin behar duenean, txarretik gutxien duena hautatu behar baitu. Tiranian endekatzen den monarkak, anitz agintari gaizto dituen gobernuak baino txarkeria gutiago egiten baitu; zeren boterean partaide diren agintari anitzen artean pizten diren hausturak ongien artean nagusiena den bakearen ongiari anitzez gehiago kontrajartzen baitzaio; aldiz tiraniak ez du ongi hori neurri horretan nahasten, zeren kopuru mugatua egiten duten partikularren interes zenbait ukitzen baitu. Horren ondorioz hobe da norbanako baten gobernuak anitz agintari dituen baino, nahiz eta biek ukan beren-bereak diren arrisku propioak». (Akinoko San Tomas, 1917, 30. or.). Seigarren atalean garatzen duen gaia ere adierazgarria gertatzen da, beti azpimarratzen ari garen gogoetaren zentzuan: «Gobernu monarkikoa naturalki hoberena dela dioen ondorioak, herriaren portaera nolakoa izan behar duen erakusten du eta tiraniari aukera edo aitzakia eman ez dakion saihestu behar dena eta hala gertatzen denean ere txarkeria nagusiagoak ez daitezen eman jasan behar dena». (Akinoko San Tomas, 1917, 32. or.).

### *Tirania*

Pertsona bakar batengan finkaturiko gobernuak, bertutearen aurkakoa denean, tirania bilakatu ahal da. Norbanako batek menpekoen baimenarekin agintzen duenean, erregetiarra da legea errespetatzen duenean, baina aldi berean tiranikoa ere izan daiteke, despotikoki eta norabideko arauztat bere irizpide hutsa erabiliz gobernatzen badu.



Baina bada beste tirania formarik: erregetza absolutuari dagokiona, alegia. Horrelako monarkiak, norberaren interesa beste iparririk eduki gabe, arau guztiak nahastuz, berdinak eta nagusiago direnak, arduragabe gobernatzen ditu. Orduan mendekoen borondatearen aurkakoa bilakatzen da, zeren ezin pertsona librek ez baitu jasaten, gogoz bederen. (Aristoteles, 1981, 186-187. or.).

### *Aristokrazia*

Gobernu aristokratikorako gai dela, diosku Aristotelesek, modu naturalean, gizon libreengatik, haien bikaintasuna botere politikora destinatuz, gobernatua izateko, hiritarren samalda sortzen duen herria. (Aristoteles, 1981, 161. or.) Egokia da, beraz, bertutean bezala jakindurian hoberenak direnen esku dagoen gobernuari aristokrazia deitzea, zeren bertan pertsona berbera da ona, termino absolutuetan kontsideraturik, gizaki eta hiritar-dimentsio bietan, alegia. Horrelakoetan magistraturak izendatzerakoan dirua ez ezik balioak ere kontuan hartzen baitira. Aberastasuna, bertutea eta herria aldi berean kontsideratzen dituen erregimena, Kartagokoa bezala, sistematikoki aristokratikoa litzateke; baina horrelakotzat izendatu beharko litzateke ere Lazedemonian bezala, bertutea eta herria kontuan dituen. (Aristoteles, 1981, 181-182. or.).

### *Oligarkia*

Aberatsek baldintza hori betetzen dutelako autoritate politikoa lortzen dutenean izaten da oli-

garkia. Orduan ere justizia eta ongia zerbitzatzera destinaturiko pertsona prestatuak euren negozioentzat botere politikoa erabiltzen hasten dira eta gizartearen helburuak desbideratzen dituzte. Lau gobernu mota oligarkiko bereizten ditu Aristotelesek. Bata, magistraturetara ailegatzeko errenta handiak eskatzen direnean ageri da eta, nahiz eta pobreak gehingoa osatu gizartean autoritate politikoa ezin postulaturik aurkitzen dira. Biga, magistraturak errentei dagozkienean, eta horiek dituztenen arteko batzuek bakarrik autoritate politikorako hautaketan partaide direnean. Higa, aitari semeak bakarrik jarraitzen ahal dionean. Laga, esan berri dena gertatzen delarik legearen ordezkari magistratuek agintzen dutenean. (Aristoteles, 1981, 178. or.).

### *Errepublika*

Herri batean, pertsona dohaintsuenak, beren merituen arabera, magistraturetara eramateko lain direla-eta, legearekin ados obeditu eta gobernatu aldi berean egiten dakitela erakusten dutenean, herri errepublikano baten aitzinean gaudela dio Aristotelesek. Errepublika ez da, ordea, artez jardunaz definitzen. Aitzitik oligarkiaren eta demokraziaren bidez, bi horien nahasketan datzala esaten da. Nola gertatzen den hori? Sintesi eta nahasketa hori egiteko orduan hiru prozedura daudela adierazten zaigu. Lehen prozedura, oligarkian eta demokrazian bi neurri mota kontrajarririk hartzen direnean, aldiz errepublikan biak aldi berean hartzen dira. Zeintzuk diren? Oligarkian justizia administratzean agindua betetzen ez duten aberatsei isuna

jartzen zaienean, demokrazian pobreentzat soldata jartzera mugatzen dira. Errepublikan, ordea, aberatsei isunak eta pobreei soldatak jartzea aldi berean egiten da. Bigarren prozedura, berriz, batzuek eta besteek ahal dutenaren arabera bi aldeen ahalegina erakutsi dezakeen neurri ertain bat aurkitzean datza. Pobreek ezer ordaindu gabe eta aberatsek errenta handi bat ordainduz Batzarrean elkarrarazi ordez, tarteko errenta komun bat ezarriaraziz, alegia. Hirugarren prozedura, legeria erabiltzeko oligarkiak eta demokraziak daukaten modu desberdinaren konbinatetik letorke. Oligarkian legeria erabiltzeko aukera errentarien hautaketan oinarritzen da, aldiz, demokrazian errentaren beharrik gabe karguak zozketatzen dira. Errepublikak oligarkiatik jasotako egin-moldeari jarraiki karguak hautaketaz partitzea, eta demokraziatik jasotakoaz errentadun izateko beharrik gabe hautagai eta hautesle izendatzea ekarriko du. Ongi eraturako errepublika batek, aipatu bi erregimen horiek gogoratu behar ditu, bietarik ezein izan gabe. (Aristoteles, 1981, 182-186. or.).

### *Demokrazia*

Agintea masen baitan dagoelako erregimen bat ez da demokratiko kontsideratu behar, zeren agintea duenak beti, toki eta era guztietan masarik gehienak bere inguruan biltzen baititu. Demokrazia existitzen bada libreak edo pobreak agintea dutelako da. (Aristoteles, 1981, 172-173. or.). Aristotelesekin bost demokrazia mota desberdin aipatzen dizkigu. Lehena, berdintasunean oinarritzen dena: legez berdinean izanez pobreak eta aberatsak nabar-

mentzen ez direnean, batzuek eta besteek autoritaterako aukera daukatenean, alegia. Bigarrena, errenten arabera magistraturak irekitzen dituen da: horretarako errenta txikiak ezarriko dira baldintza gisa. Hirugarrena, desakreditatu gabeko hiritar guztiak partaide izango dituen da: legeak gobernatuko du. Laugarrena, hiritar izatea beste baldintzarik ez duena, baina legeak agintzen duena. Bosgarrena, autoritatea masak dueneko eta ez legeak. Azken hau legearen lekua dekretuek hartzen dutenean gertatzen da eta demagogoen erruz sortzen den egoera izan ohi da. (Aristoteles, 1981, 176-178. or.).

### III. HERRIXKA, HIRIA, ZIUTATEA ETA POLISA

#### Sarrera

Ohar historiko-kultural minimo bat beharrezko dela deritzogu europar krisi handiaren egoera hautsian euskaldunek V. mendetik VIII mendera doazen mendeetan erakutsitako jarrera burujabetsua nabarmentzeko. Izan gaitezen mesfidati, hala ere, aro hau aztertzen duten pentsalariak sortu izan duten oinarritzko hiztegiarekiko. Barra-barra idatzi izan baita erromatarrek lehen «munizipioak» sortuz gero gune «urbanoak» eraiki zituztela euskal lurraldean. Lurralde osoan ez bazen ere, bai gutxienetik lautadetako gune okupatuetan. Oro har, euskaldunen Herriek, lurralde osoari dago-kionean, desberdintasun nabarmenak jasan zituzten erromanizazio-prozesua pairatzeko orduan. Hasierak jada K.a. II. mendekoak dira, zeinetan «munizipioak» eraiki baitziren eta iraupena K. o. III. mendera arte luzatu baitzen. Galienok Inperioaren giderrak galdu zituenetik euskal lurraldeko «munizipioak» ere krisian sartu zirela agertzen digu haien esparruetan gertatzen diren murrizketak eta forma artistiko klasikoak direla-eta. Hau da, erromatarrek «ager» terminoaz izendatzen zituzten

euskal lautadetan bizi ziren euskaldunen kasua eta euskal lurraldearen toki estrategikoetara hedatuko zena ere, oro har, domeinu okupatzaile sendo bezain ezinbestekoa ezarri baitzieten euskaldunei. Bi eratako domeinua, bata politiko-militarra bertan agindu zorrotzak jarraitzea beste aukerarik ez zutelarik, eta egoera hori gozatzeko edo lasaitzeko, bestea kultur-ideologikoagoa, hots, kristautasuna erabiliz nagusiki. V. mendean jada Calahorran apezpikuen agintea ongi errotuta ageri da. Hortik berehala halaber Iruñean bezala Caskanten apezpikuak aurkitzen ditugu. (Julio C. Baroja, 1985, 87-105. or.).

Hala ere, ez dezagun pentsa aipatu lurraldeetan bakarrik gertatu zenik erromatar okupazioaren fenomenoak; gaur egun badakigu jakin adibidez Iruña-Veleian (Iruña Okan) ere antzinagotik zeterren okupazio-esperientzia berri egin zela erromatarrekin. Brontze-aro ertainean eta amaieran gertatu zen lehenik eta K.a. I. milurtekoan zehar ere iraun zuen. Carietes eta Vennenses komunitate antolatuen hatsaldien bidez (K.a. 24-22. urteetan) gisa horretako lehen harremanak ezagutzen ditugu. K.o. II. mendean geroztik «Domus Impluvium» baten berri ere badugu. Eta garai horretan erreforma «urbanoak» egin zirela ezagutzen dugu. Plinioren aipamenak ere aldi berekoak dira. Ptolomeok berriz Caristioen Mediterraneoko «oppida» bezala aipatzen du Veleia. Eta jakina da ere, III. mendeko krisiaren ondorioz Veleiaren hedadura «urbanoak» gutxitu egin zela.

Esana dugu okupazioaren lurraldeak lautadetan zeudela baina baita toki estrategikoetan ere.

Hauetarik dugu, noski, Oiasso, erromatarren Irungo kaia. Estrabonek Ozeano Atlantikoaren ertzean kokatzen du, hots, Akitania eta Iberia elkartzen diren muga. Pliniok aurrekoak idatzirikoa baieztatzen digu. Ptolomeok ere bidenabar Oiassoren aipamena egiten du. Ongi baino ere hobeto ulerzen dugu okupazio horren funtzioa erromatar Inperioaren mugimenduetarako. (L. Michelena, 1956, 69-94. or.). Antzeko zerbait gertatzen da Baionako Lapurdum ospetsuarekin. IV. mendeaz geroztik «castrum» bat eraikirik dago Aturri eta Errobi elkartzen diren gunean eta hori zaintzeko gaur egun katedrala dagoen tokian 600 soldadu gotorturik aurkitzen dira V. mendean.

Bigarren euskal lurralde bat ere ageri da erromatarren idatzietan «saltus» deitzen dutena, alegia. Erraza da ulertzeko. Euskaldun menditarrak ziren, noski. Eta garaiko ustiaketa ekonomikoen interesen artean ez zuen okupatzaileen artean arreta gehiegi hartzen lurralde mota horrek. Meatze preziatuak zeuzkan lurraldea baldin bazen, ordea, bestelako zerbaitek ere pizten zuen interesa. Gartzobia, urre-lurtegia, burdin-meatzea eta abar zirenean, ospetsu bilakatzen zirenez, okupatzaileek ez zuten okasiorik galtzen lurralde horietan ere gotorlekuak eraikitzeko. «Saltus» lurraldeetako bizilagunek basati eta anker fama zeukaten. Tokiek ematen zieten abantailagatik okupatzaileak erasotzeko orduan erosoago sentitzen ziren. Baina gai horri ez bada beste dokumenturik ere. «Saltus»eko euskaldunek «pentsamendu primitiboa» gordetzen jarraituko zuketela da nahiz horren ondorio politikoak eztabaidagarriak gertatu. (Juan José Larrea, 1998,

119-129. or.). Ez dago kontraesanik gure ikuspegiarekin.

Erromatar domeinua ahultzen joan zen neurrian, V. mendeaz geroztik, Euskal Herrietan ere antzinateko forma sozialak eta antolamenduak birsortuz gero indartzen joan ziren eta VIII., IX. eta X. mendeetan zehar leinu nozioaren ardatzean buzuzagi eta erregulo dominatzaileen existentzia gauzatu zen. Agertuko diren mugimendu sozialen artean muladiena, nafar dinastia hasiko dutenana eta jatorriz Galiako herrietatik datozen bagaudae edo ibildaunen klase apal zapalduarena dauzkagu. Eta horietariko bakoitzak desagertu aintzin aztarna utziko duen historia propia egingo du.

Aldi berean V. mendeaz geroztik eta nafar erreinua suspertu arte, eta geroago ere batzuetan bai, okupazio-saio berriak dauzkagu euskal lurraldeetan. Euskaldunak iparralderantz Novempopulaniaren bila mugituko dira Frankoak (tribu germanikoez osatuak, izan Sueboak, Bandalooak edo Alanoak) eta Bisigodoak jazarritik eta hegoaldean piskaka nagusituko den Estatu Bisigodoarekin borroka bizian jardungo dira. Ebro ibaia zuten mugatzat. (Julio Cara Baroja, 1977, 154-155. or.). Euskaldunak Aturri eta Garonaren artean aise bizi dira garai horietan. Nagusi ote ziren eztabaidan dago. M. Roucheren ustez bai. Besteak beste, Akitaniako apezpikuen zerrendak, VII. mendeaz geroztik eten izana euskaldunen domeinu horri egozten dio. (M. Rouche, 1979, 271-277. or.). Eta hirugarren protagonista okupatzaileak Arabeak ditugu. VIII. mendearen hasieraz geroztik Gibraltarretik lehorratuz Bisigodoak garaitzen dituzte Guadaleten



(711n), eta hurrengo urtean Goi-Aragoiraino hel-tzen dira. Tuteran eta inguruak data horrotaz geroztik badakite haien berri. Euskaldun menditarrek jazarriz aurre egitera helduko dira hala ere. Eta lu-zaro borrokan nahiz bakealdian, Nafarroako Erre-geen aroari hasiera emango zaio. Aipagarria da ha-laber bitarte horretan Karlomagnori euskaldunek Orreagan (778an ) emandako zafraldia.

Finean, gure azterketa honen ardatzean dagoen euskal erakundetzea betirako markatuko duen euskal erresumaren sorrera daukagu IX. mendean. Ez gara sartuko euskal boteretze berriaren soziologia sakontzera oraingoz. Leinu arazoak, klase-borrokak eta abar zehaztera, alegia. Hasierak, 824an dauzka, euskal herrietako euskaldun desberdinak elkatuz, Baskoniako dukerriaren independentzia sendotuz eta Banu Kasi familiarekin hitzarmena sinatuz. Eneko Aritza buruzagiak Iruñea euskaldunen hi-riburu izendatu zuen eta bertatik gidatu zuen Bas-koniaren independentziarako erresistentzia.

Argi dago bada, historiaurreko garaietatik at, gizon-emakumeak lehen gizarteak sortzen joan zi-renetik, erakunde eta antolamenduak eraiki aha-la, horien neurri, egitura, forma, autosufizientzia mailaz maila kategorizatzen joan zirela. Geureen kasuan aldaketa horiek oso poliki egindakoak dira eta gainera garai haietariko anitzetan autoidaz-ten ez genuenez urrats horiek eta euren emaitzak izendapen propiorik gabe gelditu ziren sarritan. Horregatik, gaur egun, anitzetan, bereziki, aro za-harreko gizarteez ari garelarik, geurea barne, haien terminologia prestatuarekin geure orduko antola-menduak baliokidetzen jarduteko joera instintiboā

bilakatu da. Baina jokabide hori ezin onartuzkoa da ikuspegi zientifiko batetik so kategorizatu nahi baditugu behintzat. Baina Euskal Herriaren aro zahar desberdinetako antolamenduak deskribatzerakoan, jardun zientifiko batetik so ari direnen artean ere, Greziaren eredia eta ondoren Erromarena geurearentzat ere ontzat eman ez erabiltzea, gainditu ezinezko kriterio bihurtzen ikusi dugu maiz, eta horren ondorioz, hango gizartetan sortutako termino-kontzeptu propioak geure eginarazi dizkigute. Baina hain klarki al daude protohistoriagileen artean ere izizpide horien adierazpenak?

Estrabonek «polis» hitza darabilenean, hasteko, gizarte batean antolatutako pertsonen kopuru garrantzitsua adierazi nahi du. Hala ere, geroagoko autoreen artean gauzak zehazten joango dira. Zeren Poliboniok Tiberio Sempronio Gracori buruz ari dela, azken honek hirurehun «hiri» zeltiberiko suntsitu zituela dioenean, aipamen horri buruz Posidoniok erakutsitako trufa bereganatzen du edo oraino Estrabon daukagu, esanez, «hiri» horiek gotorleku soilak besterik ez zirela. Horrela bada argi dago «polis» eta «hiri» ez direla izaera bereko terminoak. Jarraian, gainera, esango baitu iberoak ez zeuatela goi-zibilizaziorik zeren gehienetan «herrixketan» bizi baitziren. (Julio Caro Baroja, 1984, 64. or.).

Gizarte-antolamenduak, bada, goi-zibilizaziorantz egiteko garapen-prozesu bezala ordenatuta lau mailatan banandu beharko dira: herrixka dator lehenik eta bizitza landatarraren adierazle da, hiri gotorleku denez hartuta dator jarraian, ziutatea edo bizitza hiritarra, urbanoa, egiten duen jende-

tza edo latinoen civilitas, urbanitas praktikatzen dutenena bezala dator hirugarrenik, eta polisa, subiranotasuna eta autosufizientzia kultur-ekonomiko-politikoduna dator azkenik. Lau gizarte-antolamenduaren ardatz hiruek beste hainbat aldagai izan dute historian zehar lekuan lekukoak kontuan hartzen badira. (Julio Caro Baroja, 1984, 63-170. or.).

## **Herrixka**

Gizon-emakume talde batek osatutako unitate-egituratua da eta Neolitikoaz geroztik Euskal Herrian gizarte arloan eta ekonomikoki antolatzeko molde garrantzitsua, pretentsio gutxiko antolamendua, izan da. Inguruko eta alboko bizikideekin, parekoekin, proiektu handiagoetarako norabideetan batere ez edo oso gutxi sartuko da. Balentria handirik ez duenez egunerokoaren erruletan biziko da apaltasun eta txirotasun osoz.

Erdi Arora arte Euskal Herria, batez beste, herri pobrea izan zen. Historiaurreko garaietatik, auzoko herriek zituzten labore eta azienda oparotasunik gabea izan da. Hala ere, «saltus Vasconum» munduan gehiago ematen da bizitza gogor hori «ager Vasconum» goi-ordokiar eta mediterranearean baino. Mendi-lurrek, iparradeko oihanek, euskal gizon-emakumeak luzez baldintzatu dituzte beren bizibideetan eta antolamenduetan. Basoan edo basa-giroan bizi beharrak baserritarra sortu zuen. Salbuespen goiztiarrak eta bizitza urbanorako urratsak agertuko dira Ebrotik Iruñerako lurralde lauetan. Baita Arabako lautada-lurretan ere,

eta halaber erromatarren Behe Inperioaren garaiaz geroztik, Lapurdum guneko urbano garrantzitsu bilakatu zenean ere. (Julio Caro Baroja, 1983, 125-162. or.) (Ikus ere, Julio Caro Baroja, 1985, 21-31 or.)

## Hiria

Hiria euskal terminoa guk erabiliko dugun zentzuan, gotorleku eraikia, alegia, protohistoriatik datorkigu. Interes desberdinen aginduz lurralde jakin bat defendatzeko gotorrez babesturiko leku edo barrutiaz ari gara. Jacques Casaubonek «Munibe» aldizkarian (2002an) argitaraturiko «Le toponyme **iri** et sa relation avec d'anciens lieux fortifiés» artikulua ezin argiago zaigu gai hau ilustratzeko orduan. Guk geuk eskaturik artikulua horren egokitzeko bat idatzia du 2013an Uztaro aldizkariarentzat eta amaierako hitzetan honela dio: «Gotorlekua, gizarte eraketan, herri sorkuntzaren oinarria izan da. Brontze Arotik hasita, Erromatarren garairaino gutienez, gotorleku askok izan zuten defentsa eta babesleku-funtzioa, egoitza finko baino areago. Garai haietan herririk ez zitekeen sortu gotorlekua-ren edo gazteluaren itzalean baizik. Iriberriz izeneko askoren desagertzea, gazteluen abandonatzeak edo sustitzeak ekarri zuen». Bere artikulua azken hitzetan apaltasun osoz ondoko hau aitortzen du: «Lan xume honen egilea autodidakta izanez, azterketa eta oharpenak historialari, hizkuntzalari eta etnografoen esku uzten ditu».

Bere tesia autoritate-indarrez babesteko, zeintzu jakintsu eta nola aipatzen dituen ikustera iga-

rotzen bagara, gaia sakontzeko orduan lagungarri zaizkiola pentsaturik, ondoko hauek aukeratu dituela egiaztatuko dugu. «1875ean, argitaratu artikuluan A. Luchaire hizkuntzalari ospetsuak honela zehazten ditu *iri* hitzaren adierazpen bereko izenak *iri, hiri, uri, ori, ur, or, ili, eli, uli, ulli, il, li*». Adierazgarri dira ere euskarara egokitzeko okasioarekin J. Casaubonek egindako iruzkinak: «Atrebitzen naiz zerrenda hunen gehitzea, *ulu, ullu*, hitzekin. Artikulu berri hunen bidez, aurkezten ditugu gure ibilbide eta irakurketetan zehar 2002az geroztik egin aurkikuntzak. Kontuan hartuz, hala ere, Akitanian eta Iberian zehar, aurkitzen zirela *iri* kutsuko izenak, Burni Aro edo Erromano garaikoak. Adibidez, Elimberis (Auch), Iliberis (Elne), Gracuris (Alfaro), Iria Flavia (Galicia) Iliberi edo Iliberis (Granadatik gertu, oraingo Alarifen) etabar. Plinio, Strabon, Ptolomeo greko-latindarren eufonian ohikoa omen zen *r* baten ebakuntza (*beri, berriren* ordez) eta *s* baten emendapena (*beris*) Luchairen iritiz».

Artikuluaren azken ataletan ere L. Mitxelena, (1997, 106. or.), hizkuntzalariaren autoritatezko iritzia aipatzen zaigu: «L. Mitxelenaren iritiz *ili, iri* baino lehenagokoa litzateke; *eli* erroa *ili* bezain zaharra izango da; adibidez, gaurko Auch hiria, Elenberrun edo Elinberri izenez ezagutua zen El(h) ina (Munibe, 2002, 59. or.) Aitzin-historia garaiko gotorlekua ere ikus dezakegu oraindik Armendaritzen-Nafarroa Beherea».

Bigarren autoritate-argudio bat ere aurkezten digu adierazpenean aitzina egiteko: «Zerrenda horretan sartuko ditugu Brontze eta Burdin Arotik

hamargarren menderaino datozen «*iri*» izeneko gotorlekuak. Francis Gaudeul arkeologoak aurkitu zituen ehun bat gotorleku brontze edo burdin aroko egitura irudikoak. *Intxur* eta beste bizpahiru gotorlekuz aparte, ez daitake segurtatu egitura haien noiztikakoa. Bosgarren-seigarren mendeetatik bederatzigarren-hamargarren mendeetaraino, *Baskoien garaia*, ilunpean edo bederen lainopean daukagu oraindik. Dakigun bakarra da, «castrum» ugari zeuzkatela. Ohargarria da, *iri* eta bere hitz senideak aurkitzen ditugula toponimian aitzin-arotik honat, bai Iparraldean, bai Hegoaldean ere gotorlekuetan, populu beraren seinale».

Hirugarren autoritate-argudioa historilariekin osatzen du: «J. Altadill, J. J. Uranga eta F. Idoate historilariak bereziki, Nafarroako *IRIBERRI* izeneko bizigune desagertuak ezagutarazi dizkigute, edo despopulatuak, gizadiaren oroimenetik itzaliak, gehientsuak gotorleku baten babespean erai kiak hamaikagarren eta hamabigarren mendeetan, euskaldunen erregeen erreinu-garaian, nortasun handiko gazteluzain edo alkaide leialen manupean izanak. *IRIBERRI* haiek gune estrategikoetan finkatuak zeuden nekazazitarako gai ziren larreatatik gertu. Gutxienez ere, bederatzi *IRIBERRI* zehazten dizkigute. Adibidez, *IRIBERRI* de *ATEZ*, non gelditzen baitira oraino, Belatz de Mendranotarren gotorlekuaren aztarnak, bai eta ere Iriberride Orba, Iriberride Leoz, non, gaztelu zaharra zutik dagoen oraino».

Historilarien zerrenda horri gehitu behar zaizkio halaber, E. Goyhenecheren izena, lan berean bitan bederen aipatua dena. Bata, *Irunberri* gaz-

teluko jaunak Nafarroako erregearen gudari leial agertu direla beti seinatzeko dakar. «Haien lehen aipamena 1189an aurkitzen dugu. Gaztelua, muino baten gainean dago eta gotorleku-egitura dauka». (E. Goyheneche, 1979). Bestea, *Irumendi* gotorlekuaren ingurukoa da: «*Irumendi* est peut-être l'ancienne *Urmendi*, forteresse construite par les Bayonnais Dominique de France, en 1316, sans doute pour se protéger de l'hostilité des Labourdins à l'égard des Bayonnais». (E. Goyheneche, 1979, 146. or.).

Historialari kategoria hau zertxobait hedatuz F. Michel euskalari frantsesaren aipamen bat dakargu espainieraz: «Nos da noticia de la construcción de un aljibe en el Castillo de Irurita, con citación de los alcaides del Castillo realengo de Irurita: Año 1265, Don Juan Lopiz de Uriz con antelación a los citados, mandó en este Castillo, en 1202 y 1206, Don Juan Garcia de Bidaurre».

Lizarraz ari dela Pedro Maria Gutierrez Erasoren izena ere aipatzen da. «Elizar izenez ere ezagutua zela jatorrizko herrixka dio Pedro Maria Gutierrez Eraso jakitunak. «Elizar en basque signifie vieille église». Baina artikulugileak honela ihardesten dio: «Elizar edo Elizahar ez ote da Eli zar? Ez ote zen egokiago, garai hartan, Puy delako, lehen eliza, Elizaberri deitutzea? Jakan, ere ezagutzen den gotorleku zaharrenaren aztarnak Elizar izenez ezagunak daude». Era berean gehitu behar zaio zerrendari P. Iztuetaren aipamena, *Uli*, Gipuzkoa eta Nafarroa mugatzen dituen mendiaz ari delarik. Gaztelako errege Alfontso VIII.ak 1200ean Antso Azkarrari Gipuzkoa lapurtu zionetik, Berastegi eta

Gaztelu bi estatutako muga-herri bilakatu baitziren. Horrela dakar aipamena: «P. Iztuetak azaltzen digu, Arturo Campion, Pablo Gorosabel eta Ignacio Maria Carriónen ustez, dorretxe batez eta inguruko defentsako egiturekin zaindua zaitekeen *Uli* (P. Iztueta, 2010, 56-58. or.)». Eta artikulugileak iruzkin batekin ixten du aipamena: «Dena den Irumugarrieta eta bi Ulizar gailurren artean ez da aztarnarik arkeologoek meneko».

Bitartean, Euskal Herri osoan tesi hau berresten duten indusketen emaitza ugariak izendatuz doa, hondakinik gabeko zerrendak eta zehaztasunak ematen dituelarik.

## Ziutatea

Espazio urbanoan jendetza pilatzean sortzen diren harremanen eta bizimoduen mundua adierazten du. Ziutateak lautadetan eraikitzen hasita, izaera berri bateko bizitza agertuko da. Homero Ilionez mintzatzen denean horren lekuko dugu. Urbanizazioarekin gizabanakoen prozesu bat abiatzen dela esan dezakegu. Hala ere, ziutateak eta ziutatean daude. Denak ez dira berdinak beren eraikuntza-jatorrian. Zenbait ziutate pertsonaia baten eraginez sortua da. Beste batzuetan kolonizatzaile-talde bat du iturburu ziutateak. Areago gerta daiteke aurrez existitzen den ziutate baten gainean berri bat eraikitzea ere. Ziutateen kate bat egin nahi baitzen. Hori guztia dela eta, ziutateen izenak artifizialak gerta daitezke.

Ez dago ziutate-eredu bakar bat. Izenek jada hori salatzen dute: civitas, urbs, ville, villa, town,



city, etab. Antzinetetik pentsalariek uste izan dute motibazio jakinak egon izan direla ziutateak eraikitzerakoan:gogaidetasun eta lanaren idealak, gauza hobek lortzeko borondateak gidatu izan dituela sortzaileak. Gainera kontuan har dezagun ziutateak indarrak eta aberastasunak emendatzea eta eginkizunen zatiketa dakartzala. Baita estamentu eta klaseen araberrako ordenamendu berria ere.

Joera geometrikodun planifikazio urbanoak, Neolitikoaz geroztik abian egon dira han-hemen. Baina buru planifikatzaileek ideia geometrikoekin paraleloan, eta aldi berean, plangintza sozialak garatuz utopiak sortu zituzten. Erdi Aro europarrean, arrazionalitate kristau batek, Arkitektura bezala hats urbanistikoz betetzen ditu. Hats horrek dio Fedea eta Arrazoia elkarrekin doazela. Hierarkian hala ere Fedea da nagusi eta Arrazoiak hura zerbitzatu beharko du. Berdin gertatuko da autoritatearen orbitan ere izaera gizatiarra Aita Sainduak ordezkaturako duenean, «ordenamendu jainkotiarra» obedituko da. Horrela nonahi planifikaturako edozein ziutatetan elizei dedikatutako parte funtsezkoa izango da.

XIX. eta XX. mendeetan, aldiz, izaki arrazionala gehienetan antierlijioso bilakatuko da, eta berak eragindako ordena sozialak Elizaren arrazoi anitzekin talka egingo du. Horrela denean Arrazoiak Estatuaren arautzen du eta ziutatea estatuaren lege arrazionalen menpeko antolamendu bihurtzen da. Interes intelektualek, beren aldetik, ekonomiak bezala soziologiak ere modu jakin batean bizitzeko borondatearen gainean espekulatzen dute. Beste interes bat ere beti ageri da ziutatean, hots, gotor-

leku eta kontrolbide bilakatzeko borondatearena. Azken aldagai hori izan liteke halaber euskaraz hiri eta ziutatea berdindu izanaren esplikazioa. Nik neuk horrela eginga dut. Batetik, «Ongizatedun Europa Batuan: hiritartasuna eta subiranotasuna» libururako idatzi nuen atalean. Ikus Jokin Apalategi eta Xabier Palacios (editoreak), (1993, 131-156. or.). Eta bestetik, «Bat soziolinguistika» aldizkarian, 2003an, argitaratu nuen «Baiona-Donostia Eurohiria eta euskara» nire artikuluan. Horretan, besteak beste, Greziako lehen hirien kultura, Erromatar hiri-inperioaren kultura, Behe Erdi Aroko hiri-kultura (ikus S. Agustinen «De civitate Dei»), Goi-Erdi Aroko hiri-kultura (ikus Akinoko San Tomasen «De regimine principum»), Modernitateko Hiri-kultura (Frantses Iraultzaren hiri-hiritar kultura, alegia), eta Aro Garaikideko hiri-ikuspegi multikulturala egiaztatzen baintuen. Egia da halaber, gehienetan, aipatu interes desberdin horiek konbinatuz jokatzeko dela egunerokoan. (Julio Caro Baroja, 1984, 163-165. or.).

## **Polisa**

Edozeren gainera lehen europar Estatuaren sorrera adierazten du termino-kontzeptu honek. Polisa gizon-emakumeen behar guztientzat erantzuna dakar. Zeren legeak eta ahaideria herrixketan jada aurkitzen baziren ere, «politika» eta «politesse edo polizia» hemen eta orain bakarrik existitzen dira. Etxea eta familia zatiki batzuk besterik ez dira polisa den osoaren alboan. Polisa antolamendu sozial eratuaren zutabe eta iturri dugu beraz. Erabaki

politiko-sozialak hartzeko beharraren kontzientziaz gain polisa gauzatzen den bakoitzean jendearen baitan horretarako dagoen ahalmena erakusten zaigu. Ziutateen sorrerak bultzatuz eta bermatuz aurrez herrixketan ezarriak zeuden askaziak eta banderizoak borrokatzea eta suntsitzea bilatuko du.

Polisak ere lurralde jakin bat badagoela adieraziz mugadun egiten du. Herrixka desberdin batzuk bateratzetik Ziutate-estatuak edo polisak erakitzen joan ziren. Denboraren gurpilean polisen bateraketak ere gertatuko dira. Elkarturikoak bi, hiru edo lau direnean izen propioak jasoko dituzte bateraketa horiek. Bipolis, tripolis edo tetrapolis esaterako. Baina beste garai batzuetan alderantzizko joera ere ezagutuko da, hots, ekarte handiago batetik bereizteko edo bakartzeko joera. (Julio Caro Baroja, 1981, 80-85. or.).

Polisean, eta ez beste inon, ziutatetasun kontzeptua (euskaraz hizkuntzaren laburdura- edo garbikeria-joerak bultzatuta hiritartasun bezala ezagutzen dugu) sortuko da. Zer dago jokoan? Edozein ziutatek ez du eman izan eta gaur egun ere ez du ematen ziutatetasunik. Estatuarena eta harena bakarrik den emaria da hori. Edonongo Estatutan bizi diren gizabanako guztiek ez dute ziutatetar ezagutzarik. Estatuak bakarrik eman dezake nazionalitatea eta hori daukatenak dira ziutatetasunaren eskubide osoetara sarbidea dutenak. Eskubide guztiak ez baitira unibertsalak. Naziokoak eta nazioartekoak diren eskubideak nonahi dauzkagu lekuko. Hurrengo atalean giza eskubideetaz mintzatzean landuko dugu zabalago gai hau.

Arras jakingarria da J. J. Rousseauk gai hau aipatzean bere «Gizarte-hitzarmenean» idatzi zuen iruzkina, eta ondotik erantsi zion oharra. Honela dio «borondate orokorraren» kontzeptua interpretatzen duelarik: «Elkartze-ekintza honek hitzarmengile bakoitzaren pertsona partikularra ente normal eta kolektibo batetan garatzen du, batzar bateko bozken kopuruaren neurri bereko kidez osaturikoa izatera igarotzen dena, zeinak ekintza berbera, hortatik bere batasuna, bere ni komuna, bere bizitza eta borondatea jasotzen dituen. Gisa horretan eraikitzen den pertsona publikoak, beste guztien arteko batasunagatik, alegia, beste garai batez Ziutate izena hartzen zuen eta gaur egun Errepublika edo gorputz politikoarena, zeina egile denean Estatu deitzen baita, eta bere kideei dagokienean ahalmena dakarkie. Elkarkideei dagokienean, hauek kolektiboki Herriaren izena hartzen dute eta partikularzki ziutatetiarrena, autoritate subiranoan partaide direnez, eta mendekoarena Estatuaren legeei men egin behar dietenez. Baina termino horiek, anitzetan, nahastu egiten dira, bata besteaz harturik; erabiltzen direnean erabateko zehaztasunarekin bereizten jakitea aski da». (J. J. Rousseau, 1979, 39-41. or.).

Hain zuzen erer, azken iruzkin horri jarraiki, J. J. Rouseauk orri beraren oinean, Ziutate hitzaz, ondoko ohar hau idatzi zuen: «Hitz honen benetakoa adierazpena ia-ia galdu egin da gure artean: gizon-emakume modernoek gehiengoak nahastu egiten ditu jendetza ziutatearekin eta biztanlea ziutatetiarrekin. Ezjakitun dira etxeek hedapena eta jendetza dakartela, eta ziutatetiarrek ziutatea iru-

dikatzen edo suposatzen dutela. Hutsegite berbera garesti atera zitzaien noizbait kartagoarrei. Printzeren baten mendekoei ziutatetar titulurik eman zitzaienik behin ere ez dut irakurri, ez eta mazedoniarrei ere antzinatean, ez eta gure egunetan ingelesei ere, nahiz eta beste guztiak baino hurbilago egon askatasunetik. Frantsesek bakarrik hartzen dute familiarki termino hau zeren ez baitaukate ideiarik ere ziutatetiar hitzak adierazten duenaz, euren hiztegietan ikus daitekeenez, horrela erabiltzean *lesa maiestate* deitu krimenean jausten baitira adierazpena lapurtzeagatik: izen horiek eurentzat bertute bat adierazten baitu eta ez eskubide bat. Bodinek gure ziutatetarrez edo biztanleez hitz egin zuenean hutsegite larria egin zuen, batzuek bes-teekin nahastuz. Aldiz M. d'Alembertek, Ginebra deitu bere artikuluan, lau motatako gizon-emakumeak (bost, atzerritarrak kontuan hartuz) daudela gure jendetzan eta horietarik bik baizik ez dutela errepublika osatzen dioenean, ongi bereizten du eta ez da tronpatzen. Nik neuk dakidalarik, autore frantses bakar batek ere ez du ulertu ziutatetar hitzaren benetako esanahirik». (J. J. Rousseau, 1979, 40. or.).

## **Euskara kultur hizkuntza bilakarazi beharra**

Politikan hainbat garrantzi duen gizarte-antolamenduaz bereizketak premiazkoak izan arren, hiri terminoa eta horren aldakiak globalitate-kultura berriaren pil-pilean gizarte-proiektu aseptikoak sinbolizatzeke erabiltzen ari da hainbat idazle. Gainera, euskal kulturaren prestatuak direnak

ageri zaizkigu horien artean. Ahulezia intelektua-  
laren seinale da. Gehiegikeriaz edo ezjakintasunez  
jokatzea baiteritzogu horrela jardutea. Komeni da,  
bada, edo are gehiago beharrezkoa da ñabarduraz  
beteriko ildo berri zehaztu bat lantzea antzu diren  
polemika edo proposamenetan behin eta berriz sar  
ez gaitezen. Pragmatismora igaroz esaterako:

- a) Baiona-Donostia hiriak birazkatu diren  
orduan sortu den Euskal Eurohiriaren gi-  
belean, zer «hiri» mota sor dezakegun,  
baldin eta zerbait berririk sortzekorik gel-  
ditzen bada, galdera piztu da gure artean.  
Euskal Herrian «hiri-sorkuntzen» kultura-  
historia aspaldikoa bezain errepikakorra  
dela ahantziko bagenu bezala. «Hiri» hitza,  
protohistoriatik datorkigula irmo baino  
irmoago erakutsi berri digunean Jacques  
Cazaubonek 2002an. «Hiri» hitza, euskal  
gizarte-antolamenduaren zutabetik at uzten  
jakin beharko genuke. Bere euskal sorreran,  
hiri terminoa, **ez-urbanoa** ageri baitzaigu,  
jatorrian militarra delako esango nuke.  
Hori horrela izanik, hiri termino polisemiko  
bat erabiliz Euskal Eurohiriaren utopia  
aldarrikatzea ez dirudi portaera intelektual  
zintzoa.
- b) Baina arazo hau ez da gure artean soil-  
soilik ematen. Hor daude lekuko pentsalari  
galantek hiri-kultura garaikideaz edukitako  
eztabaida aberatsak bezain «hutsalak». Aipa  
ditzagun, bidenabar, eztabaida horietan  
nabarmendutako ordezkari eta korronte  
ideologikoen izenak eta ildo nagusiak.

- 1) Rimbaud, Lautréamont, eta Marcel Duchamps hirukotearen hiri-kultura.
- 2) K. Marx, Hegel eta Feurbach hirukotearen hiri-kultura dialektikoa.
- 3) Guy Debord eta Internationale Situationniste taldea osatu zutenen hiri-kultura, hots hiru hegiz osaturik dagoena: –gizarte kontsumistaren kritika abiatzeko; bizitza «libre» izan zedin «hiriaren» ezinbestekotasuna defendatzetik pasatzen dena–; eta «noraezaren teoria» altxatzeraino helduko dena. Horrela, poliki-poliki, Rimbauden eta Marxen nahaste eta gurutzatze-lanari esker, «mundua aldatzeko bidea ez dugu liburuetan aurkituko» idaztera ailegatzen dira, eta alderrai bizitzearen beharra errebindikatuz amaitzen dute.
- 4) Areago, Henri Lefebvreren «Critique de la vie quotidienne» (1947) daukagu, zeinetan Raoul Vaneigem-en figura laudatuz gero, «bizitza aldatzea, hiria aldatzetik pasatzen dela eta alienatutako egunerokotik urbanismo ludikora igarotzean gauzatuko dela» defendatzen den.
- 5) Geroago Guy Debord eta Henri Lefebvre bidelagun egingo dira, baina bakoitzat bere berezitasuna adierazten jarraituko du: Lehenak dionean, «alderrai ibiltzeak osasuna dakarrela», bigarrenak zera gehituko du, «bai, baina, jarrera horrek teoria sendo baten laguntza nahitaezko du».

- 6) Debatearen amaierako konpasetan, «Socialisme et barbarie» aldizkaria abiadan jartzen da. Aldizkari eta talde berriaren liderrak Cornelius Castodiaris eta Claude Lefort izanik, situazionismoa antitotalitario biltzera bultzatuko dute langile kontseiluetan murgilduz. Hala ere, Parisko Komuna nahiago izango dute, boltxebikeen eta maoisten utopiak baino.

Gaurkotasuna gehien islatzen duen globalitate-ikuspegira itzuliaz, onar dezagun esanahi berriko kultura-kodeen aitzinean jartzen gaituela ikusmolde berri honek, eta bi ardatzen baitan funtzionatuko lukeela: lehena globalitate beraren ardatza litzateke; eta bigarrena, banakotasunaren hegemonia eragingo lukeena.

Hala ere, azpimarra dezagun egin izan den **globalitate-proposamena, globalitate mota berri bat** besterik ez dela. Izan ere, globalitate anitz ezagutzen baitugu mendebaldeko kulturaren historian. Hurbileneko zenbait aipatzera mugatuz: katolikotasuna, liberalismoa eta marxismoa nabarmenduko nituzke. Gainera, ez dezagun ahan-tzi une honetan bertan, aldi berean, munduko hemisferioaren gainerako herrietan beste hainbat globalitate-proiektu bizi-bizirik lehian daudela: Txinatarrena, Arabiar nazioena, etab.

Mesfidati naiz historiarik eta memoria historikorik ez duten Estatu Batuetatik datozkigun globalitate-proiektuez.

Izan ere, haiek ez bezala, guk euskaldunok, europarrok, historia jakinak baititugu gure giza-banakotasunaren osagarri, eta nahita ere ezin dugu



horietaz «tabula rasa» egin, «**gizabanakoaren hegemonia historikoa**» norabide-eredu bihurtzeko. Gizabanakoa indibiduala bezain soziala baita. Dimentsio bata zein bestea nahitaezko dituen, alegia.

Pentsamendu erreferentetzat kontziente edo inkonstzienteki datorkigun John Rawlson teoria baino askozaz ere gobalitate sakonago eta gizatarragoa atzematzen dut Muhammad Yunus-ek agertzen digun teorian, hots, sozial-business-en ereduan finkatzen duenean (Muhammad Yunus, 2007). Mesfidati naiz globalitate berriaren proposamenekin, zeren badirudi beste behin ere, modu berri batez bada ere, aspaldiko den zerbait erasotzen dela globalitate berriaren pentsamendutik, hots, hiri berri bat fundatzeko hondarreko identitate kolektiboak likidatu behar direla. Besteak beste, gogora dezagun Claude Lévi-Straussek «Arraza eta historia» idazterakoan erabilitako gai bera topatzen dugula.

Eta horren aurrean mesfidati egoteko nire arrazoimena honako hau da: «Gizartean elkarrekin bizitzen ari diren unitate eta errepresentazio kolektiboen arrazionaltasuna bateratzerakoan, gizabanako hegemonikoan oinarritutako jardun errepresentatzaileek ez daukatela gizarteko errepresentazioen pluraltasuna modu eranginkorrean deskribatuz eraikin instituzional bakarrean integratzeko gaitasunik». (Calhoun, 2006; Pettit, 2001; Taylor, 1997az geroztik, hau bera adierazten aritu izan dira).

Beste hitz batzuetan esanda: eginkizuna ezinezkoa dela edota suntsitzailea izan behar duela!

Beste behin ere, une historiko honetan, guztiek ere irauteko asmoz eraldatzen eta birmoldatzen jardungo dute, noski.

Nola birmoldatzen diren? Zer prozesuren arabera? Galdera horietarik abiatu behar da gakora ailegatzeko. Gutxienez ere planteatu dezagun arazoa itxuraz. Horrela jardutean bakarrik helduko baika-ra ezagutza sortzeko prozeduren antolaketa lekuan lekuko beharren arabera instituzionalizaturik ezagutza zientifikoaren antolaketa ideala egitera. ARGI DAGOENA, BADA, ZERA DA: indibidualismo metodologikoak ez duela ematen gizarteetan elkarrekintzan bizi diren errepresentazioen pluraltasuna hautemateko aukerarik. Horien adibide, guk geuk, Nekane Larrañagak, Maria Jose Azurmendik eta Jokin Apalategik, 2009an, Tarragonan egin zen Psikologia Sozialeko Kongresuan aurkeztu eta argitaratu genuen «Diversidad lingüística y cultural en la Comunidad Autónoma Vasca (CAV): Construcción psicosocial de la ciudadanía» lana daukagu.

Gure egunetan, Euskal Gizartean aurkitzen diren **ziutatetasunaren** dimentsio faktorial konplexuak izendatzen ditugu. Daukaten garrantziaren arabera iherarkizaturik ondoko hauek liratheke:

Lehenik:

- 1) Posizionamendu ideologiko kultural-etniko-politiko-zibiko espainola biltzen duena dator.

Bigarrenik:

- 2) Posizionamendu ideologioko politiko-etniko euskalduna biltzen duena dator.

Hirugarrenik:

- 3) Posizionamendu ideologiko kultural euskalduna biltzen duena dator.

Laugarrenik:

- 4) Posizionamendu ideologiko etniko-zibiko-kultural euskalduna biltzen duena dator.

Bosgarrenik:

- 5) Posizionamendu ideologiko zibiko purua biltzen duena dator.

Euskal gizartean badaukagu zer landurik solidaritate hitzarmenduen proiektu batera ailegatu nahi badugu. Nolanahi ere gure gogoetak egiteko gelditzen zaigun bidearen ezagutzan sendotzeko baliorik baleza, ez daiteke hutsala kontsideratu egin dugun eginahala.



## **IV. NAZIOGINTZA: ZUZENBIDEAREN ETA GIZA-ESKUBIDEEN LORATZEA**

«Gizonen (sic) eta ziutatetarren eskubideak» adierazten diren testuetara jotzen badugu, testu horien sorkuntzan denbora luzez falta dela ikusten den termino-kontzeptu nagusia, oinarrizkoa eta zedarria, «HERRIA»-rena da. Has gaitezen konstatatzen eta ilustratzen adibideekin. «Gizonen (sic) eta ziutatetarren eskubideen» historiografia egiten jarrita, Ingalaterran aurkitzen ditugu lehen urratsak.

### **Estamentuetako subjeten eskubideak eta askatasunak**

Hasteko 1215-1225 urteen artean landu eta idatziriko «Araudi Handia» deitu agiria topatzen dugu. Aro feudalaren funts guztiak dauzkan testua da. Bertan agertzen dena, oraino propioki «gizonen (sic) eskubideez» mintzo dela kontsideratzea bera urrunegi joatea bada ere, zeren soil-soilik erregimen zaharreko estamentuetako subjeten-tzat baitira aitortpenak, hala ere 1. artikuluan, «gure erreinuko gizon libre (sic) guztiei, guretzat eta gure oinordekoentzat, betirako, onartzen diegu,

xeheki izendatzen ditugun askatasun espezifiko guztiak, har eta kontserba ditzazten eurentzat eta euren oinordekoentzat geurearen eta geure jarraitzaileen edukitzaile izanez» (F. Rouvillois, 2009, 27 or.) idatzi izan zenean, **onartu behar dugu askatasun eta eskubideen hizkera sortu zela lehen aldikotz**. Ildo honi jarraiki esandakoan sakonduz gogora dezagun 29. artikuluan adierazten zaiguna ere: «Ezein gizon libre, ez da geldituko, preso hartuko, ezta ere bere portaera libretik, bere askatasunetatik edo usadio libreetatik desjabetuko, ezta ere legez kanpo jarriko, erbesteratuko, inolaz molestaturiko, eta guk ez dugu eskurik berarengan jarriko edo jartzeko agindurik emango, nolaz eta ez den bere berdinen epai legalen bertute pean eta herrialdeko legearen arabera hala erabakitzen. Inoiz inori ez diogu eskubidea edo justizia kenduko, ukatuko edo salduko». (Ibid., 29. or.). Hala ere, 32. artikulua kontuan hartzen badugu, zalantzarik ez dago, eskubide eta askatasun horien subjektuzak estamentuetako «gizaki libreak» bakarrik aitortzen direla: «Ezein gizon librek gaur geroztik ezin izango du besterendu bere luraren zatirik urrikerik bezala dirutan, baldin eta bere etxedun izatearen arrazoiak ematen dion zerbitzu feudala betetzeko lain egingo duen beharrezko zatia kontserbatzen ez badu». (Ibid., 32. or.). Bestela ezin zitekeenez, garbi gera dadila testu hau eskubideez eta askatasunez jarduten bada ere, «Herria» kontzeptuaren erabilpenik gabe ari dela. Feudalismoak ez baitu «herrikerik» ezagutzen guk gaur egun termino-kontzeptu horri ematen diogun zentzuan.

## **Burgesiaren askatasuna: Zuzenbidearen lege-proiektua**

«Bill of rights» bezala ezagutzen den Eskubi-deen Adierazpen-agiria aurkeztu zen Ingalaterran 1689ko otsailaren 13an. Guregandik urrun dagoen aro hartako testu-ingurua duenez, uste dut, merezi duela hainbat xehetasunekin aurkezteak gure gaia den «HERRIA» termino-kontzeptua zergatik eskastua izan den hobeki ulertzeko.

Gogora dezagun XVII. mendean, hasteko, Tudors dinastiako Henri VIII.aren eta Elizabeth I.aren aginte-garaian Estamentuen gizartea Londreseko Zitian (City hitz hori ez dut «Hiri» terminoaz itzuli nahi izan, zeren «cité, ville, eta village» frantsez hitzak ere gure euskal hiztegieta «Hiri» terminoarekin itzultzen baitira, nahiz eta denak ez diren unibokoak, ezta gutxiagorik ere) nagusi den burgesia merkatari eta itsasokoarekin hitzarmen-tzera helduko dela. Horrela bada, nola edo hala Estamentuen gizartea, ordu arte jaun eta jabe zen agintaritza politikoa gauzatzeko orduan, irekitzen hasten da, gizarte zibilaren abangoardia den burgesiari joko politikoan partaidetza eskainiz Egia da, hala ere, modu horretan gauzatzen den aliantzak ez duela «HERRIA» emanzipatzen edo askatzen, zeren gizarte zibileko zatiki handiena osatzen duen klase txiroak bazterturik egoten jarraituko baitu horren ondotik ere. Lortzen dena, bada, «eduki politikodun» elkartasun soil bat besterik ez baita, «herria» den sorkuntza ezikusiz. Horrela bada, aipatzen ari garen 1689ko Eskubide Adierazpenean ere ez dugu «herria» termino-kontzeptuaren

aipamenik aurkitzen. Hala ere, orduan, gizarte zibilaren abangoardia zena estamentuekin lotzeak, nazio ingelesaren eraketa proiektua aurreratuz berori sendotu egingo du. Horrela, 1689ko Eskubide Adierazpenarekin, “Herritik” igaro gabe bada ere, zuzen-zuzenean Estamentuetatik Naziora igarotzen hasten da Ingalaterra.

Azpimarratzekoa da halaber, hori gerta zedin, aurrez monarkia absolutuen proiektu politikoa indarrean egotea beharrezkoa izan zela, eta horren jokabidean, trantsizio bezala ulertu behar dela herria ezikusiz eta burgesia gainerako gizarte zibiletik bereiziz eta estamentuak eta burgesia euren zilbor hutsean murgilduz, egin zen nazio proiekturantz jotzeko lehen urrats-zilipurdia.

Baina estamentuen eta burgesiaren arteko hitzarmen saio horrek ez du luzaz iraungo, zeren Jacques I.a Stuarten erregetzan jada, anglikanismo puritanoenaren aldeko burges eta laborari progresistek goi-eliza sostengatzen zuten nobleei eraso egin baitzieten. Eta horrela, denbora laburrean, XVII. mendeko Ingalaterran, bi iraultza-saio gertatuko dira behin betiko egonkortasunera heldu aitzin.

Charles I.a erregetzara heltzearekin, burgesen eskuetan erortzen joan zen Parlamentua eta, horren jakitun, itotzen saiatu zen monarka absolutua, hamabi urtez Parlamentu hori bildu gabe edukiz. Baina gobernatzeko modu horri aurre eginez, burgesek fiskalitate-helegitea egiteari utzi zioten eta erregea itolarrian sentitu zenean, burgesak bereganatzeko edo, Parlamentua bildu zuen, 1640an, horrela, burges jarrera iraultzailearen indarra iku-



saraztea lortu zuen, hain erakunde garrantzitsuak bere gogoaren aurka jardun zuen arren.

Horren ondorioz, erregea Londresetik urrundu zen eta noble fidelen armadek gorde zuten, baina burgesek finantza aberatsen jabe izanik «Buru borobilak» deituriko euren armada propioa alxtatu zuten. Horrela, 1642tik 1649ra lehen iraultza gertatu zen Ingalaterran. 1648an Cromwellen soldaduek garaipena lortu zuten. Parlamentuko kide uzkurak «garbitu» ondoren, Charles I.a hil eta erregetza eta Londreseko ganbera ezabatuko zituen. Baina, horrela sortutako Parlamentu berria Cromwellek eragin zuen diktadura militararen azpian gelditu zen.

Puntu horretan, orduan, Thomas Hobbesek, Leviathan obra argitaratu zuen, 1651n. Hobbes ez da uharte bat ozeanoan. Aurretik eta atzetik kideak dituen pentsalari-sare bateko kidea da. Gogora dezagun XVII. mendean, Holandan, Hugo de Groot (Grotius) jada iraultza baten hasiera markatzen ari zela: horrez gero politikan bezala egoera derberdinetan, «ARRAZOIAK» «Jainkoa» ordezkaturiko du, nahikundeak (volition) probidentziarekin egingo duen bezala. Horrela boterea gizabanakoak nahita egindako antolaketa baten emaitza da eta bi operaziori loturik gertatzen da, zeren batak eta besteak zerikusia baitute: hitzarmen sozialari eta hitzarmen politikoari, alegia.

Izpiritu berri horretan bainaturik, kezka beretik bizi bazen ere, zeren gogora dezagun zer idatzi zuen bere buruaren egoeraz, «ni sortu nintzen egunean, Malmesburgeko artzainaren (bere aita) emazteak (bere ama) bikiak erditu zituen: ni neu

eta beldurra», Th. Hobbes Ingalaterrarentzat «hirugarren bidearen aukera» argudiatzera dator: gizakia hirukoitza da, esango digu, hots, hiru ardatzerro konbinatzean lortuko duen gizartean bakarrik atzeman baitezake oreka. Lehena, gizatarrok biotiko garenez, gorputzez eta gogoz naturalki bizitzeko eginak gaudela kontsideratzetik datorkio: «Naturak hain berdinak egin gaitu gure gorputzezko bezala gogozko fakultateetan, ezen nahiz tarteka gizaki bat beste bat baino gorputzez indartsuago edo gogoz azkarrago aurkitu, orokorrean, guztia kontuan hartzen bada, gizakien arteko diferentzia ez baita aski kontuan hartzekoa horietariko batek besteak ez bezalako onurak berarentzat lortu nahi izan ditzan». (Th. Hobbes, 1983, 221. or.). Bigarrena, ziutatetarrak garenez, gorputz politikoan itsatsitako bilakaera dugula kontsideratzetik datorkio: «Errepublika pertsona bat da, eta bere ekimenak, egile bezala, multzo handi batek bere gain hartzen ditu, elkarrekin egindako hitzarmenen bidez, behar den orduan indarra eta bitartekoak erabil ditzan egoki iruditzen zaion gisa bere bakerako eta defentsa komunerako». (Ibid., 267. or.). Hala ere Errepublikaren pertsonatasunaz ohar garbi bat idatzi zuen: «Pertsonaz ari gintezke hitzak eta ekimenak norbaitenak balira bezala agertuz, edo beste gizaki baten ordezkariarenak bezala aipatuz, edo oraino benetako edo fikziozko bezala zerbaiti egozten dizkiogunean. Norberarenak bezala kontsideratzen ditugunean pertsona naturalaz ari gara eta beste gizaki baten ordezkari-tza suposatzen duten hitz eta ekimenez ari garenean, aldiz, pertsona artifizialaz edo itxurak egiten dituenaz ari gara». (Ibid.,

254. or.) Gogorazi egin behar dugu halaber, beste gogoeta hau: «Askatasuna eta beharra bateragarriak dira. Urarekin gertatzen denez, ubidetik igarotzeko askatasuna eta beharra erakusten baititu, gizakiek bolondreski egindako ekimenekin ere gauza bera gertatzen da, zeintzuk euren borondatetik datozenez askatasunez jalgitzen dira, baina aldi berean behartuta datoz, zeren giza askatasunaren ekimen oro, eta nahikeria oro eta jaidura oro, kausaren batetik sortzen baita, eta kausa hori bera beste batetik etenik ez duen katean (lehen mailaren erroa Jainkoaren eskuetan egonik, kausa guztien hasiera denez) Baina gizonek euren bakea eta kontserbazioa gordetzeko errepublika deitzen duten gizaki artifizial bat egin dutenez, gisa berean ere lege zibilak deitu dituzten kate artifizialak sortu dituzte; elkarrekin gauzatutako hitzarmenen bidez eta botere subiranoa gizakiari edo batzarrari emanaz, batetik haren ezpain-ertzei josi dizkiete, eta bestetik, euren entzumen propioei». (Ibd., 301. or.). Hirugarrena, kristauak garenez, gorputz mistikora destinaturik helbideratzen goazela kontsideratzen datorkio: «Kristau Errepublika batean, Jainkoaren borondatea naturaz gaindiko agerpenen mende-kotasunean definitzen denean, nire diskurtsoaren funtsa ezin muga daiteke Jainkoaren mundu naturalera, aitzitik profetikotik ere hornitu beharko da. Hala ere, ezin uko egin diezaiekegu gure zentzuei, ez eta ere esperientziari eta gure arrazoi naturalari. Zeren gure Salbatzaile bedeinkatuaren bigarren etorrera arte, negoziatzeko eskuetan jarri dizkigun talentuak baitira, ondorioz, ez dira fede itsu batean gorde behar, aitzitik justizia, bakea eta benetako er-

lijioa lortzeko erabili behar dira». (Ibid., 441. or.). Th. Hobbesen ikuspegi honek **gizatarra** libre-morroi kategorizaziotik ateratzen du. Gizatarra orain **izate-baldintzaren** arabera neurturik potentzialki berdina kontsideratuko du. Eta berdintasun hori gizakia gizakiarentzat otso izatea gauza ez dadin, hitzarmenera bideratuko du. Berdintasunaren ondoriozko hitzarmena gauzatuz gero, denok denei errespetua zor diegu ongi komuna helburu dugularik. Horrela sortuko den egoera politikoa Errepublikak izendatuko du. Gure azterketako nozioa den herria edo eta haren proiektio politikoa den nazioa, horretan sartuta ematen ditu. Ez daukagu bada herria termino-kontzeptuari buruzko beste agerpenik eta garaiko ingeles diskurtso politikoan dagoen tradizioaren barnean irauten du.

Cromwellen historiak bien bitartean bidea egiten jarraitu zuen. BABESLE titulua bere burua-entzat harturik, Parlamentua «errepublikar» diktatura militarren pean ezarri zuen, eta erregetza suntsituz, noblezia lurperatuz, goi-eliza beheratuz gero Ingalaterra eta Eskoziako jaun eta jabe bihurtu zen, eta Irlandari dagokionean erresistentzia oro birrinduko zuen. Horrela jardutean, «iraultza horrek» ingeles Estatu-nazioaren oinarriak sortu zituen, Britainiar uhartean inperio bat ezarriz, eta itsasoz bestaldeko domeinuetara, hots, kolonietara inperio hori luzatuz, Holanda, Espainia, Portugal eta Frantzia koloniak galtzen joan ziren bitartean.

Hori guztia porrot handian amaitu zen Cromwellentzat. Horrela 1660an berriro ere monarkia itzuli zen Ingalaterran boterera. 1688 arte Charles II.a eta Jacques II.a erregeek agindu zuten Erresu-

ma Batuan eta euren jokabide politikoa monarkiaren eta demokraziaren arteko sintesia arraro baterako bidea eraiki zuten. Baina **1688an iraultza berri** batek (burgesiarenak, noski) Jacques II.a erregea baztertuz bere alaba Maria eta Orangeko Guillermo ezarri zituen boterean, horretarako, aurrez, «1689ko Eskubideen Adierazpena, 'Bill of Rights deitua'» sinatzera behartuko zituelarik. Burke historialariak esana duenez, horrela jardutean «iraultza zoriontsu eta loriosa» aurkitu zuen Ingalaterrak.

Berririk ba al dakar 1689ko Eskubideen Adierazpen horrek HERRIari dagokionez? Eskubideen Adierazpeneko lehen artikulua Westmistereko Batzarrean erreinuko klase guztien ordezkariak legalki, osoki eta libreki elkartu zirela dio, noski. Baina HERRIA termino-kontzeptu hori jendetza xehe bezala ulertzen badugu etzegoela Batzarre horretan ordezkaturikesan behar dugu, zeren “burgesiak” (Hirugarren Estatuko buruzagi bezala) ordezkatu zezakeanaz kanpo ez baitzegoen. Nola izan zitekeen bestela? Esan dugun guztiarekin garbi dago Nazio Proiektu Klasearteko, Etnia arteko eta Inperiala inauguratu zela **antolamendu eta erakunde**en ordezkaritza subietutzat erabiliz. Interes desberdinak dauzkaten antolamendu eta erakunde protagonisten arteko hitzarmen-saioa izango da bada. Hara zer mezua dagioen Eskubideen Adierazpen horrek lehen kontsiderazioetan ari delarik: «Orangeko printze Altezak edo Gorentasunak (zeinak Jainko Guztiz Ahaltsuari eskatu baitio bere erreinu berri hau papismotik eta botere arbitrariotik aska dezan) gutunak idazteko agindu

du (lords espiritual eta denboraldikoeak eta udal-letako pertsona jauntxo anitzen aburuak entzun ondotik) batzuk protestanteetariko lords espiritual eta denboraldikoei zuzenduz eta beste batzuk barrutietako **konteei, ziteei, unibertsitateei, burgoei eta bost ateei** 1688ko urtarrilaren 22an Westminsterren eseriko den Parlamentuan ordezkatuak izan daitezten hautatuko dituzten pertsona kapableen bidez, horrela, erlijioa, legeak eta askatasunak galtzeko arriskuan berriz gerta ez daitezten... Zehaztasun horiekin aipatu lords espiritual eta denboraldikoeak, bezala udalek, beren gutunen eta hauteskunde bidez elkartuak gaur, **guztiekin bat eginez nazioaren ordezkari osoa eta librea eraiki dezaten**». (F. Rouvillois, 2009, 32-33. or.).

«Hitzarmen horretan» ez dago, hala ere, «HERRIA» termino-kontzeptuaren presentziarik, hori jende xehe edo gizabanako orokorrez osatutako multzo bezala hartzen bada, aldiz, Antolamendu eta Erakunde baten ordezkariaren ageri da. Hala ere, 1215-1225eko Gutun Handian ez bezala, orain, estamentuetako jendeari burgesiako jendea gehitu zaio. Aldi berri hau iruzkintzen ari delarik P. Bourdieuk zuzenbide konstituzional ingelesean ageri dena ondoko molde honetan egiten du: «Orduz geroztik bi kudeatzaile motarekin egiten dugu topo: kudeatzaile dinastikoak dauzkagu, alde baretik, eta kudeatzaile burokratikoak, bestetik jada kontrajarriak nituen beste lan batean bi modutako erreproduzioak egiten ahal direla: odolaren bidez erreproduzitzen direnak, edota bitartekaritza burokratikoak sortzen direnak Tudorstarren garaian, pixkaka ohorezko pertsonaia biderkatzen edo

tartekatzen ikusten ditugu; horrela konfiantzazko jendea agertzen da, konfiantzadunen kleroa, konfidentzialak, erregeen eta kantzilerren artean tartekatzen direlarik». (P. Bourdieu, 2012, 464-467. or.).

## **Ameriketan, Ingalaterrako kolonietan, urrats bat gehiago eman zen Herria termino-kontzeptuaren protagonismo bidean**

I. 1776an, Virginiako Eskubideen Adierazpena daukagu hasteko. Bertako gobernuaren funts eta oinarritzat aurkezten zaigu agiri hori. Eta lehen, aldiz, HERRIARI berariaz protagonismoa aitortzen zaio bigarren ataletik aitzina: «Aginte oro Herriarena da eta ondorioz berarengandik sortzen da: Magistratuak, Eskudunak, beren zerbitzariak eta kontu-eramaileak, besterik ez dira garai guztietan». (F. Rouvillois, 2009, 38 or.). Are, hirugarren atalean oraino gehiago azalduz edukia konfirmatu egiten da zera dioenean: «Gobernua da edo eraiki behar da onura komunerako, Herriaren, Nazioaren edo Komunitatearen babeserako eta segurtasunerako. Gobernu-metodo edo mota desberdin guztietatik, hoberena, zorion- eta segurtasun-maila handiena ekar dezakeena eta administrazio txarraren arrisku-tik gerizatzen ahal gaituena da. Gobernu bat helburu hau betetzeko ezintasunean aurkituko den, ala kontrako bihurtuko den bakoitzean, Komunitatearen gehiengoak ez bairik gabeko eskubidea dauka, alienaezinezkoa eta ezinbestekoa, errefor-

matzeko, aldatzeko edo ezabatzeko, onura publikoa lor dezan propioen iritziko dena bilatzeko». (Ibid., 38-39. or.). Hurrengo atalera begiratzen badugu ikasgai berri bat gehitzen zaigu: «Ezein gizonek, ezta ere ezein gizon-kolegio edo elkartek, ezin du Komunitatez kanpo-beste titulu berezirik erabili abantailak edo pribilejio partikularrak lortzeko orduan, publikoari emandako zerbitzuen kontsiderazioa ez bada; eta titulu hori ez da transmitigarria ondorengoentzat, ezta ere odoletik datozenentza; Magistratu, Legegile edo Epaille sortutako gizonaren ideia, zentzugabea eta naturaz kontrakoa baita». (Ibid., 39. or.). Eta seigarren atala aipatuko dugu kolonietan emandako urrats aurrerakoiaren erakusgarri delakoan: «Batzarrean Herria ordezkatu duten kide hautatuek, libreak izan behar dute, eta Komunitatearen abantaila orokorrerako **interes iraunkorrarekin eta atxikimenduarekin jarduteaz aski froga eman duen orori sufragioan parte-hartzeko eskubidea onartu egingo zaio» (Ibid., 39. or.) HERRIA termino-kontzeptuaren erabilpena aztertzen ari garenez beste bi atal ekarriko ditugu lekuko moduan. Bata, hamaseigarren atalean ageri da. «Herriak Gobernu uniformerako eskubidea du; horrela bada ezin da legitimoki altxatu, ezta ere ezarri ezein Gobernu Virginiako honetatik aparte, Estatu honen mugetan, Gobernu banatu eta independente gisa». (Ibid., 41. or.). Lurraldetasunaren eskaria dago beraz. Horrekin batera beste eskari hau ere adierazten da: «Herri batek ezin du gobernu librea eta askatasunaren zoriona atxiki, ekonomia eta bertutea irmoki eta jarraituki defendatzen ez badira justiziaren, zuhurtasunaren eta neurriti-**



sunaren arauetan eta bere funtsezko printzipioei ez bazaie maiz-maiz begiratzen». (Ibid., 41. or.). Herriak helbidean parametro ziurrak eta jakinak behar ditu onura komuna zerbitzatu nahi bada.

II. 1780an, Massachusettseko Konstituzioa eraikitzen da. Orain eta hemen, ez da gehiago Eskubide Adierazpena bakarrik, Gobernu Araudia ere bada: «**Eskubideen adierazpen bat agintzen eta ezartzen dugu, eta jarraitzen dioen gobernu-plan-gintza bat, Massachusettseko errepublikaren Konstituzio berbera izan dadin**». (Ibid., 44.or.). Nazio bilakatu den Herri baten egitarau-aitorpena dugu orduan. Horrela dio aitzinsolasean: «Gorputz politikoa gizabanakoen borondatezko elkertasunez osaturik dago. Hitzarmen sozial bat da, zeinaren bidez herri osoak ituna egiten duen hiritar bakoitzarekin eta hiritar bakoitzak herri osoarekin, guztiek elkarrekin abantaila komun batzuetara ailegatzeko lege batzuekin gobernatuak izango direla onartuz. Horrela bada, Herriak gobernurako konstituzio bat osatzean, legeak ekitatez joka dezakeela onartzen da, baita lege horiek modu inpartzialean interpretatuak izateko eta fidelki betetzeko ardurak ere hartzen dira, gisa horretan garai guztietako gizon orok segurtasunez goza dezakeelakoan». (Ibid., 43. or.). Azpimarragarria da Hitzarmen Soziala dela kontzeptu gidaria eta gizabanakoak direla protagonistak gizabanakoen izaera unibertsalizatuz. Lehen atalean honela dio: «Gizon guztiak libro eta berdinak sortuak dira; zenbait eskubide natural, funtsezko eta alienaezinak dauzkate, zeintzuen artean lehenik bizitzaz eta askatasunaz gozatzeko

eta hori defendatzeko eskubidea ere behar delarik; jarraian jabetzak eskuratzeko edukitzeko eta zaintzeko eskubidea dator; azkenik, euren segurtasuna eta zoriona bilatzeko eta lortzeko eskubidea dago». (Ibid., 44. or.). Atalez atal hainbat eskabide moderno ageri dira Konstituzioaren testuan. Horieta-rik bat azpimarratzekotan ikus dezagun laugarren atalak dioena: «Errepublika honetako herriak eta berak bakarrik dauka Estatu libre, subirano eta independente bezala gobernatzeko eskubidea eta oraindanik eta beti, erabiltzen du eta erabiliko du botere eta eskumen oro; gozatzen du, eta gozatuko du espresuki ordezkartzan eman ez dituen eskubi- de guztiekin, edo Batzarrean elkarturik Amerikako Estatu Batuetan espresuki utziko ez dituenekin». (Ibid., 46. or.).

III. 1791n, Eskubideen Adierazpena eratzeko orduan Estatu Batuetako Federazioaren Konstituzioari egin zitzaizkion lehen hamar zuzenketen dokumentua ere aipagarria dugu. Deigarria gertatzen da bertan agertzen den zenbait gairengatik. Horrela bigarren atalean dioena azpimarratuko dugu, hasteko: «Estatu libre baten segurtasunarentzat ongi antolatutako milizia baten beharra onar- turik ere, HERRIAK armak edukitzeko eta erabil- tzeko daukan eskubideari ezingo zaio ezer kendu». (Ibid., 54. or.) Ezaguna da eskubide hori gaizki erabiltzeagatik gertatzen diren gehiegikerien histo- ria baina inoiz ez da geroztik atzera bota izan. Bos- garren atalean dioena ere ez da txantxetako gorabe- hera: «nehor ezingo da lege-hauste berarengatik bi aldiz mehatxatu bere bizitzan edo bere pertsonan» (Ibid., 55. or.). Baina, guztien gainetik gure gaurko

gaiari erdiz erdi doakion hamargarren atala seinatuko dugu: «Konstituzioarengatik Estatu Batuei ordezkatzeko eman ez zaizkien botereak, edo gaitzetsi zaizkienak, Estatu bakoitzarentzat edo Herriarentzat gordetzen dira». (Ibid., 56. or.) Argi eta garbi dago bada Herria dela eskubideen jatorria.

## **Herriak dira lehenak, gero datoz aginteak**

XVIII. mendean Jean Jacques Rousseaukin topo egiten dugu. «Herriaz» gogoeta egiteko orduan ezinbesteko pentsamendua da berea. Gizabanakoen Eskubide Adierazpenen lehen atalak, bere esaldietariko batekin hasten dira nonahi. «Gizarte-hitzarmena» izeneko bere liburuan, lehen atalean, liburuaren helburua zein den planteatzen duelarik ondoko hasiera hau du bere diskurtsoak: «Gizona libre sortua da eta, hala ere, bazter guztietan kateaturik bizi da. Jabe sentitzen den berbera ere ez da bestek baino gutxiago esklabo. Zerk eragin du aldaketa hori? Zer da nolabaiteko zilegitasun-zigilua inprimarazi diezaiokeena? Uste dut arazoa konpon dezakedala» (Jean Jacques Rousseau, 1979, 24. or.) Eta berehala ordu arteko aburu batzuk lurrera botatzera dator dioenean: «Baina ordena soziala gainerako guztientzat oinarrizko bezala zerbitzatzen duen zuzenbide sakratua da. Hala ere, zuzenbide hori ez da zuzenbide natural bat: hitzarmenetan oinarritzen da. Baina puntu horretara ailega aitzin aurreratu berri dudana ongi ezarrita utzi behar dut» (Ibid., 24. or.).

Honela bada, ongi ezarrita ipintzera igarotzean ondoko pentsamendu-logika honekin jarraitzen

du: «Gizarte guztietan antzinakoena eta natural bakarra, sendiarena da. Hala ere, seme-alabek gurasoekin loturak kontserbatzeko bere zainketaren beharra duteneino irauten dute. Behar hori amaitu bezain laster lotura natural hori deseginda gelditzen da. Seme-alabek, gurasoei zor zieten obedieneztatik aske, eta aita-seei zor zien zaindaritzatik, guztiak nolabaiteko independentziatik berdintasunez gozatzera igarotzen dira. Orduz gero elkarrekin jarraitzen badute, ez da gehiagoz behartuta eta naturalki, borondatez baizik eta sendia bera ez da gehiagoz bizi **hitzarmen sozialaren bidez ez bada**» (Ibid., 25. or.).

Korronte sendoko pentsamendu sozial hori, Grotiusetik datorkiguna, nabardura erraz eta soilez agertzen digu: «Gizabanakoaren naturaren ondorio besterik ez da askatasun komun hau. Bere lehen legea norberaren kontserbazioa bermatzea da; nire lehen zaintzak neure buruari zor dizkiodanak baizik ez dira. Arrazoi-adinera ailegaturik, beharrezko dituen bitartekoak baloratzeko orduan epaile bakar norbera izanik, bere buruaren jabe bilakatzen da. Horrela bada, nahi bada, sendia da gizarte politikoaren eredu lehena: jabea aitaren irudia da, **herria** haurrena eta guztiek berdinak eta askeak izanda sorturik, ez dute alienatzen beren askatasuna nolabaiteko baliagarritasunarentzat ez bada. Dagoen dierentzia zera da, sendian aitak bere semeekiko duen maitasunak eskaintzen dizkien zaintzak sariztatutzat dituenean, Estatuan jabeak bere **herritarrentzat** ez duen maitasun hori agintzeko plazeraz ordezkatzan duela» (Ibid., 25-26. or.)

Beste urrats bat emanez indarraren gaia gogorazten du. Horretan Platonen ildoak jarraituz dabil: «Indartsuena ere ez da behin ere aski iraunkor jabe edo jaun izateko, baldin eta ez badu eraldatzen bere indarra eskubidean eta obedientzia bete-beharrean. Hortik dator indartsuenaren eskubidea, itxuraz ironikoki hartua eta printzipioz errealki ezarria. Esaldi hau behin ere esplikatuko al zaigu? Indarra ahalmen fisikoa da; ez dakit zer moralitate ondorioztatzen ahal den bere efektuetatik. Indarrari toki ematea beharrezko ekimena da, inolaz ere ez borondatezkoa; gainerako oro, zuhurtzia izan daiteke. Zer nolako zentzuan izan daiteke orduan betebeharra?» (Ibid., 28. or.).

Hain tinko dago hori bere arrazoibidean, non gogoeta-joko batekin borobiltzen duen bere aitzi-nako esaldia: «Onar dezagun une batez lortu nahi den eskubide hori. Nik ziurtatzen ahal dut horretatik eratortzen dena esplikatu ezinezko mordoiloa dela. Zeren, indarrak egiten badu eskubidea, nolaz eta ondorioa kausarekin aldatzen ez doan, **lehena baino goragokoa den edozein indarrek aldatuko luke eskubidea...** Zer litzateke orduan indarra, gelditzean desagertzen den eskubidea? Indarrez obeditzea ezinbesteko bada, ez da beharrezkoa izango bete-beharrez obeditzea, baina indarra desagertzen bada, betebeharra geldituko da. Horren ondorioz, lortzen den emaitza zera da eskubideak ez diola ezer gehitzen indarrari eta hemen eta orain ez duela ezer adierazten Ados dezagun, bada, indarrak ez duela eskubidea egiten eta aginteak zilegi direnean bakarrik gaudela obeditzera beharturik». (Ibid., 28-29. or.).

Eta **herriaren lehentasuna** argudiatzen zaigu ondoren. «Herri batek errege bat hautatzeko ekimena aztertu aitzin, komenigarria da, **herri bat herri sentitzen deneko ekimena ikastea**, zeren azken ekimen hori derrigorrez aurrekoa baino lehenagokoa izanik, gizartearen benetako funtsa baita. Izan ere, antzinako hitzarmen bat ez balego, non egongo litzateke, gehiengoaren aukerara gutxiengo mendean jartzeko betebeharra, nolaz eta aukera ez den aho batezkoa? Eta zer eskubiderekin, jabetza bat nahi duten milak, maneaten ahal dituzte nahi ez duten hamar? Sufragioetako gehiengoan legea bera antzinagoko hitzarmen baten emaitza denez, gutxienez, behin batez eman behar den aho batekoan oinarritzen da» (Ibid., 37. or.).

Beste testu honek Herriaren garrantzia sakontzen du: «Eraikin handi bat altxatzen hasi aitzin arkitektoak lurra erreparatuz zundatzen duen bezala jaso behar duen pisua jasotzeko lain den, era beran erakundegile jakintsuak bere baitan onak diren legeak idatzi aitzin destinoa izango duen herria haiek jasateko baldintzetan dagoen egiaztatu behar du. Arrazoi horregatik Platonek arkadioei eta zirenekoei legeak ematea errefusatu egin zuen, bai baitzekien herri horiek, aberatsak izanik, ez zutela jasango berdintasunik; eta arrazoi berarengatik ere, Kretan, lege onak eta gizabanako txarrak ikusi ziren, zeren Minosek grina txarrez beteriko herria ez baitzuen diziplinatu.

Lurraren ganean milaka nazio izan dira lege onak behin ere jasan ez dituztenak eta jasan ahal izan dituztenen artean ere denboraldi labur bat besterik ez dute izan hori egiteko. Herrien gehien-

goa, gizabanakoena bezala, bere gaztaroan bakarrik izan da esaneko; zahartzaroan zentzatu ezin bilakatzen da. Behin usadioak lortu eta aurreiritziak errotuz gero, eginbehar arriskutsu bezain haurkeriazkoa da erreformatu nahi izatea. Herriak, medikuaren aitzinean dardarka jartzen diren eri ergel eta koldar horiek bezala, ezin du jasan bere gaitzak birrintzeko ukitzea ere.

Horrek ez al du esan nahi, gizabanakoen igarotako oroitzapenak ezabatzen dituzten eritasun batzuekin gertatzen den bezala, Estatuaren bizitzan ere izaten ahal direla aro bortxatzaile batzuek zeintzuetan iraultzek sortzen ahal dituztela herrietan krisi batzuek gizabanakoetan eginarazten duten berbera eginez eta igaroaren izua ahanztuarengatik ordezkatzeko dela, eta Estatuak, errautsetatik birsortzeko dela, nolabait esanda, eta heriotzaren eskuetatik ihes eginez gaztaroaren sendotasuna berreskuratzen duela. Espartan horrelako zerbait gertatu zen Likurgoren garaian, hori bertsua Erroman ere Tarkinioren ondoren, eta antzeko zerbait gure artean gertatu da Holandan eta Suitzan tiranoa egoztean.

Baina gertakari horiek arraroak dira; azken funtsean salbuespenak dira horien arrazoiak beti Estatu salbuetsien konstituzio partikularrean aurkitzen delarik eta, horren ondorioz, bi bider errepika ezinezkoa da herri berean, zeren herritarrak aske bilaka ahal baitaitezke basakeria egoeran daudenean, baina behin ere ez baliabide sozialez ausartegiak direnetan. Azken horien kasuetan nahasmenduek ezabatzen ahal dituzte, iraultzak berriro berreraikitzeko ahalik gabe utziz, kateak hau-

tsi bezain pronto sakabanaturik eta kemenik gabe erotzeraino: askatzaile batena ezik nagusi baten beharra daukate. Herri askeok gogoan izan ezazute esaera hau: «askatasuna lor daiteke, baina inoiz ez da berreskuratzen ».

Gaztaroa ez da haurtzaroa. Nazioetan, giza-banakoetan bezala. Gaztaro-aldi bat badago, edo nahi bada heldutasun-aldi bat, zeinetan beharrezkoa den itxoitea lege pean jarri aitzin; baina heldutasun-aldi hori, herri batean, ez da beti erraz ikusten, eta aurreratzen bagara, egindako lana ezdeusa gertatzen da. Bada herririk sortze beretik diziplinatu izateko lain badenik; aldiz, beste batzuek hamar menderen ondoren ere ez dira gai. Errusiarrak ez dira benetan zibilizatuak zeren goizegi izan baitziren. Pedro Handiak aiurri-imitatzailea zeukan, baina ez zuen benetako aiurrik, zeina oro ezerezetik sortuz egitean baitatza. Gauza on batzuk egin zituen: baina gauza gehienak tokiz kanpokoak egin zituen. Bere herria basakerian murgildua ikusi zuen, baina ez zen jabetu ez zuela beharrezkoa den heldutasunik, eta zibilizatu nahi izan zuen, egin beharrezkoa gerrarako gogortzea zenean. Aleman- eta ingeles-herri bat egin nahi izan zuen, errusiarrak egiten hasi behar zuenean eta, gisa horretan, bere mendekoak izan behar zuten hori izatetik apartatu zituen, zeren artean ez zeuketen zibilizazio-maila zeukatela sinetsarazi baitzien, bere eskolaumea haurtzaroan distiratzeko eta ondoren betirako estaltzeko prestatzen duen maisuak bezala. Errusiar inperioak Europa menpean hartu nahi izan zuen eta Europak menperatua gertatu zen. «Tartaroak, beren sujetak edo auzoak, beren



jabe eta gure jaun bilakatuko dira: iraultza hau hutsezina zait. Europar Errege guztiak azkartzeaz axolatzen dira». (Ibid., 76-78. or.)

Testu hauetan Gizarte-hitzarmen lehena, asoziatiboa eta sortzailea, **ahobatekotasunez** eraikitzea iradokitzen digu J. J. Rousseauk. Eginkizun sortzaile hori aho batez egitea lortzen ez duen erregimenak eskasia demokratikoak pairatuko ditu era jarraituan nahiz eta formalki hori eskatu bere buruarentzat. Egiteko gelditzen den sortze sano horrek eraiki beharrarekin topo egingo du ibilbidean eta desafio hori bete beharko du benetan demokrazian sartzeko. Bigarren hitzarmen mota bat ere aurkitzen dugu kalsearteko demokrazietan eta hauek malguagoak eta ondorioengatik arinagoak izaki, Hitzarmen Gobernatzailea deitzen duguna, nola exekutibora hala legegilerazabal daiteke. Horretan gizartearen aldiaren beharrei erantzutea helburu delarik, sortutako erregimenaren mantentzaile eta kontserbatzaile bihurtuz gehiengo-guxiengoaren joko errespetagarria ontzat ematen da. Hala ere, J. J. Rousseau bera batzartzalea zenez gobernatzeko modu horren aurka zegoen.

## **Nazioa da burujabetasun politiko orenen jatorria**

1789an Frantziako Iraultzak «Gizonen (sic) eta hiritarraren Eskubideen Adierazpena» aldarrikatu zuen. Bouche biltzarkideak garaiko Batzarreko Lehendakariari Adierazpen hori ez zegoela amaituta esango zuen ohar bat idazteko eskatu zion eta hark zera erantzun zion, edozein modu-

tara ere berritzeak errepikatzea besterik ez zukeela ekarriko. Orduan, ikusten denez, uste zuen dena agortzeko moduan arituak zirela «gizonen (sic) eta hiritarraren eskubideez». Eta hain zuzen ere, jarrera hori berretsita gelditu zen 1791n Olympe de Gouges emazteak «Emakumeen eta hiritarraren Eskubideen Adierazpen proiektua» aurrekoari kontrajartzeko aurkeztu zuenean. Proiektu horretan, «Gizonen (sic) eta hiritarren Eskubideen Adierazpenari» akusazio zuzena egiten zaio Aitzinsola-sean, esanez: «Iraultzaz maskulinoak jabetu direla eta eskubideen izenean despota-moduan agintzen diotela ahalmen intelektual guztiak dituen sexuari ( ) sexu nagusia bada ere edertasunean bezala kuraian» (F. Rouvillois, 2009, 235. or.). Beraren aburuz bada, gauzak garbi jarri behar dira, eta gizonen eskubideen alboan, emazteen eta hiritarren eskubideak adierazi behar dira; eskubide horiek, plano orotan hertsiki gizonenen berdinak izan behar dute, zigor-arloa barne, zeinetan emazteentzat, hala gertaturik, gizonentzat dauden zigor berberak pairatzeko eskubidea eskatzen duen. 1793an, Olympe de Gouges, prozesu arin baten ondotik gillotinatua izan zen.

**Edo beste modu batean esanda, «Gizonen (sic) eta hiritarren Eskubideen Adierazpena» uni-bertsala da. Hala bada ere, egon beharko lukete formulatzeko unean garrantzizko ñabardura motak eta bereizgarriak.**

Hala ere, badirudi «Adierazpena» eta Konstituzioa bereizi egiten direla, eta Konstituzioaz beste aburu bat dagoela. «Adierazpenaren» hogeita hamargarren atalean ondoko hau aitortzen baita:

«Herri batek beti dauka bere Konstituzioa berrikusteko, berritzeko eta aldatzeko eskubidea. Belaunaldi batek ez baitu eskubiderik etorkizuneko belaunaldiak uztarpetzeko. Funtzioetan gerta daitekeen ondorio oro ere zentzugabea eta tiranikoa baita» (Ibid., 67. or.).

Frantziako Iraultzaren Adierazpenaren historiari dagokionean, esan dezagun, 1791ko abuztuan, Konstituzio berriaren orduan, 1789az geroztik zegoenean, txertatzea erabakitzen zela. Hala ere, Thouret legegizon normandiarrak, bere eginkizun txostengilean, onartzen du, konstituzioaren testuan «bermeak» sartu behar izan direla, Adierazpenaren zenbait xedapen hobetzeko, batzuei ez aski, eta beste batzuei tronpagarri zaizkielako» (Ibid., 58. or.). Hala eta guztiz ere, ez dago inolaz ere Adierazpena bera berriz ukitzeko asmorik, zeina «bi urtez gero Frantses guztien sinbolo bilakatu den, eta «nolabait esanda izaera sakratu eta erlijioso bat lortua baitu», eta horren ondorioz «Gizonen (sic) eta herritarren eskubideen benetako Adierazpena» izatera heldua baita. (Ibid., 58. or.). Adierazpenaren historiarekin jarraituz, esan dezagun halaber, 1791ko irailaren 3ko Konstituzioaren Aitzinsolasa izan bazen ere, 1792ko abuztuaren 10eko jardunaldi iraultzailearen karietara, zeinak monarkia konstituzionalistaren eraikin hauskorra ipurdiz gora jarri zuen, desagertu egin zen. 1793an, Konbentzioak, iraileko sarraskien burrunban hautatuak, bere pentsalari ospetsuena, Condorcet, Adierazpen berri bat idazteko izendatzen du. 1793ko maiatzaren 29an onartua, berehala abandonatuko dute bere sortzaileek erbesteurik zeudelako. Alderdi

garaileak, Menditarrak (La Montagne), iraultzaren hegorik gogorrena ordezkatzeko duenak, 1793ko ekainaren 24an Konstituzio jakobinoarekin, hogeita hamabost ataleko Adierazpen berri bat ezarriko du abian. Baina, azken hori ere, Thermidor II.aren urtean eta Robespierren erorketaren ondotik, ordezkatu egingo da, 1795ean onarturiko Eskubide eta Betebeharren Adierazpen berri batekin, zeinak iraultza loratzearen azken emaitza adierazten duen.

Zer azpimarra dezakegu, azken finean, 1789ko abuztuaren 27an aldarrikatutako, «Gizonen (sic) eta hiritarren Eskubideen Adierazpenari» buruz, gainerako frantses-adierazpen guztien jatorri eta sintesi den horretan esaten denetik?

Aitzinsolasa, **Herriaren** funtsa oroitaraziz hasten da, nahiz eta, ikusiko dugunez, proiektu horrek Nazioaren subiranotasun politikoan kokatu arte amaierarik ez duen. Hara nola abiatzen den testua: «Herri frantsesaren ordezkariak, Batzar nazionalean bilduta, gizonen eskubideen ezjakintasuna kontuan hartuz, ahanztura edo mesprezua malurra publikoen eta gobernu ustelkerien kausa bakar direla, erabaki dute, adierazpen ospetsu baten bidez gizonen eskubide natural, alienaezin eta sakratuak erakustea, gisa horretan adierazpen horrek, gorputz sozialeko kide guztientzat beti presente egonez, gogorazi diezaien ere jarraian beren eskubideak eta beren betebeharrak; baita botere legegilearen eta botere egikaritzailaren ekintzak ere, erakunde politiko ororen helburuekin une oroz konparatzeko moduan adieraziz, gisa horretan errespetatuagoak izan daitezten; baita hiritarren eskakizunak ere, oraindanik jada printzipio simple

eta ukaezinezkoetan fundatuak, beti ere Konstituzioa mantentzeko eta guztien zorionerako izan daitezten » (Ibid., 59. or.)

Lehen eta bigarren ataletan sartzen bagara, ingelesen eta amerikarren azken Adierazpenetan azaltzen diren Th. Hobbes eta orain J. J. Rousseau-ren eraginez formulatutako printzipio filosofikoak ageri dira. Hirugarren atalean, aldiz, Nazioaren rol transzendentalia definitzen da: «Subiranotasun ororen printzipioa Nazioan datza funtsean; ezein gorputzek, ezein gizabanakok ezin du gauzatu aginterik nazioarengandik espresuki ez badatorkio» (Ibid., 60. or.). Bestalde, hogeita seigarren atalean dioena ere kontuan hartzekoa da: «Subiranotasun nazionala funtsean Herri osoarengan datza, eta hiritar bakoitzak bere ariketan parte hartzeko eskubide berdina dauka; subiranotasun nazionala, bada, bakarra, zatiezina, agortezina eta alienaezina da» (Ibid., 66. or.). Hala bada, badirudi, HERRIA, Nazio moduan eratzen denean, eta orduan bakarrik, sortzen dela aginte politikoa. Nazioa da orduan aginte politikoa iturri eta oinarri. Ondoriozta dezakeguna da halaber, HERRIA Nazio moduan eraikitzen ez den bitartean aginte politikoan gabetua egongo dela. Hau horrela irakurtzean anitzez hobeto ulertzen da Aitzinsolasean esan dena, alegia: «Herri frantsesaren ordezkariak Batzar Nazionalean bilduta »

HERRIA Nazio moduan eratzen denean zer gertatzen da? 1) Herriak subjektu politiko izateko erabakia hartzen duela bere izaeraren iraupen eta hedamenerako; 2) Herriak bere subiranotasuna sortuz gero, aginte politiko propioan bizitzen

jartzen dela; 3) Herria identitate politikoa eraiki beharrean dagoela; 4) Herriak, identitate politikoko horrek molestatzen dituen jazarri beharra daukela; 5) Herria unibertsalizatu egiten dela gizon-emakume eta hiritarren eskubideen norabidean murgiltzean.

## Unibertsalizazioranzko gazi-gezak

Jean-Baptiste Crénièresen antzera, 1789ko Bartzar eratzaileko kideek ere zentzugabekotzat epaitzen zuten frantsesa edo amerikarra besterik izango ez zen Eskubideen Adierazpen bat, hots, objektutzat nonahiko «gizon orokorra», hartuko ez zukeen Adierazpena. Errepublikako armada garaileak, Rousseuren proiektuarekiko leial izanik, hark zioen bezala **gizona libre izatera behartu behar zela** buruan zuela, alegia, zisalpetar, ligur eta parthenopeneko «errepublika ahizpei» 1795eko testua hitzez hitz berritzen zuen Adierazpena inposatu zien, hots, «Europako nazio argituenaren Argien emaitza zena», Bonapartek bere 1797ko ekainaren 27ko aldarrikapenean baieztatzen duenez. Aberrazio bikaina zen, noski! Jendeen buruak argietara begira lanean jartzen lagundu ordez, euren prozesuak bortxatu zituzten. Badakigu zer esan nahi duen horrek guztiak. Herriak hankaperatzen dira euren askatasunaren aitzakian. Porrot ikaragarrian amaitu arte, noski.

Pentsamenduaren argiak, hala ere, hemeretzigarren mendearen ibilbidean, berez, mundu guztiko mugimendu iraultzaileak konkistatu zituen, euren baitarik Eskubideen Adierazpen horiekin ja-

naritzen zihoazelarik: 1805ean Haitiren eraikitzaileak, Hego Ameriketako askatzaileen proiektuak, 1847an Liberia etab., horren lekuko dira.

Denbora luzez, ordea, **ametsa** besterik ez dira izango Eskubideen Adierazpenak munduko hainbat tokitan: Frantzia bertan, inboluzio urteetan, Espainian 1812an, Alemanian 1848an, edo nahita eguneroko politikaren beharren aitzakian ohartuki eskubideak epeldu izan direnean. Gainera, amets hori, XX. mendearen lehen erdian, anitz okasiotan, amesgaizto izatera ailegatu izan da.

Despota-sistemen markoan teknika adierazleak distira faltsuak berreskuratutako pertsonen askatasunaren aurka itzuli baitira. Izan ere bere «bilustasun abstraktuan» Adierazpenengatik gora jasotako gizona, bere historiatic deserrotu eta biluztutako gizona, ez baitago batere urrun erregimen totalitarioetan zenbaki soilaren estatusa duen gizabanakotik.

Horrela heldu zen Munduko Bigarren Gerraren amaierara. Eta orduan, hamazazpigarren eta hemezortzigarren mendeetan abiatutako Eskubideen Adierazpen korrante hura unibertsalizatzeko helburuarekin bakarrik, uhin berri bat jaiki zen René Cassin baionarra buru zela, 1948an Eskubideen Adierazpen Unibertsalera ailegatzeko: «Gizona gorde eta gizon guztien eskubideak gorde, Lurraren bazter guztietan» zioen lema pean. Olde horren emaitza bezala hainbat araudi eta konbentzio sortu izan dira geroztik: 1950ean Europako Kontseiluak onartutako, Giza Eskubideen Europar Konbentzioa; 1969an amerikarren arteko Konferentzia espezializatuan onartutako giza eskubideak;

1981ean afrikar batasunaren Hamazortzigarren Antolamendu Konferentzian onarturiko gizon eta **herrien** afrikar Araudia; 2000. urtean onarturiko Europar Batasuneko funtsezko eskubideen Araudia; edo eta 2004an Arabiar Ligak onarturiko Giza Eskubideen Arabiar Araudia. Araudi eta Konbentzio horien dinamikan berritasun zerbait dakarren bakarra Afrikar Batasunaren adierazpenean aurrki dezakegu, hots, «gizaki» kontzeptuaren alboan «herriena» sartu baitu. Zer da arazo, berriki eta espresuki «herrien» aipamenera igarotzeko?

Historian bezala gure egunetan ere konstante bat da **herri** termino-kontzeptua erabiltzea, beraz definiziorik nehork eman gabe. Aipatu dugun afrikar testuaz gain Nazio Batuetan erabili izan denean berdin gertatu da. Gogora ditzagun 1514eko. (XV) erabakia edo 1966ko abenduaren 16an Saharari buruz onartutako bi itunetan idatzitako 1, & 2 atalak. Eta guri geuri ere eginkizun hori funtsezkoa iruditzen zaigu.

Zorionez, «**Herrien aldeko Auzitegi bat**» (**Un tribunal pour les peruples**)» izenarekin, Edmond Jouveren zuzendaritzapean, 1983an argitaraturiko liburuan saiakera hori egina dagoela aurkitu dugu. Azpimarragarria da halaber horretarako aitzakia zein izan zen jakitea. Herrien aldeko Auzitegi horrek «Mendebaldeko Saharar herriaren borrokaren zilegitasuna eta legezkoatasuna, bere ordezkari zilegi eta bakarra den Fronte Polisarioaren gidaritzapean» gaia ardatz duela egindako txostena.

«Hiru elementuk parte hartzen dutela dirudi herri-izaeraren aitortzan: **menderatutako lurralde baten jabetza baketsua**, gerta baledi, mendeko-



tasun kolonialari edo okupazio atzerritarrari zor zaiona; **kontzientzia kolektiboa eta elkarrekilako batasunean eraikitako antolamenduan elkarbizitza-sistema baten eraketa**; deskolonizazio-kasuan eta une horren karietara berriz, **jendetzaren elementuen gehiengoak adierazitako borondatea, eta «libreki beren estatus politikoa eta beren bilakaera ekonomiko, sozial eta kulturala jarraitzeko deliberazioa» (1514-XV-2. atala, Erabakia).** (Edmond Jouve, 1983, 59. or.).

Eta gisa horretan formulatutako herri-izae-raren hiru elementuen demostrazioak aurrera jarraitzen du aipatu testu horretan, zera dioenean: «Saharar herriari dagokionean, 1975eko urriaren 16ko kontsulta-aburuan aurkitzen ditugu lehen bi elementuak eta horretara ezkerro Espainia, Maroko eta Mauritaniaren izenean egindako auzi-saioetatik idokitzeraino hel gaitzke. Espainiaren jarrera zen garbiena puntu horri dagokionean (ikus CIJ BILDUMA 1975, 62. or.). Mauritaniari dagokionean, Mendebaldeko Sahararen deskolonizazio-unean, artean Estatu estatusa ez zuelarik, behartua zegoen «mauritaniar multzoaren» eta Saharar herriaren arteko loturak ezartzera espainiar kolonizazioari uztarpeturiko lurraldearen gain bizi ziren jendeen homogeneousuna lehenik aitortuz. Marokok berak ere ez du lortu Saguia El Hamra eta Rio de Oro lurraldeen gain inolako subiranotasunaz baliatzerik, aitzitik erakutsi ahal izan duen bakarra da, lurralde horietan bizi zen jendetzarekin sultanak zituen deskargu-loturak. Gisa horretan, kultura berdinean partaide ziren kolektibitateen eta antolamendu sozialaren forma berek existentzia zeuka-

tela zen Marokok eta Mauritaniak demostratzeko erabilitako pieza bakarra, zeren Estatu horiek kolonizazio aitzin zeuzkaten loturak erakusteko balia zezaketen bakarra, «subjektu» pasiboaren forma, egungo herri sahararraren iturri dena, suposatzen duten natura pertsonaleko lotura baitzen.

Hala eta guztiz ere hirugarren elementua da bere izaera hobekien adierazten-duena, Sahararren herri-izaera alegia. Lurraldeko jendeen multzoak egindako borrokak, marokoar armadari lurralde horretako okupazioaren aurka jarritako erresistentziak, Sahara Errepublika Arabiar Demokratikoaren eraikuntza eta marokoar eta mauritaniar tropen aurka lortutako garaipen militarrek, bi gauza erakusten dituzte: batetik, saharar herri bat existitzen dela eta bere heldutasuna bizkortu egin dela atzerritar inbaditzaileen aurkako borrokan, eta bestetik, herri horrek argi eta garbi erakusten duela bere lurraldean estatu independente eta subirano bat eraikiz, hots, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoak, autodeterminatzeko eskubidea erabili nahi duela» (Edmond Jouve, 1983, 59. or.).

Guk geuk Herria termino-kontzeptua definitu nahian eta euskal historiaren berezitasunean sakonduz lan bat argitaratu genuen jada 1988an, «Herria: sistema eta teoriak», Kriseilu, Donostia.

Eskubideen Adierazpenen ondorioetara itzuliaz, zer esan dezakegu egungo egoerari dagokionean? Hogeigarren mendearen bigarren erditik aurrera soilik hasi dira Estatuak eta nazioarteko Erakundeak onartzen, alegia, pertsonen kategoria zenbaitek, ahulezia-egoeran aurkitzen direnek, ez dutela aski Eskubideen Adierazpenaren itzal

orokorrarekin, aitzitik babes-neurri espezifikoaren beharra daukatela. Horrelakoen artean leudeke hasteko, emazteak, jada aipatua dugun Olympe de Gougesek XVIII. mendean izendatuak, baina gure egunetan subjektu espezifiko berriak ere badira Eskubide Adierazpenen alorrean: «Haurren Eskubideen Adierazpena» (1959ko azaroaren 20koa); «Pertsona Elbarrituen Eskubideen Adierazpena» (1975eko abenduaren 9koa); «Hizkuntza Eskualdetar edo Minotarioen Europar Araudia» (1992ko azaroaren 5koa); «Genoma Gizatarraren gaineko Adierazpen Unibertsala eta Giza Eskubideak» (1997ko azaroaren 11koa); «Ingurugiroaren Araudia» (2004koa). Eta horiekin ez dago agorturik subjektu ahal horien zerrenda. Pixkanaka berriak plazaratzen jarraituko dute gizarteek kontzientzia hartu ahala. Azpimarra dezagun, adibidez, gure gaurko gogoeta honen ardatz den «herrien» gaiari oraindik ez diotela heldu Estatuaren eta nazioarteko Erakundearen mailan. Zeren «Herrien aldeko Auzitegia» erakunde paralelo izatetik ez baita igarotzen. Nazioarteko Mugimendu-Antolamendu Sozial bezala definituko genuke beraz. Horrelakoa izateak daukan garrantzia gutxitu nahi gabe, noski.

Areago, gure gogoeta aurrera eramanez, orain beste galdera bat egingo dugu: Zer balorazio merezi digu, 1948az geroztik, Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren alde, mundu mailan, egin den irabiatzeak? Jende eta herri zehatz-partikularren zapalkuntzak eta diskriminazio-egoerak gainditzeko edo hobetzeko balio izan al du? Ala zapalkuntza eta diskriminazioa eragiten dituztenen irudiak distira faltsuz zuritzeko izan dira? Ikus, hain zuzen ere

Gara egunkarian (2011-1-23) aurkitu dudana, hau idazten ari naizen egun hauetan. Antonio Alvarez-Solisek, «Incoherencia» izenburupean, honako hau dio Obamak Txinako buruzagi nagusia Etxe Zurian hartu ondoren egindako deklarazio publikoez idazten duelarik: «Aipatzekoa da, noski, Iparramerikako zuzendari politikoez, giza eskubideak errespetatzeko dagoen beharra gogoraraziz Txinatar Estatuko buruzagia hartu izana. Erreklamazio hori Estatu Batuetako buruzagi baten ahotik absolutuki inkoherentea gertatzen baita. Arrazoa ofenditzen du zeren aukera dialektiko zintzoa erradikalki faltsutzen baitu. EEBB giza eskubideen mespretxuaren ohiko adibidea baita, ez bakarrik bere hiritarrekiko, baita mundu oro kutsatzen duen hainbat alorrekiko ere, iparramerikar potentzia kontuan hartzen bada. Iparramerikar zuzendari batek errespetu hori besteei eskatzeak giza eskubideen erreklamazioa, guztientzat komuna izan behar duena, jasan ezinezko probokazio bilakarazten du. Gizateriaren gehiengo nagusiak egunero bizi baitu justiziaren, ordena moralaren eta askatasunaren urratze dramatiko hori, existentzia maitakor eta ereduzkoari erreparatzen zaionean. Iparramerikak, again, bertute horiek oro eguneroko bizitzan protagonizatzen al ditu?»

## V. BIZIRAUPEN-ASMOKO GUTXIENGO SOZIALAK

Gutxiengoak ez dira guztiak berdinak. Gutxiengo guztiak ez daude egoera berean; ez dituzte ezaugarri berak, ezta estatus sozial eta juridiko berak ere. Baina, ezer baino lehen, zer da gizarte-gutxiengoa? Gutxiengoaren lehen ezaugarria osatzen duen pertsona-kopuruari dagokio; izan ere, osotasuna osatzen duen beste talde batzuen baino apalagoa da, gehienetan. Hortaz, harreman-egoera talde marjinalarena bihurtu daiteke. Kasu horietan, gutxiengoa pertsona marjinalak osatutako taldea da. Talde-harremana nazionala, kulturala, klasekoa edo generokoa ere izan daiteke; horren bidez, batasun-kontzientzia garatzen du taldeak eta bere kabuz erabakiak hartzeko asmoa izaten hasten da. Gaur egun, bi gutxiengo mota azter ditzake gizarte-behatzaileak, daukaten konplexutasunagatik eta gatazka-zamagatik, gure gizarteek pertsonen eta taldeen eskubideen eta duintasunaren aintzatespena xede baitute: burujabetza-xedea daukaten gutxiengoak eta biziraupen-kezka dutenak. Hala ere, zerk egiten du gutxiengo bat gizarte-erreferentzia? Bada, talde nagusiarekin eta talde horrek aldebakarki kontrolatzen duen antolaketarekin dituen antagonismo-harremanek.

Biziraupenerako gutxiengo trantsizionalak aztertuko ditugu hemen. Gutxiengo horietan, pertsona batzuek, erabakiz, jatorrizko lurraldea utzi dute, arrazoi ekonomiko, sozial edo politikoak direla medio, beste lurralde batera joateko eta bertan immigrante gisa bizitzeko. Etorkinen kopurua handia bada eta etorkinek ezaugarri komunak badituzte, trantsiziozko gutxiengoa sortzen da. Immigrantea konturatzen denean kanpotar etorkin nortasuna duela, inongoa ez balitz bezala eta estatu-prozedurak jarraitu behar dituen produktu soil gisa tratatzen dutela, erabateko hutsean erortzeko oso arrisku handia du. Eskubiderik gabeko atzerriarren egoera da; hau da, hemen egon beharko ez lukeenarena, kanporatu behar denarena. Immigraziozat jotzen bada nazio-lurralde batean lan egitera sartzen diren pertsona guztiek osatutako taldea, immigrazioa zilegi den egoetatik zilegi ez den egoerara pasatzen gara. Margarita Sanchez-Mazasen iritziz (2004, 37. or.), “gaur egun, atzerriarren arazoa da atzerriarrak arazotzat jotzen direla. Asko direnean eta taldeztat jotzen direnean ezartzen zaizkie atzerriarrei, Besteiei bezala, gizarte-ezagupenari dagozkion prozesu psikosozialak –estimua-aren alorrekoak, adibidez–, eta ez soilik ezagupen juridikoarenak”. Immigrazioaren gaiak sortzen dituen problematiken arabera azter daiteke.

**Lan honen xedea da** immigrazioa aztertzea; batetik, giza eskubideen eta atzerriararen ezagupenaren ikuspegitik; eta bestetik, immigrazioari dagozkion trantsizio-prozesuen ikuspegitik, batik bat sortzen diren nortasun-dinamiken ikuspegitik.

## 1. Giza eskubideak eta atzerritarren gizarte-ezagupenaren printzipioa

Inongo dudarik gabe, Frantziako 1789ko Giza Eskubideen Deklarazioak garrantzi berezia izan zuen Giza eta Gizarte Zientzien garapenean. Izan ere, matrize-izaera izateaz gain, onartu zeneko baldintzek oihartzun berezia ematen diote deklarazioari; gogoan izan behar da, hala ere, deklarazioak hogeita hamar bat proiektu izan zituela aurretik Frantzian, eta Giza Eskubideen Deklarazioa ezin dela sustraitzat dituen atzerriko testu ugariatatik bereizi. 1789ko Deklarazioak mundua, gizakia eta bere historia aldatzea zuen xede; Arrazoimenaren eta Askatasunaren arabera birmoldatzea. Eskubide horiek Frantziako herriaren ordezkariak aurkeztu arren, gizateria osoari dagozkio, Deklarazioaren izena bera, erlijiozko ikonografia esplizitua eta testuen orokortasuna lekuko; hala, hauxe dio testuak, lehen artikuluan bertan: *“Gizon(sic) guztiak aske jaiotzen dira, eskubide berberak dituztela”*. Baina hasierako xedea bete al du Deklarazioak? Erantzuna ikuspuntuaren araberakoa da! Baiezkoa eman daiteke, ondoko urte, hamarkada eta mendeetan idatzi diren Deklarazio ugariak kontuan hartuta, batik bat. 1789ko Deklarazioak herriei gizarte-harremanak eta botere politikoaren oinarriak bestela planteatzeko bidea eman zien. Hala ere, hainbeste deklarazio idatzi izanak aurkako interpretazioa izan dezake; hau da, 1789ko testuaren benetako eragina zalantzan jar dezake.

Bestalde, galderari erantzuteko, beste gogoeta bat kontuan hartzekoa da. Hala, mende eta erdian,

argi dago aldarrikatutako printzipioen eta giza eskubideen benetako erabileraren artean izugarritzko alde dagoela. Alde hori Bigarren Mundu Gerraren ondotik soilik txikitu zen, zuzenbide-estatua unibertsal egin zenean eta eskumeneko planteamendu idealista piztu zenean.

Baina kontraesan garbiena da eskubideak ezin direla airean bizi, laino artean, herrien esparrutik kanpo. Azken batean, nazionalitatearen mugekin egiten dugu topo. Gero eta immigrazio-jario handiagoak dituzten gure herrietan, bi herritar mota sortu ditugu: batetik, nazioko herritarrak, eskubide osoak aitortuak dituztenak; eta, bestetik, nazio-herritartasuna ukatua dutenak, gizarte-herritartasunik ez duten heinean. Hortaz, nazionalitatea funtsezko osagaia da, beste eskubide guztiak izateko baldintza gisa ezartzen baita. Beraz, eskubide politikorik legez ez izateak beste eskubiderik ez ematea bidezkotu egiten du. *“Zenbait eskubide nazioko kide izateak zehazten ditu; eta atzerritarren ganako legezko diskriminazioak, mugatuak izan arren, beste diskriminazioei, legez kanpokoei barne, zilegitasun-eremua zabaltzen die”* (De Rudder, V., Poiret, C., Vourc’h, F., 2000, 64. or.).

Ondorioak izugarriak dira. *“Estatu nazionala eta Estatu soziala erlazionatzeak nazioaren eta proiektu politiko komunaren arteko lotura laxatzen du, eta nazioaren eta diru-onuren banaketaren artekoa estutzen. Azken horrek, baina, atzerritarren ganako etsaitasuna areago dezake. Hortaz, esan daiteke xenofobia, immigratuek ‘pareko’ egoera lortzea ukatzea dela, ez baitira ‘parekotzat’ jotzen. Logika xenofoboa atzerritarren gizarte-lorpenak ez-legitimo*



*bihurtzean datza, eta gizarte-banaketaren mekanismoak immigratuei zabaltzea ukatu egiten dela adierazten du.*” (Margarita Sanchez-Mazas 2004, 117. or.). Immigratuenganako etsaitasuna gidatzen duena ez da, beraz, pribilegioak gordetzeko xedea, baizik eta besteek pribilegioak lortu dituzten us-tea: *“Laburbiltzeko, zuek eskubideak dituzue; haiek, pribilegioak. Sinesgaitza dena da irizpide guztien arabera gehiago zaretela, baina gutxiago sentitzen zaretela. Salbuespenezko bide horri jarraituz, zuen iritziz, gehiago zinetenak gutxiago bihurtu zaituztena da atzerritarra, zuen eskubideak bere pribilegio bihurtzen dituen”* (S. Moscovici, 1984-1985, 182. or.). Nazioko herritarrak eta atzerritarrak elkarrekin dira, elkarren ondoan bizi dira, baina lehenek daukatena bigarrenekin banatzeari uko egiten diote. Eskubideak izatean da, era abstraktuan, atzerritarra arrotz.

W. Doiseren iritziz (1976), azterketa-mailak ezberdintzea komeni da; izan ere, atzerriko gizabanakoak afiliazioaren eta soziabilitatearen problematikan sartuta daude, baina, aldi berean, gizabanako horiek berak, taldekide gisa, “eskubideei buruzko iritzien” ikuspegi politikoan sartzen dira; eta azken hori bozkatzeko portaeretan azaleratzen da. Afiliazioa pertsonen arteko erlazioei dago-kie, eta iritzia politikotasunean sartutako taldeei. Gizarte-kategoria gisa, “irudimenezko talde” gisa dago-kie atzerritarrei iritzi politiko.

M. Sanchez-Mazasen aburuz (2004), gizarte-psykologiak bi mugimendu bereizten ditu, egun-go Europako herrietako arrazismoaren fenomenoak ulertzen laguntzeko. Lehenak, jatorriz Amerika-

koak, azken hamarkadetan arrazakeriazko jarrerek izan duten aldaketa agerian jartzen du; izan ere, garai batez era irekian adierazten baziren, orain era gordeagoan adierazten dira. Hala, ikerlariak pertsonak aurreiritziak ezkutatzeko erabiltzen dituzten prozesuak nabarmentzen dituzte. Bigarren mugimenduak ez du arrazakeria zuzenean planteatzen; prozesu psikosozialak oro har identifikatzen ditu, eta, bereziki, taldeen arteko lehia sinbolikoa, norbere taldea era baikorrean nabarmentzeko helburuarekin (Tajfel, H. & Turner, J. C. (1979, 1986); lehia hori arrazakeria-egoeretan gertatzen diren taldeen arteko gatazka-harremanetan ere egoten da. Hala ere, M. Sanchez-Mazasen ustez (2004), bi mugimendu horiek ez dute nahikoa kontuan hartzen prozesu psikosozial horiei dagozkien kategorien jatorri politikoa. Bestela esanda, dimentsio politikoa arrazakeria mota gisa identifikatu daitezkeen prozesu psikosozial bihurtzen dute.

Hori dela-eta, M. Sanchez Mazasek (2004), arrazakeria eta xenofobia aztertzeko, besteren artean, Honnethen ezagupenerako borrokaren teoria erabiltzen du; horren bidez, bazterketa mota modernoak azalerraten ditu, baita mekanismoan sartzen diren dimentsio psikosozial eta politikoa ere; eta, aldi berean, nabarmentzen du gizarte modernoaren arazoa, hain zuzen ere, ezagupena falta izan daitekeela dela. Arrazismoa eta bere adierazpenak ulertzeko, ezinbestekoa da atzeritarraren eta nazionalaren oinarritzko kategoriak kontuan hartzea. Immigrazioaz ari garenean, nazionalaren eta ez-nazionalaren arteko erlazio-dinamikak agerian uzteko, atzeritarraren irudiaren eta Bestearen

irudiaren artean zer ezberdintasun dagoen zehaztu behar da; eta ezberdintasun hori zertan datzan zehazteko, bi irudiak eraikita daudela kontuan hartu behar da.

Lehenik eta behin, M. Sanchez-Mazasek (2004) Bestearen, atzerritarraren gizarte-eraikuntza ezartzen du; izan ere, atzerritarraren nozioa ezinbestekoa da barneratze eta kanporatze mekanismoak eta “autoktonoak” ez diren populazioenganako talde-portaerak ulertzeko. Alteritatearen esanahi modernoa hau da: ezarritako zatiketetatik kanpo gertatzen den prozesu eta produktu psiko-soziala. Bestearen irudi modernoa gizarte-ezagupenaren eremutik dator; atzerritarraren irudi modernoa, aldiz, zuzenbidetik. Bestearen eraikuntza kanpoko talde baten aldibereko eraikuntza eta baztertze-prozesu psikosozialek osatzen dute; prozesu horiek era informalean adierazten dira eta taldeen arteko erlazio asimetrikoa birsortzen dute. Nortasunaren nozioak alteritatearen paradoxa aska dezake, nonbait. Bestea ezin bada ez Beste gisa, ez pareko gisa kontuan hartu, “gu” nortasuneko ohiko ezaugarrietan oinarrituta eraikiko da. Baina ezaugarri horien kontrakoak hartuko dira, Gu horri dagozkion eta mugak ezartzeko balio duten alderdien kontrakoak. Haiei Gu horren alde txarrak esleituko zaizkie. Baitezpadako Gu horiek eta Haiek-ek, kultura bat eta garai bat markatzen duten gizarte-aurkaritzen esanahia hartzen dute (22. or.). Beraz, alteritatea taldeko eta muturreko ukapen moduan definitzen da, gizarte-ezagupenaren esparruan –gizarte-estimuairenean–. Atzerritarraren gizarte-eraikuntza, berriz, ezagupen

juridikoaren ukapenaren ondorioa da. Erakunde-prozedurek osatzen dute; izan ere, nazionalaren eta ez-nazionalaren artean zuzenbidean oinarritutako ezberdintzea baitago.

Egungo gizartean, M. Sanchez-Mazasen iriziz, gizarte-ezagupenaren problematikak –edo gizarte-estimua esleitzearenak– aurreko ezagupen juridikoarena –edo eskubideak esleitzearena– ordezkatu du (88. or.). Eskubide politikoak lortu eta “parekoen komunitatean” sartu ostean, immigranteak gizarteko kide guztiei dagozkien irizpide berekin hartzen dira; hau da, pertsonen eta taldeen gizarte-estimua esleitzeko oinarri hartzen den “balioen komunitateak” ezaugarri dituen irizpideekin (88. or.). Hori dela-eta, gutxiengoak ez dira balioen komunitatearen ordezkari “onak”. M. Sanchez-Mazasen ustez, Europa talde arteko egoeran dago (“inter-taldeko” egoeran); hau da, bereizketa kultura-ezberdintasunen arabera egiten du. Ez dago, beraz, “intrataldeko” egoeran (talde barneko egoeran); hau da, etika komunitik aldentzeagatik gizarteko kide okerrak baztertzen dituen egoeran (138. or.). Gu eta Haiek –nazional eta ez-nazional– entitateen arteko ezberdintze-prozesu hori, garatzeko, nazioetan atzerritarrek herritartasuna lortzeko ezarritako erakunde-gailuetan oinarritzen da (90. or.).

Nazionalitatea nahi duten pertsonak betebeharrak bikoitza dute: herritartasunaren oinarri formalak betetzea, hau da, dimentsio juridikoa (lortua ala berezkoa), eta erlazioen arabera herritartasun-eredu ezberdinak sortzen dituzten herritartasunei dagozkien betebeharrak kulturalak betetzea (barne-

ratzaileak ala kanporatzaileak) (129. or.). Bestela esanda, dimentsio kulturala eta juridikoa (oinarri formalak) elkartzean ezberdintzen dira herri bakoitzeko erreferentzia-esparruak (129. or.).

Hala, immigratuak hartzen dituen herri bakoitzeko erreferentzia-esparruen ondoriozkoa da Europako herrietako arrazismoaren adierazpenen aniztasuna, baita herri batean emigrazioari begirako kolektiboen heterogeneotasuna ere.

Izan ere, konklusio gisa, erreferentzia-esparru bat baino gehiago egoteak M. Sanchez-Mazasek “ezagupenaren ukapena” izenpean aztertzen dituen baztertze motak ugaritu egiten ditu (86. or.).

Gutxiengoak berdintasun formala lortzeak gizarte-estimua alorretan duen ezagupenari buruzko hausnarketa sortzen du. Baina gizarte-estimua ukatzeak lortutako berdintasunaren eze-gonkortasuna azaleratzen du (234. or.).

## **2. Trantsizioari buruzko teoria psikosozialaren ekarpenak**

Trantsizioaren planteamendu psikosoziala oso baliagarria eta eraginkorra izan da emigrazio-fenomenoak aztertzeko. Baina zer da trantsizioa? Nola heldu ziren trantsizioaren auzia planteatzera? Bada, garapenaren psikologiak aldaketan aniztasuna zehaztua zuen. Garapen-prozesuetan gertatzen diren aldaketak kantitatezko hobekuntzat edo kalitatezko hainbat aldaketatzat jotzen ziren. Eta, berehala, etendurazko aldaketa nabarmendu zuten. Hala, aldaketa eta erregulazio-prozesuen psikologiak (J. Guillaumin, 1975) “krisi” egoerako

egoera psikosoziala zehazten lagundu zuen. Eta krisiak sistema pertsonalaren erregulazioen porrot objektiboa adierazten du. Sistemak bere burua erregulatzeko gaitasuna galtzen du, edo bere osagaiek ez dute gehiago elkar erregulatu. Eta etendura azaltzean, arazoaren konplexutasuna antzematen da. *“Porrota hiru mailatan planteatu daiteke: 1) lehen egonkorra zen eta hondatu den gizabanako bi edo gehiagoren mailan (norbanako artekoa edo pertsona artekoa; inter-indibiduala edo inter-pertsonala); 2) maila ‘apalago’ edo ‘sakonago’ batean (intra-pertsonala edo pertsona barnekoa), hau da, krisian dagoen pertsonaren edo krisian dauden pertsonen funtzionamendu indibidualen instantzia, modalitate edo prozesu zenbaiten arteko sistema-erlazioetan; 3) azkenik, maila ‘altuagoan’, hau da, bikote edo pertsona-talde bi edo gehiagoren arteko erlazioetan, edo haien eta talde handiago baten artekoetan (maila supra-trans-pertsonala)”* (J. Guillaumin, 2004, 22-23 or.).

Gatozen berriro etendurazko aldaketaren trantsiziozko psikologiara edo, D. W. Winnicottek izendatu bezala, trantsiziozko eremura (1951/1971). Lehenik eta behin, bitartekoa sartzen da jokoan, Kaësen arabera. *“Eta bitartekoa, ezer baino lehen, komunikazio-instantzia da: Ari eta Briri dagokiena, komunean dituzten osagaien bitartez; bi osagai bereizi, etenen artean, bien arteko tartean, bitartekoa arartekoa da, mantendutakoaren/bereizitakoaren arteko hurbilketa; hala, ezberdintasuna giltzatzeko instantzia da, sinbolizazio-eremua. Azkenik, bitartekoa gatazkatze-instantzia da; hau da, antagonismoen oposiziozkoa. Hiru ezaugarri horien*

*bidez, bitartekoak mantendutako etenduran zubia, igarobidea sortzeko, berriz hasi arazteko funtzioa du. Nolabait esateko, subjektuari dagokionez, krisia, giltzatze horren hutsegiteetan dago*” (R. Kaës, 2004) (13 or.).

Parkesek (1971) honela definitzen ditu trantsizio psikosozialak: *“bizi-eremuko aldaketa nagusiak, ondorio iraunkorrak dituztenak, nahiko epe laburrean gertatzen direnak eta munduaren irudipenari funtsean eragiten diotenak*” (49. or.), baita pertsonak beren buruaz dituzten irudipenak ere. (120 or.).

Parkesen iritiz (1971), bizi-eremua Niarekin elkarrekintzan dagoen eta portaeraren antolaketa baldintzatzen duen munduko zatia da: Besteak, ondasun materialak, etxeko eta laneko ohiko eremuak, pertsonaren gorputza eta pentsaera. Aldaketez bizi-eremuan duten garrantziaren arabera da munduaren irudipenean duten eragina. Munduaren irudipena munduaz ezagutzen dugun bakarra da, eta ezagutzak, iraganaren interpretazioak eta etorkizunerako itzaropenak barne hartzen ditu, baita bizitza-planak eta aurreiritziak ere. Bizi-eremuan aldaketa dagoenean, horietako batzuk edo denak aldatzen dira (103. or.). Aldaketa batzuek munduaren irudipenean aldaketa txikia eragiten dute, edo ez dute aldaketarik eragiten; besteak, aldez, munduaren irudipena erabat berregituratzen dute; hau da, hainbat irudipen desegin eta berriak garatzen dituzte, pertsonak bizi-eremu berriari aurre egin ahal izateko. Munduaren irudipena berregituratzeko, askotan komeni da aldaketa pixkanakakoa izatea, bat-batekoa eta ezustekoa baino.

Hala, heltzea ia-ia ez da benetako aldaketatzat jotzen; ustekabeko galerak, berriz, trantsizio nagusitzat jotzen dira.

Pertsonak benetako atxikimendua dute beren munduaren irudipenarekiko; hau da, irudikatu duten munduarekiko. Gizabanakoak bizi-eremua ezagutuz eta ingurumenarekin harmonian erreakzionatzen ikasiz bereganatzen du bizi-eremua. Pertsonak “nire” (*mine*) dei dezakeen guztia –nire lana, nire sorterrria, nire ezkerreko besoa, nire emaztea– neurri batean, bere baitako bihurtzen da (*self*), lotura afektiboz lotuak baititu. “Lotura afektibo” horiek bizi-eremuan egon daitezkeen etendura edo aldaketa guztiak gainditzen dituzte. Hortaz, aldaketak ohizkoa dugun bizi-eremuko zati bati uko egitera behartzen gaituenean, gehienetan, aldaketa-erenganako erresistentzia erakusten dugu.

Psikosoziologoek (Parkes, 1971) honela definitzen dituzte trantsizioak: galera, dolu, etendura edo krisi-egoerak, pertsona-harremanetan, familia-ingurumenean (emigrazioan barne), ondasunetan, gaitasun fisiko eta mentaletan, eginkizunetan eta estatusetan aldaketak eragiten dituztenak. Bizi-eremuko aldaketa gehienek, besteek baino gehiago, munduaren irudipenaren zati bati eragiten diote. Hala ere, Parkesek dioenez (1971), heltzea, pixkanakako aldaketa prozesua den heinean, ez da trantsiziotzat jotzen, munduaren ikuspegia ez duelako aldatzen, ezta bizi-eremuari aldaketa nagusirik ekartzen ere (49. or.). Hala, heltzearen trantsizioa –neurritz handitzea, itxura aldatzea, etab.– doi-doi jotzen da aldaketatzat; aldiz, lanpostua galtzea, an-



dreak alde egitea edo immigratzea trantsiziotzat jotzen dira (103. or.).

Migrazioari dagokionez, Parkesen iritziz (1971), espetxeratzearen fenomenoak bezalaxe, migrazioak pertsona-harremanetan eta familia-ingurumenean aldaketak eragiten ditu eta aldaketa horiek subjektuaren mundua aldatu egiten dute. Migratu aurretik, langileak hainbat eta hainbat irudipen eraikitzen ditu aurrean izango dituen egoera berriez. Bertara heltzean, irudipen horien eta errealitate berriaren arteko parekotasunen araberakoak izango dira bai subjektuak aurre egin beharko dien aldaketen kopurua (*coping*), baita aldaketen kalitatea eta edukia ere. Langilea ingurumen berrira heltzen den unea, hau da, immigrante bihurtzen den unea, une dramatiko eta kritikoa da. Askotan, lehen iritziek iraun egiten dute eta egokitzapen-moduak neurritz kanpo baldintzatzen dituzte. Garai horretan eragiten dio gehien aldaketak “munduaren irudipena”-ri; eta, garai horretan, migratzen duen pertsonak aukera egin behar du: aurreko bizi-eremuaren osagaiak ahalik eta gehien gorde, ala era kontzientean antzematen eta intuitzioz ezagutzen dituen aldaketen arabera aldatu (108 or.). Askotan, immigrantei oso zaila izaten zaie trantsizioa lortzea, eta askotan desengainua hartzen dute “agindutako lurraz” zeukaten eredu idealaren eta bizi duten mundu berriaren arteko alde handitasunaz eta kopuruaz (kalitatea eta kantitatea) konturatzen direnean (104. or.): ((Familia-objektuak ezagutzeko eta ingurumen jakin batean orientatzeko gaitasuna (*ability*) izateko, ingurumena kontrolatu beharra dago, edozein izanda ere

egoeraren kontrol eta aldaketa aktiboen maila. Pertzepzioan, osagai “aktibo” bat dago. (“Hango” objektu baten zentzumen-sentipena “hemengo” antzeko objektuek eragindako sentipenekin eta kanpoko objektuaren ezaugarriei eta portaerari buruzko iragarpenekin konparatzen da (...). Pertsona bizi-eremuan ez da pasiboa: munduaren irudipena sortu egiten du, bere ingurumenean oinarrituz; bizi-eremuaren arabera erreakzionatzen du, bertan mugituz, gordetzeko ala aldatzeko).

Parkesen ustez (1971), trantsizioak ez dira egoerak, prozesuak baizik. Prozesu dinamikoak dira eta trantsizioa bizi duen subjektua aktiboa da. Nortasunaren aldaketarako prozesu psikosozialak dira.

Kaäsek (2004) honela definitzen du trantsizionaltasunaren kontzeptua: *“jarraipenean etendura-esperientzia baten eraketa”* da, eta *“etenduraren eta josturaren artean”* dago; hala, jarraitutasunaren iraunkortasuna hobeto ulertzen laguntzen du. Hala, trantsizio-eremua zerbaiten etenduran egoitearen esperientzia gertatzen den lekua da. Bizi duten trantsizioa *“galera seguruen eta zalantzarako lorpenaren arteko tarteari”* dagokio (21 or.). Trantsizio-eremuan oreka berriak gerta daitezke, ordena berri bat sor daiteke; izan ere, *“sinbolizazioa eta sormen-ahalmena”* baitakartza.

R. Thomek (1976) garrantzi berezia ematen dio krisia erabat subjektiboa izateari. Hau da, krisia, pertsona baten edo pertsona-talde baten erregulazio-mekanismoen aldi baterako asaldatzea litzateke. E. H. Eriksonen (1968) krisien bi eragile mota bereizten ditu: batetik, kanpoko eragileak;

hau da, ingurumeneko gatazka-egoerari dagozkionak. Kasu horietan, badaiteke objektu normal bat falta izatea, edota objektu bat baino gehiago ego-  
tea aukeran eta horien aukerak joera antagonistak sortzea. Bestetik, krisiak barne-eragileak izan ditzake (garapen-krisia): hau da, hazkuntza bitartean erregulariki sortzen direnak.

Kaäsek (2004) krisiaren alderdi subjektiboa aztertu zuen batik bat (eguneroko martxan haustura gisa jotzea) eta saiatu zen zehazten zer gertatzen den norbere jarraipenaren, norbere taldeari dago-  
kion kodea galtzearen eta beste ingurumen batean lotura berrien zalantzazko lorpenaren arteko tarte horretan.

Kaäsen hitzetan (2004), “*bizitzan eta bizitzeko beharrezkoak ditugun krisiak ez dira soilik krisi pribatu, intimo, bakarkakoak. Jakina, krisiek determinismo propioa, irtenbide eta esanahi berezia dituzte banakako subjektuaren psikearen egituran. Baina krisi batzuek subjektuak hautazko ala inposatutako objektuz osatutako bere ingurumenarekin duen harremanean dute zergatia*” (2 or.). Krisian dagoenean, gizabanakoak nortasuna garatzeko aukera bizi du, baina, aldi berean, buruko gaitza izateko arriskua ere handitzen zaio. Erronka nagusia da krisia baikor gainditzeko baldintzak martxan jartzea; hau da, subjektuaren sormen ahalmena baimentzen duten baldintzak: “*sormena krisiaren osagai hilgarrien bizi-alternatiba da*” (5 or.).

Kaäsek (2004) bi krisi eta gatazka mota bereizten ditu: intrapsikikoa eta soziokulturala (52 or.).

Krisi edo gatazka intrapsikikoari dagokionez: “*prestatzea leku horretan ahulduta dagoen norbere*

*irudia, nartzisismoarena, zalantzan jartzea da; hain justu, irudi horrek berriz hastea, birmoldatzea eta Niaren Idealari indarra ematea eskatzen du. Niaren Idealaren eredia gure lehen prestatzaileak izan zirenen zati idealizatuen introiektzioak ematen du” (52 or.).*

Krisi edo gatazka soziokulturalari dagokionez: *“prestatzea gizarte eta harreman kode bat eta, askotan, talde bateko kideetasuna galtzea da, egokiagoztat jotako bat lortzen saiatzeko. Kode eta harreman-egitura batetik beste kode eta harreman-egitura batzuetara igarotzean egoten den trantsizio-tartea gatazkatsua da, eta hala izan behar du, gainditu ahal izateko. Baina horretarako, gatazka-figurazioak posiblea izan behar du, krisiaren osagaiak eta irtenbide-osagaiak esploratu ahal izateko, subjektuari eta bere trantsizio-eremuari kalterik egin gabe” (53 or.).*

Kaäsen iritziz (2004), trantsizio-tarteak gatazkatsuak dira trantsizioan dauden pertsonentzat. Izan ere, aurreko kodea uzteak ordura arte taldeko kideentzat irudipen eta jarrera komun eta egonkorren eredia osatzen zuenarekiko loturak haustea dakar... Eta trantsizio-hutsune horretan, trantsizioan dauden subjektuek kode berria ez dute oraindik lortu. Trantsizioan dauden pertsonak dilema horri aurre gin behar diote: aurreko taldera itzultzea eta lehengo kodea berreskuratzea, ala kode berri bat eta gizarte-harreman berriak berenganatzea. Bi kasuetan, subjektuek bazterketaren mehatxua sentitzen dute, kultura egokiko kodea ez barneratzearekin lotuta. Lehen kasuan: komunikatzea ez gehiago lortzea; eta bigarrenean: talde berriak intrusio eta eraso arriskutzat jotzea. Immi-

granteek, nerabeek eta haustura soziokulturalean dauden pertsonen hori bizi dute (54 or.).

Trantsizio-tarteak izendatzeko, Kaësek (2004) “trantsizionaltasun” terminoa proposatzen du, eta horrela definitzen du: *“bi egora subjektiboren arteko igarobide (trantsizio) esperientzia eta prozesu-eremua: trantsizionaltasuna jarraitutasunean haustura-esperientzia bat antolatzean datza. Bestalde, jarraitutasuna eta Norbere eta ingurumenaren zuzentasuna eta konfiantza berriz ezarriko diren zailantzazkoa izatea ere trantsizionaltasunaren bereizgarria da”* (62 or.).

Trantsizionaltasunaren kontzeptuaren bidez, hausturaren esperientzian batasun-sinboloak berrezartzea posible egingo duten baldintzak antzeman daitezke. Trantsizionaltasunaren berezitasun bat hiru moldatze-moduren arteko oszilazioa edo txandaketa izan daiteke (62 or.).

Lehen modua *“subjektuak tarteko egoera horretan duen asmatzeko (aurkitzeko/sortzeko) gaitasuna”*-ri dagokio (D. W. Winnicottek balizko eremu eta aldi baterako green denboraldi deitzen dio, denbora hilarekin kontrajarrita (62 or.).

Trantsizionaltasunaren bigarren modua hau da: *“eremu huts bat sortzea; hau da, ezerezaren eta heriotza fisikoaren denboraldia, iraganaren, bilakae-raren eta nortasun-kode eta sareen deuseztatzea dakartzan orainaren arteko talkaren denboraldia”* (62 or.).

Hirugarren moduaren berezitasuna da *“objektibo eta objektu bihurtutako eremu bat sortzea; hau da, denbora osoa, osoegia, hutsunerik gabea. Denboraldi horretan, batzuetan, objektuak, errealitateak*

*eta Besteak eremu osoa hartzen dute, betetzeraino; besteetan, berriz, subjektibotasun eroa da nagusi. Moldatze-modu hori egiturarena eta fetitxizazioarena da” (62 or.).*

Kaësentsat (2004), trantsizionaltasunaren hiru moldatze-modu horiek une artikulatuak osatzen dituzte, eta horien mugetan ibiltzen da subjektua bere buruaren bila, bertan deformatzen da, eta bertan eraikitzen: segidako deszentratze horietan, bazterrean (63 or.).

Kaësek (2004) zera proposatzen du: trantsizioaren azterketa praktika psikoanalitikoaren barne izatea, bi egoeraren arteko haustura-esperientzia eratzeko hausnarketa-lanerako beharrezkoak diren baldintzak sortzen dituena. Baldintza horiek sortzeko, kokaleku eta edukiontzi funtzioak ezarri behar dira.

Inguruaren funtzioa: Blegarren iritziz (1966, Kaësek 2004an aipatua), ingurua nortasunaren antolaketa primitiboena da, eta gutxien desberdindutakoa... Ingurua presentzia etengabea da, eta ingururik gabe Niak ezin du ez eraiki, ez garatu Aldaketa gertatu ahal izateko beharrezkoa den etengabetasunaren barne da. Inguruaren ezaugarrietako bat da instituzio gisa pertsonaren nortasunaren zati bat dela; *“nortasuna beti da, erabat edo neurri batean, instituzionala; izan ere, nortasunaren zati bat, gutxienez, eraikitzen da talde, instituzio, ideologia, alderdi eta abarreko kideetasunaren arabera” (66 or.).*

Edukiontzi funtzioa: kokalekua nortasunaren zati higiezin eta egonkorra dela esan dugu; pertsonaren alde psikotiko eta sinbiotikoaren gorda-

ilua da. Bada, edukiontzia euskarri horren alderdi aktiboa da. Krisian dagoen subjektuaren ondarea eta proiektzioak era aktiboan hartu, eduki eta aldatzea onartzen duen pertsona orok bete dezake edukiontzi-funtzioa. Migratzen duen pertsona batek solaskidea aurkitzen duenean, adibidez, hori gertatzen da (71-72 or.).

Laburbiltzeko, esan daiteke trantsizioa, pertsonak duen iraganaren berri izatearen eta zalan-zako etorkizunaren arteko “tartea” dela. Bestela esanda, trantsizioa hausturak dituen igarotze-unez osatua da. Hala ere, Kaësen iritziz (2004), trantsizioa ezer baino lehen egoerazkoa da, eta pertsona-taldearen bermearen bidez eraikitzen da. Parke-sen iritziz (1979), aldiz, trantsizioa prozesua da eta ez egoera. Trantsizioa subjektua aktibo dagoen eta ingurunearen eta Besteen sostengua funtsezkoak diren birgizarteratze-prozesua da.

E. Morinek (1976), krisia azaltzeko, sistemen teoria orokorrean oinarritzen da: zibernetika, termodinamika eta hondamendien teorian. Hiru printzipio horiek adierazi ostean, Morin gizarte-sistema modernoak ikuspuntu hirukoitz horretatik ezaugarritzen saiatzen da.

Nortasunen dinamikei dagokienez, subjektuaren jardueren eta horien bizitzako garapenaren sistema-ikuspegiari jarraituko diogu, trantsizio-egoerari aplikatuta. Trantsizio psikosozialak, Baubion-Broye eta Hajjarren iritziz (1998), “aurreikusitako ala ustekabeko, ohiko ala ez-ohiko bizi-gertakarien ondoriozko igarotze-uneak dira; une horien berezitasuna da pertsonen harreman-eta irudipen-ohiturak aldatu edo eten egiten

dira. Trantsizio psikosozialak bat-batekoak edo iraunkorrak izan daitezke, blokeoak edo krisiak eragin ditzaketen pertsonen garapenean; baina, aldi berean, jarrera berriak, proiektu eta balio berriak asmatzera bidera ditzakete. Trantsizio horiek, bizi-iraupenean, anitzak dira. Are zailagoak izaten dira, eta irtenbidea are zalantzazkoagoa dute, gizarte-sistemetan gertatzen diren aldaketa ekonomiko, tekniko eta kultural sakonak direla-eta. Langabezia horietako adibide bat da, beste hainbat trantsizio-egoeren artean” (17 or.).

Ikuspegi sistemikoa hartuz, Baubion-Broye eta Hajjarrek (1998) “jardueren sistema” deritzon eredu proposatzen dute. Eredu horren helburua da “fenomenoak harreman gisa aztertzea, eta ez harremanen ezaugarri eta aldaketa gisa. Hala, portaeren (edo jardueren) egitura deskribatzeaz gain, subjektuen ontogenian eta gizarteratzean portara (edo jarduera) horiek besteekin lotzen (osotasunean) eta ezberdintzen (azpi-sistema partikularretan) dituzten prozesu psikologikoak aztertu ere egin behar dira” (Baubion-Broye eta Hajjar, 1998).

Baubion-Broye eta Hajjarren iritziz (1998), “subjektuek gizarteratzeko ingurunean eta unean egindako (edo proiektatutako) jarduerak sistema osatzen dute. Sistema horretan, hainbat azpi-sistema edo bizi-arlo daude (familiakoa, lanekoa, pertsonala eta soziala), aldi berean *nahiko autonomoak* eta *elkarren menpeko* direnak beren funtzionamenduan eta jardueren antolaketan bertan”.

*Nahiko autonomoak*, batetik; izan ere “azpi-sistema bakoitzak helburu, betebeharrak, baliabide, erregulazio eta kontrol-modu bereziak ditu”



(Baubion-Broye eta Hajjar, 1998). Azpi-sistema bateko jardueren koordinazioa *ekintza-ereduak* egiten du (kontrolatzeko tokiko instantzia da). Izan ere, subjektuak, helburuen hierarkia eginez, jarduerak arlo jakin batean antolatzen ditu (bizi-arloen erregulazioa ekintza-ereduak egiten du; hala, azpi-sistema bakar batean helburuak hierarkian antolatzen ditu).

*Elkarren menpekoak*, bestetik; izan ere, “*sistema orokorra osatzen duten jardueren artean, motibaziozko, informaziozko eta materialezko trukeak gertatzen dira*”. Hala, jarduera azpi-sistema edo bizi-arlo bakoitza besteek funtzionatu ahal izateko baliabidea ala oztopoa izan daiteke. Baubion-Broye eta Hajjarren iritziz (1998), “*Horrek esan nahi du bizi-arloen arteko trukeak eta transferentziak, nahiz eta sozialki araututako erregulazioen arabera izan, ez direla subjektuek beren jarduera ezberdinei ematen dieten balioen eta esanahien eraginik gabe gertatzen*”. Sistema orokorrari dagokionez, *bizi-ereduak* (kontrol-instantzia zentralak) arloen arteko trukeak kontrolatzen ditu, jardueren elkarrenganako esanahiaren bidez; hau da, subjektuak arlo bakoitzari ematen dion esanahiaren eraginaren bidez.

Bizi-eredua azpi-sistemen arteko erlazio-antolatzailea da, eta hainbat funtzio ditu (Baubion-Broye eta Hajjar, 1998):

- azpi-sistemei dagozkien ekintza-ereduen arteko lotura egitea.
- bizi-arlo bakoitzeko helburuak aukeratzeta eta hierarkian antolatzea, subjektuak ematen dien garrantziaren arabera.

- azpi-sistemen arteko jarduera-trukeak kudeatzea eta koordinatzea, trukeak aktibatzen (eta elkarren arteko mendekotasuna areagotzeko) ala murrizteko (beren funtzionamendua bereizteko, eta beraz, nahasmenduaren ondorioak azpi-sistema guztietara ez hedatzeko, edo beren hedapena murrizteko).

Baubion-Broye eta Hajjarren aburuz (1998), truke horiek egiteko unean, subjektua aktiboa da. Lan psikiko hori jardueren elkarrenganako esanahian datza; nortasun pertsonal eta sozial positiboa eraikitzen (ala mantentzen) estrategia sozio-kognitiboak eta afektiboak martxan jartzea suposatzen du.

Idazleek nabarmentzen dute trantsizio-egoeran subjektuen jardueren aldaketa-prozesuak aztertzearen nahitarako aukerak suposatzen duela neurtzea bai sistemako “barne”-trukeak (pertsonalak), baita sistemak beste sistema batzuekin (besteekin) dituen “kanpo”-trukeak ere. Hortaz, ezinbestekoa da pertsonen arteko harremanak kontuan hartzea, subjektuak beren jardueren artean erlazio berriak sortzera eta beren buruaren irudipen berriak sustatzera bideratzen dituzten strategiak eratzeko.

Bestalde, Almudeverren iritziz (1998), pertsonen arteko harremanek garrantzi berezia dute trantsizio-egoerak eratzeko eta gaitzitzeko orduan. Pertsonak baliabide intra-pertsonalak, (persona-barnekoak) erabiltzen dituzte (kontrol-sentimenduak, norberetzeko estimua), eta aurre egiteko estrategia bereziak martxan jartzen di-

tuzte. Bada, estrategia edo portaera horiek ez dira “hutsune sozialean” eraikitzen, subjektuek besteekin dituzten harremanetatik kanpo. Besteekin eraikitzen dira; hau da, ingurumeneko pertsona adierazgarriekin (familia, lagun eta lan-arloetako pertsona garrantzitsuekin), baita laguntza eta sostengu-iturri formalagoekin ere (sindikatu, elkarte eta gizarte-langileekin). Besteek laguntza eta sostengua ekar dezakete; ala, alderantziz, subjektuak dituen helburuei oztopo egin; azkenik, Besteak konparaketa sozialen objektu ere badira (112 or.).

Beste puntu bat nabarmendu zuen D. W. Winnicottek (1951/1971); izan ere, bere ustez, jarraitutasuna kultur oinordetzak betetzen du. D. W. Winnicotten iritziz, kultur oinordetza gizabakoaren eta bere ingurumenaren arteko balizko eremuaren luzapena da. “*Kulturak lotzen ditu kode psikiko pertsonala (identifikazioen, amets pertsonalen eta objektuen eta defentsa-sistemen egitura) eta kode soziala (pentsaera, balio, jendetasun eta mentalitateen sistema)*”. (D. W. Winnicott, 1971, 137 or.). Hausturaren esperientziak agerian jartzen du kultur oinordetza ez dela gehiago bizitzaren jarraitutasuna betetzeko gai. Hori gertatzen zaie immigratuei. Hori azaltzeko, R. Kaësek (2004, 30 or. eta ondokoak) Catanik transkribatutako *Journal de Mohamed* aipatzen du (1973). Mohameden migrazioa ezinbesteko nazionalitatearenganantzko bidaia da; beraz, objektuekin ezin du inongo erlazio ludikorik izan. Mohamedek, existitzeko, Bestearena izan beharko lukeen objektuaren araberrako izatera behartzen du bere burua; eta taldeetan eta

gizarteetan duen lekua besteek ematen diotena da. R. Kaäsen iritziz (2004), “Mohamedentzat, trantsizioan dauden guztientzat bezalaxe, taldea (lanekoa, lagunena), subjektibotasunaren eta kodearen arteko bitartekoa baino lehen, hau da, ingurumen berria izan baino lehen, esleipenik gabe egotearen funtsezko beldurraren kontrako babesba da: norbere buruari leku bat esleitzea eta talde batek leku bat esleitzea da norberarentzat eta besteen-tzat existitzea (subjektu izatea), nahiaren esparruan. Zergatik hartzen du trantsizioan dagoen pertsonak, gehienetan, parekoen artean lekua? Ilusioaren esparruak funtzionatu ahal izateko, hau da, bat etortzearenak eta bi egoeraren arteko tartearenak” (31 or.). Gainera, *“immigratuentzat, kodea galtzea edo kidesun-taldetik baztertua izatea heriotza-arriskuan jartzea da. Ondorioz, energia deslotuak, askeak, gehiegizko energiak, pultsiozko oldartzearen beldurra eta energiaren erabilerari buruzko zalantza eragiten ditu”*. (35 or.). Hala, hau esan daiteke: “beraz, ingurumenaren, Niaren eta kodearen segurtasunak porrot egiteari ingurumen “hartaile”-ren segurtasun-falta gehitu behar zaio, nahiz eta ingurumen-hartaile, harrera ona egiteko, hau da, nahikoa edukiontzi ona izateko antolatatu. Segurtasun-faltaren jatorrian hiru fenomeno daude: batetik, atzerritarrenganakoa, bestelakoa den eta Beste gisa identifikatu gabe dagoenarenganako arbuio, susmo edo eraso-erreakzioa. Bigarrenik, Bestearen portaeraren ustekabekotasunak ere arbuioa eragiten du, eta azkenean, Besteari ere bere arriskugarritasuna sinetsarazten dio. Hirugarren faktorea beste biek in batera daiteke; Winnicottek

azaldu zuenez, balizko eremua beste norbaitek txertatutakoaz betetzeko arriskuan datza” (35-36. or.). Konponbidea talde-rola askatzen ikarotzen da edo eta banakako krisiak finkatzen zeinak krisiaren ikuspegi banakor ororen ahulezia bistaratzen baitu. “Gizarte tradizionalen aldaketaz etnologo eta psikiatra sozialek proposatutako analisiak nahiko gertutik azaltzen dute hori eta krisi-egoeran izaten diren gizabanakoen eta taldeen arteko erlazioak –batez ere krisi soziala eta krisi indibiduala bat datozenean– argitzen dituzte, baita irudipen-sistemek duten eginkizuna ere”. (38 or.).

Azken galdera honen bidez, gure ikerketa-helburuen ikuspegi nagusiarekin lotura egin nahi dugu: zein zatiri buruz aurreratu da kultura-arte-kotasun eta migrazio-prozesuen trantsiziozko psikologia sozialaren arloko ikerketa? Kultura-arteko psikologiak kulturak aurrez aurre ezartzearen ondorioak aztertzen ditu, batez ere; hortaz, zehaztasunak ematen dizkigu, deserrotzean murgilduta dagoen subjektua eta izan dezakeen trantsizio-portaera definitzeko. Besteren artean, hiru idazle gomendatzen ditugu, arlo horretan egin dituzten ikerketak direla-eta:

C. Camillerik (1990) immigrantei egokitzea ahalbidetzen dieten bi mekanismo aipatzen ditu: 1°. tradizionalismo irekiaren defentsa. Horri esker, portaera zaharrak gorde daitezke, “sakratu”-tzat jotako jatorriko balioak askatuta; 2°. transposizioa; hau da, subjektuak jatorrizko balio bati erreferentzia egiten dio, portaera berri modernista janzteko.

C. Clanetek (1990), kultura arteko dinamika-  
ren paradoxan oinarrituta, hauek nabarmentzen  
ditu: 1°) dauden sistemen aldaketa-mugimendu  
bat dagoela, sistemen arteko elkarrekintzek era-  
gina; 2°) sistema horiek mantendu egiten direla,  
bakoitzak bere nortasuna babesteko xedea duela.  
Claneten iritziz, garrantzitsua da subjektuaren  
nortasun-sistema nortasun anitz gisa planteatzea,  
hainbat identifikazioren ondoriozko nortasun gisa;  
identifikazio horiek batzuetan kontrajarrita egon  
daitezke, eta subjektuak inguruan dituen kultur  
taldeetatik hartzen ditu.

Z. Guerraouik (1992) subjektuak migrazio-  
an martxan jartzen dituen prozesu psikologikoak  
kontuan hartzen ditu, eta zehatz deskribatzen du  
nola bizi duen trantsizioa; hau da, itxiera-prozesu  
eta irekiera-prozesu gisa, aldi berean. Kultur alda-  
ketaren ondorioz, Niaren osotasuna babesteko es-  
trategiak martxan jartzen dira.

### **3. Aplikazioa: Trantsizioa, azpi-sistemen arteko truke gisa eta nortasun pertsonal eta positiboa sortzeko gai den prozesu gisa.**

Kultur sistema anitzei aurre egin behar dien  
subjektu psikologikoa ulertzeko, kultur arteko  
planteamenduak ikuspegi berria ekartzen du.  
Hala, pertsonak eredu berrietatik abiatuta beren  
burua nola eraiki edo berreraiki dezaketen uler-  
tzen laguntzen digu eta baita oreka psikikoa nola  
bilatzen eta aurkitzen duten ere. Bakoitza saiatuko  
da bere kultur hautsi-mautsia eratzen, nortasun

koherentea eraikitzeko. Batik bat, kulturen arteko nortasunek eta prestakuntzek eta nortasun anitzek ahalbidetuko die subjektuei berregituratzea.

Trantsizioaren teoria psikosozial horretatik abiatuta, saiatu gara talde immigrante bereko pertsonalizazio-prozesuak eta talde ezberdinetan dauden arloen arteko erlazioak aztertzen (ikus Echepeleacu, H., 2010), Alain Baubion-Broyek 1998an lankidetzan eratutako jarduera-sistemen eredian oinarrituta eta Euskal Autonomia Erki-degoko eta Nafarroako gako-informatzaileen diskurtsoak erabiliz.

Horretarako, ezer baino lehen, azken 10 urte inguruko immigrazioa gogorarazi dugu, eta UNESCOren EAEko egoitzan (UNESCOren etxean) 2007an argitaratutako estatistika-taula berregin dugu, EHUko Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO katedraren eta Ikuspegien laguntzarekin.

	K	%	Estatu-ko-purua	Bertako hizkuntzen kopurua	Europako hizkuntzen kopurua	Estatu/hizkuntza ratioa
Amerika	75.164	48,6	13	5	4	0,38
Europa	45.414	29,4	24	29		1,2
Afrika	27.892	18,1	20	52	3	2,6
Asia	5.838	3,8	9	14	2	1,66
Ozeania	137	0,1				
<b>GUZTIRA</b>	<b>154.445</b>	<b>100</b>	<b>66</b>	<b>100</b>	<b>4</b>	<b>1,54</b>



Gure ikerketaren metodologia gako-informatzaileen lagina sortzea izan da. Ondo hausnartu ondoren erabaki dugu, laginaren helburua ez dela adierazgarritasuna izatea, baizik eta psiko-soziologikoki ahalik eta aniztasun gehien lortzea. Hala, hauek izan dira gure ikerketarako sei gako-informatzaileak: argentinarra, boliviarra, kolonbiarra, marokoarra, errumaniarra eta senegaldarra. Guztiak dira EAEko etorkinen elkarreetako buru eta etorkinak gizarteratzeko euskal erakundeekin lan egiten dute.

Informazioa biltzeko, elkarrizketa erdi-gidatuak egin ditugu. Elkarrizketa-taula sortu dugu, gako-informatzaileen diskurtsoak bideratzeko. Taula aurretik zehaztutako zazpi eremutan banatu dugu: lana, familia, gizarte-sareak, ohiturak, erlijioa, hizkuntzak eta nortasuna.

**Emaitzak** oso adierazgarriak izan dira:

Atzeritarraren ezagupenaren teoriari dagokionez, gako-informatzaileen diskurtsoetan gutxi aipatu dute gai hori. Baina immigrante-talde guztiek aipatu dituzte harrera-gizartean sentitutako ukapenseinaleak, batez ere lanaren, gizarte-harremanen eta erlijio-ohituen arloetan. Hala, talde guztiek aipatu dute lan-arloko ukapena (arlo publikoan), merkaturako eta enplegurako sarbide murrizta dutela eta; halaber, talde gehienek aipatu dute euskaldunen eta etorkinen lan-baldintzak oso ezberdinak direla, nahiz eta marokoarrek eta errumaniarrek adierazi harrera-gizarteko gizarte-eskubideak eskertzen dituztela, beren jatorrizko herrian ez baitaude. Informatzaileen arabera, lan-arloko ezagupen-ukapen mota ezberdinak legez kanpoko lana

bereizgarri dute. Izan ere, agiririk eta, beraz, ezagupen juridikorik ez izan arren, immigrante batzuek lan egiten dute, baina ez dute gizarte-eskubiderik: langabezia, mugimendu-askatasuna eta abar ukatuak dituzte, eta gizarte-ezagupenik ere ez dute (gizarte-diskriminazioa, iruzurra, etab.).

Bestalde, talde batzuek ezagupen-ukapena sentitu izan dutela adierazi dute, gizarte-sareen arloan (hau da, arlo nahiko pribatuan Boliviako, Errumaniako eta Senegaleko taldeek) eta erlijio-ohituren arloan (hau da, arlo pribatuan) (Boliviako, Kolonbiako, Marokoko eta Errumaniako taldeek). Gizarte-sareen arloetan, Boliviako eta Senegaleko taldeek adierazi dute zailtasunak dituztela harrera-gizarteko kideekin gizarte-harremanak sortzeko; lehen taldearen iritziz, aurreiritziengatik eta este-reotipoengatik; bigarrenaren iritziz, berriz, ezjakintasunagatik. Halaber, urrutiko erakunde-sarearen arloan (gizarte-sareen alderdi publikoenean), Boliviako eta Errumaniako taldeek adierazi dute zaila egiten zaiela erakunde publikoekin lan egitea, Eusko Jaurlaritzaren integrazio-planeko helburuetako bat horixe izan arren. Erlijio-ohituren arloan (arlo pribatuan), Boliviako, Kolonbiako eta Errumaniako taldeek adierazi dute zaila izaten dela EAEn eliza ezberdinak ezartzea. Hala ere, talde guztiek lortu dituzte erlijio-zeremoniak egiteko lekuak (Boliviakoak eta Kolonbiakoak katolikoak dira, baina ezberdinak; Errumaniakoak ortodoxo praktikatzailleak, eta Marokokoak musulman praktikatzailleak).

Ondorioz, gako-informatzaileen arabera, euskal gizartean, ezagupen eta ez-ezagupen motak elkarren ondoan daude eta gainjarrita daude. Im-

migranteek hizkuntza ezberdinak erabiltzen dituzte, harrera-gizartearen ezagupenen arabera. Laburbiltzeko, hiru egoera bereiz daitezke: 1) ezagupen juridiko eta soziala duten pertsonen taldea (adibidez, Argentinakoa, gehienek legez jarduten baitute lanean); 2) ezagupen juridikoa duen baina gizarte-ezagupenik ez duen taldea (adibidez, Senegaleko taldea, gizarte-harremani dagokienez); eta 3) ez ezagupen juridikorik eta ez sozialik duen taldea (agiritik ez dutenak, edozein immigrante-talderen lan-arloan jarduten dutenak).

Trantsizio-prozesuei eta prozesuen ondoriozko nortasun-dinamikei dagokienez, esan dezagun, lehenik eta behin, sozializazio pluraleko pertsonalizazio-prozesuari dagokionez, immigranteak azpi-taldeetan biltzen direla, kide-tasun-talde beraren baitan, aurkitu ditugun hainbat adierazleren arabera. Immigrante-talde osoa azpi-taldeetan banatzen da, eta talde bakoitzak akulturazio-prozesu propioa izaten du harrera-gizartearekin harremanetan sartzean, adierazle hauen arabera: ohikoenak “egonaldiaren iraupena” eta “belaunaldia” dira; bestalde, “egoera juridikoa” bi aldiz agertu da, eta “lan-kalifikazioa” eta “harrera-gizartean senideak izatea” behin agertu dira.

Immigrante-taldeei dagokienez, argentinarrek sortzen dute azpi-talde gehien, eta boliviarrak ez dute batere sortu. Aztertu ditugun immigrante-talde guztietan, Argentinakoa da joera indibidualista taldekoa baino hegiago hobesten duen bakarra; hala, erreferentziazko jatorri-taldearekiko identifikazio handia gordetzen du. Etorkin argentinarrek pertsonalizazio-prozesu ezberdinak izaten dituzte,

adierazleen arabera. Boliviarren taldeak, aldiz, hau da, euskal gizartera heldutako azkenak, taldearen behar handia du, babesik gabe ez sentitzeko (Kaës, 2004). Eta aztertutako beste taldeak Argentinako eta Boliviako bi mutur horien artean daude.

Azkenik, trantsizio-teoriei esker, hobeto ulertu ditugu talde barneko pertsonalizazio-prozesuen aukerak, aztertutako talde bakoitzean. Pertsonak, akulturazio-prozesua bizitzeaz eta gizartean barneratzeaz gain, nortasuna birmoldatu behar dute, nortasun koherentea eraikitzeko, kultur negoziazio askoren bidez (ikus Echepeleacu, H., 2010, 289-295 or.).

## Ondorioak - eztabaida

Saiatu gara kultur aniztasuna eta unibertsaltasuna bakezko egiten. Immigrazioa alteritate mota berriek gutxiengoan elkartasunezko barneratzeari edo eskubide unibertsalen ezagupenari ekartzen dioten erronkaren forma erradikalena da; izan ere, immigratzen duen pertsonaren inguruan muturreneko baldintzak biltzen baitira. J. P. Sartreren hitzetan (1960, 385 or.), *“taldea behar edo/eta arrisku komun batean oinarrিতa eraikitzen da eta bere praxi komuna erabakitzen duen helburu komunak zehazten du; baina ez behar komunak, ez praxi komunak, ezta helburu komunak ere, ezin dute komunitate bat zehaztu, baldin eta komunitateak ez badu bere burua komunitate bihurtzen, behar indibiduala komuntzat joz eta integrazio komunaren barne bateratzean helburu komunengana proiektatuz”*. Gaur egun, galdera berriak ditugu oso kontu zahar bati

buruz: nortasun post-nazionala planteagarria al da? “Hitz-elkartze ariketa egin dugu, “nortasun europarraren” estimulutik abiatuta. Emaitzek azalerratu dute, batetik, maila post-nazionalen identifikatzea zaila dela, eta bestetik, nortasunaren eraikuntzan norabideak anitzak direla. Emaitzetan argi agertu da nortasunaren kudeaketan Besteak duen garrantzia –kasu honetan, “komunitatez kanpoko atzerriarrena”–. Nortasuna zehaztearen eta alteritatearen eraikitzearen arteko erlazioa ez da inondik inora ere mekanikoa, erantzuleek nortasunari ematen dioten edukia kontuan hartzen denean. Izan ere, ikerketa horretatik ateratzen dena da atzerriarrenganako itxiera Guarekin batera doala eta historia eta kultura komuna gogoratzen dituzten edukiak hartzen dituela barne. Besteak gabe, Guak ez du zentzurik. Baina atzerriarrenganako itxiera nortasun europarraren eskasiarekin batera doa; horrek argi uzten du atzerriarrekiko oposiziorik gabe zaila dela identifikatzea; hau da, zaila dela Gua eraikitzea Haiek-ik gabe. Bestalde, atzerriarrenganako irekidura-jarrera balio unibertsalistetan oinarritutako nortasun europar sendoarekin batera doa. Nortasunaren eraikuntza hori ez da atzerriarrenganako etsaitasunean oinarritzen, eta horrek esan nahi du Gua eraikitzeo, Bestea eraikitzea ez dela ezinbestekoa” (M. Sanchez-Mazas, 2004, 219 or.). Alteritatearen paradoxak agerian uzten du ulermen-berdintasuna ez dela beti egingarria. Hori dela-eta, besteen autonomia onartu behar da, batzuen eta besteen elkartasunerako integrazioa heltzeko.

Bourhisek eta bere lankideek (1997) immigranteek erabiltzen dituzten estrategiak aurkezten dituzte, immigranteen akulturazio-norabideen eta harrera-gizartearen arteko junturetan oinarrituta. Estrategia horien artean, anomiarena aipatzen dute. Anomia psikologikoz jotako pertsonak al dira? Edozein baldintzatan eragin diezaioke immigranteen akulturazioak, beren anomia bidez, harrera-gizarteari? Izan ere, anomia gure gizartetako barne-mekanismoei dagokien errealitatetzat jo ohi dugu. Posible al da gure harrera-gizartean gizarte hutsean murgilduta dauden immigranteak egotearen ondorio izatea? Zein baldintzatan eragin daiteke anomia?

Gogoratu behar da Durkheimen anomia kontzeptua harrera-gizarte batean ekiten duten pertsona eta taldeen arteko gizarte-eraginaren arloan sartzen dela. Hala, psikologoarentzat, anomia gizarte-koadrorik eta gizarte-araurik ez dagoenean, koadroa eta arauak bateraezinak direnean ala jarre-rak erregulatzeko indarra galdu dutenean pertsonak bizi duten egoera da.

Galdera nagusia, beraz, hau izango litzateke: nola eragiten diete sozialki arauak pertsonari? Pertsonak, “zoom politikon” diren heinean (Aristoteles), betidanik daude Besteen eragin sozialpean. Baina erraz planteatu daitezke pertsonak transakzio zuzenik gabe bizi izan diren egoera historikoak; hau da, gizarte-talde batek formalki edo esplizituki onesten edo gaitzesten duen jarrera eta erreakzio multzorik egon gabe, eta beraz, gizarte-taldeak egoera guztietan bere kideek erabiltzea edo ekiditea espero duen jarrera eta erreakziorik gabe.

Beraz, arauak jarrera-agindu despertsonalizatu eta norbanakoz gaindikoak dira; elkarrekintzan sartutako guztientzat funtzio-balioa dute; hala, arauen bidez, eragina despertsonalizatu egiten da, eta pertsonen elkarrenganako mendekotasuna oharkabekoa izan daiteke (hori gertatzen da, esaterako, obedientzia itsuan).

Bestalde, eman dezagun gizarte arautuak zorrotasun-gailurra daukala. Gailurra ez da, dirudienez, intentsitate handiko arauak betez lortzen, ezta intentsitate gutxikoak betez ere. Horren ondorioz, onartutako desbideratze gehiegik anomia-egoera sor dezake. Alderantzikoa ere egia da; hau da, baldin eta arau batean baino gehiagotan tolerantzia eskasa sistematikoa balitz, talde-bizia oso mehatxuzkoa izango litzateke. Irtenbidea neurrizko eta eramanpenezko zorrotasunean dago. Kasu horretan, kideek ekimen- eta sormen-ahalmen onak izango dituztela aurreikus daiteke. Galdera bat gelditzen da: noiz eta nola eralda dezake komunitate imigranteen akulturazioak harrera-gizartearen funtzionamendu arautua, eta anomia sortu? Izan ere, kasu batzuetan oso posiblea ikusten dut! Euskal harrera-gizartean, esaterako, ez dago beti behar den arau-bitarteko eta baliabide egokirik komunitate immigranteek eragindako gizarte-hutsuneari aurre egiteko, bere baitan ez baitago gizarte-norabide finkorik.





## VI. BURUJABETZA ASMOKO GUTXIENGO NAZIONALAK

Hemen aztertuko dugun gutxiengoa, estatu federal baten barneko azpi-multzo bat da; txertatutako gutxiengo batena, hain zuzen ere. Hala ere eta hasteko, txertatutako gutxiengoa baino zabalagoa den burujabetza-asmoko gutxiengoen matrizea azalduko dugu. Eta lehenik, jatorrizko lurraldean betidanik errotuta egonik ere burujabetza-asmoko izatetik pasatu ez diren gutxiengoen kasua aipatuko dugu. Jatorrizko lurraldean errotuta baina gutxiengo izanez ondoezean edo gatazkan bizi, eta hori eragiten duena zera dela konturatzen direnena, gehiengo antagoniko bat aldebakarreko kontrolaren bidez gailentzen zaiela, kontrol hori denena balitz bezala justifikatzen duelarik gainera. Badaiteke jatorrizko lurraldean errotuta gaur egun gutxiengo-egoeran aurkitzen diren horiek garai batez gehiengo-egoeratik pasatuak izatea, baina pixkanaka euren lurraldean bertan gutxiengo bihurtu dira. Horrelako adibideak historiako garai guztietan eta leku orotan daude. Bakar bat aipatzearren, eman ditzagun zibilizazioaren izenean gehiengo zuriak inongo errukirik gabe sarraskitu zituen Ameriketako indioen gutxiengoak. Bigarrenik, burujabetza-asmoa duten gutxiengoen artean

bada kontuan hartu beharreko beste azpimota bat ere: gutxiengo txertatuena, menperatze kolonial amai gabetik eratorritakoena, alegia. Talde horiek, menperatze kolonialaren bidez jatorrizko talde errotuen lurraldea okupatu ondoren, ez dute lortzen osatutako estatu federal berrian haiekin lehiatu diren beste talde kolonialei gain hartzea eta gehiengo talde bihurtzea; horrela, hauek ere nagusitu denaren kontrol aldebakarra jasan beharrean aurkituko dira. Egungo Quebec eskualdearen kasua gutxiengo mota horren adibide ezin adierazgarriagoa da. Egoera hori gertatzen denean, gutxiengo kolonialek ere benetako drama bizi dute; zuzenean pasa daitezke eskubide-ukapenetik estimu-ukapenera, legez zilegi egindako bazterketatik jarrerazko bazterketara. (Azzi, A., 1994, "La dynamique des conflits intergroupes et le mode de résolution des conflits", in R. Bourhis & J. Ph. Leyens (Eds) *Mardaga*, Liège).

Gure helburua hau frogatzea da, alegia, estatu-nazio demokratikoetan, osotasunaren gaineko aldebakarreko kontrola duen alderdi edo koalizio batek gutxiengo errotuak, jatorrizkoak edo txertatuak, botere guztietatik kanpo jartzen dituzenean, muturreko egoera bat sortzen dela eta egoera horretatik gutxiengoek mugimendu soberanista sor dezaketela; bestalde, nahiz eta kasu horietarako aldebakarreko kontrola eta gehiengoaren dute alderdi edo koalizioek, itxurazko oreka aitortuz, eskubide indibidualak eta kolektiboak erreferendumaren edo parez pareko talde-erabakirako eskubide erabilpenaren bidez partekatzea aurreikusi, erreferendum-kanpainan, gutxiengo iritziaren adierazpena

hedabideetara iritsi behar denean, aldebakarreko kontrola duen gehiengoak tentazioa duela hedabide-baliabide masiboak erabiliz, zuzenean ala zeharka, hori ere baldintzatu eta itotzeko.

## **1. Kanadako gatazka politiko federala**

Burujabetza xede duten gutxiengoaren problema argitzeko, osotasunaren izenean kontrol aldebakarra erabiltzen duen gehiengo batean txertatutako gutxiengoaren azpi-multzoa aztertuko dugu. Adibide gisa, Kanadan gaur arte irauten duen gatazka politiko federala hartuko dugu. Gertakariak laburbil ditzagun: 1980ko irailean, Kanadako lehen ministro Pierre Elliot Trudeauak konstituzio-batzarra antolatu zuen; aurreko batzar guztiak bezalaxe, horrek ere porrot egin zuen. Handik hilabetera, 1980ko urriaren 2an, Trudeauaren gobernu federalak aldebakarreko aberriratze-plan konstituzionala aurkeztu zuen. Eskualdeetako lehen ministro gehienek harrera txarra egin zioten planari. 1981eko apirilaren 16an, zortzi eskualdeetako lehen ministroak Quebecen bildu ziren beren konstituzio-proiektua aurkezteko.

Hiru eskualdek Trudeauaren aldebakarreko aberriratze proiektuari kontra egin zioten, zegoen apelazio-auzitegietan; Quebec, Manitoba eta Ternua eskualdeek, hain zuzen. Quebecen auzitegi gorenera ere jo zuen. 1981eko irailean, Kanadako auzitegi goreneko bederatzi epailek erabakia hartu zuten: aldebakarreko aberriratzea legezkoa da, baina, bederatzi epaileetako seiren iritziz, konstituzioko itunen kontra doa. Epaia gobernuko federa-

la eskualdeen sostengua lortzera bultzatu zuen; eta gobernu federalak bederatzi eskualde anglofonoe-tan lortu zuen adostasuna; Quebecen, ordea, ez.

Horren ondorioz, gizabanakoei eta taldeko justiziarri buruzko diskurtsoa aldatu egin zen, baita botereari buruzkoa ere, gehiengoak boterean bor-txaz barneratu zituen gutxiengoei beto-eskubidea ematen ez zielarik eta beren burujabetza-xedeak kontuan hartzen ez zituela.

## **2. Justiziaren ikuspuntu ezberdinak**

Oso tasunaren izenean alde bakarreko kontrola duen gehiengo taldeak zuzentasun-printzipioaren babesa hartzen du; hau da, gizabanakoen eskubi-deen babesa hartzen du lehentasun, taldeen arteko bereizketari kontra egiten dio eta, beraz, banaketa-irizpidetzat talde-ezaugarriak erabiltzea ez du zilegi jotzen. Baina, historian, ekitatea ezartzeak eta gizabanakoen eskubideak bereizketaren kontra erabiltzeak talde arteko zenbait gatazka sortu izan dituzte; esaterako, Estatu Batuetako eskubide zibil-en aldeko mugimenduak. Justizia gizabanakoen mailan ezartzeak talde arteko bereizketaren kontra gizabanakoen eskubideak babestea dakarren arren, ez die beti taldeei zilegitasuna kentzen banaketa prozesuetako hartzaile gisa. Justiziaren aplikazio-mailaren eta hartze-mailaren arteko erlazioa kon-plexua da eta ezin daiteke bien arteko elkarrekiko-tasun soilera mugatu. Hortaz, banaketa-prozesuen gizarte-testuingurua kontuan hartu beharra dago.

Gehienetan, banaketa-prozesuak hainbat eta-patan garatzen dira, eta, beraz, hartze-maila ez-

berdinak egoten dira. Gogoan izan behar da banaketa-prozesuen antolaketa politikoa alor politikoan gertatzen dela. Hala, inongo dudarik gabe, herritarrak tokiko komunitate ezberdinetako kide dira, eta horietatik jasotzen dituzte zerbitzu publikoak. Antolaketa horren ezaugarri garrantzitsua bat da hartzailetzat, gizabanakoak baino, talde osoak dituzten banaketak nagusi izatea. Berez, antolaketa-maila bakoitzak hartzaile kolektiboak dakartza, antolaketaren oinarrian dagoenak eta gizabanakoak soilik kontrolatzen dituztenak salbu. Zuzentasunaren teoriaren arabera, konparaketa-prozesuak oso garrantzitsuak dira justizia ebaluatzeko. Oro har, konparaketak justizia ebaluatzeko egokiak diren alorretan pareko diren gizabanako hartzaileei dagozkie. Baina taldeen arteko harremanen testuinguruan, justiziaren ebaluazioak hainbat konparaketa-maila har ditzake barne. Laburbiltzeko, esan daiteke banaketa batean onuradunak talde osoak direnean, taldeen arteko edo pertsonen arteko konparaketaren bidez ebalua daitekeela banaketa hori. Baina taldeen arteko konparaketek eragindako taldeen arteko gatazka ezberdina da. Alde batetik, norbanakoen eskubideez gain, eskaerak talde-eskubideen babesean zentratzen dira. Bestalde, gutxiengo nazionalen gatazken konparaketa-ikerketen arabera, gatazka horiek kudeatu ezinezko gatazka armatu bihurtzeko arrisku gehiago dute. Kasu horretan, gutxiengoaren taldeak, berdintasunaren izenean, burujabetza-eskubidea aldarrikatzen du, eta gehiengoaren taldeak, berriz, eskaera horri zilegitasuna kentzen dio, giza eskubideen ideologia indibidualista zabalduz. Justizia-

printzipio horien arteko dilemak indar berezia du boterearen banaketan. (Cf. Azzi, A., 1994, 304-311 or.).

### **3. Boterea eta Justizia**

Herri demokratikoetan, gehienetan, botere politikorako bidea gehiengoei mesede egiten dieten printzipioen arabera ezartzen da; horrek osotasunaren interpretazioaren ideologia indibidualista agerian jartzen du. Ideologia horren arabera, talde batek jasotzen duen botere-kopuruak ordezkatzan duen jende-kopuruaren proportzioaren araberakoa izan behar du. Baina boterea banatzeko orduan, gutxiengoa osatzen duten pertsonen kopurua ezabatu egiten da. Ideologia hori are konplikatua bihurtzen da estatu-nazioen testuinguru politikoan; izan ere, nazio-burujabetzaren ideologiaren ondorioekin uztartuta baitago. Nazio-burujabetzak, beste nazioek bere gai publikoen eta konpainia pribatuen kudeaketan parte hartzea edo sartzea ukatzen du. Baina zer gertatzen da estatu-nazioaren errealitatea okerra bada; hau da, nazio-proiektuak dituzten gutxiengoz osatua bada?

Gogoan hartu behar da taldeen arteko harremanetan dimentsio ideologikoa ere bada goela. Izan ere, ideologiak gertaeren ikuspegia norberak eraikitzearen erantzukizuna dakar. Hala, ideologia ez da inondik ere sistema itxia, koherentea, unibokoa, errealitatearen interpretazioak ia mekanikoki zehazten dituena eta subjektuen gizarteratzeek mekanikoki zehazten dutena; sistema irekia da, nahiko plural eta lausoa, kontraesanko-

rra, polisemikoa, interpretazioetan marjina handia onartzen duena eta subjektuen gizarteratzeei lotua, baina ez haiek zehaztua. Eta taldeak bere kultura nahiko askatasun-marjina zabalarekin eratzen duenez, kultura hori ezin zaio inongo kanpo-talderen kulturari mugatu, eta homogeneizazio-mekanismo indartsuak sartzea beharrezkoa da nolabaiteko gizarte-kohesioa mantentzeko. Hori dela-eta, taldeak eta kategoriak ez dira naturalki osatzen, ki-deek komunean izango luketen zerbait baten edo ezaugarri-multzo baten arabera; izan ere, gizarte-erakuntzaren ondorioz egiten dira. Taldeen eta gizarte-kategorien eratze-prozesuan, gizarteek jariatutako ideologiek funtsezko lekua dute.

Ideologia horien konbinazioaren ondorio psikosozialak izugarriak dira. Nahikoa da osagai-multzo heterogeneo bat izen berarekin jasotzea eta osotasuntzat jotzea, historia komunera bideratuko duten fenomenoak sortzeko eta, beraz, talde bat sortzeko. Ideologia horiek “herritar” gisa planteatutako pertsonaren eta Estatuaren arteko harreman zuzena bultzatzen dute. Estatuak gobernatzen duten agintariek herritarrei herritar eskubideak ematen dizkiete, eta herritarrek, horren truke, Estatuari leialtasun eskusiboa adierazi behar diote. Testuinguru horretan, gizabanakoak tarteko taldeentzat izan dezakeen leialtasunak (nazio, kultur, klase, genero-taldeei, esaterako) ez du sartu behar. Hortaz, Estatuak osatzen duten tarteko taldeekiko identifikazioari zilegitasuna kentzen zaio, eta, aldi berean, justizia indibidualari talde-justiziarekiko lehentasunezko zilegitasuna ematen zaio (Azzi, A & Pepitone, A., 1993).

Testuingurua ideologia demokratiko indibidualistarena denean, askotan gertatzen da Estatua osatzen duten talde-multzoan gehiengo duen taldea gehiengo demografikoa duena izatea (Liphart, A., 1977). Kasu horretan, kanporatutako taldeko kideek, hau da, askotan, gutxiengo taldeko kideek beren taldea era iraunkorrean boteretik kanporatua izango den beldurra izan dezakete. Horren ondorioz, uler daiteke zergatik adierazten duten gutxiengo taldeek ordezkaritza proportzionalarekiko beldurra, eta zergatik nahiago duten berdintasunezko ordezkaritza. Elkarrizketazko eta adostasunezko demokraziaren aukeren arabera, hain zuzen, adiskidetzea erraztuko litzateke, hain segur, botere-adostasuna sortuz, justizia indibidualaren eta justizia kolektiboaren arteko erdibide bat aurkitzeko, batik bat proportzionaltasuna betetzen duen baina gutxiengo taldeak baztertzen ez dituen botere-banaketaren bidez (Azzi, A. & Jost, J. T., 1994).

Nola lor daiteke osotasuna osatzen duten talde guztietako ordezkarien proportzioa eta eskatutako botoen proportzioa uztartzen dituen erabakia boterearen banaketan? Horretarako, osotasuna osatzen duten taldeen arteko kontrola edo kontrol aldeaniztuna ezarri behar da. Hortaz, beto-boterearen definizioa aldatu beharko litzateke. Hala, beto-boterea ez litzateke gehiago izango barne-taldeak duen eta kanpo-taldeari erabakia bakarrik hartzea eragozten dion boto-kopurua, kanpo-talde guztien koalizioari erabakia hartzeko botere absolutua eragozten dion boto-kopurua baizik (Azzi, A., 1994, 314 or.).



Kontrako arrazoi bat izan daiteke super-gehiengo edo guztien adostasuna behar duen arau batek erabakia hartzeko prozesua ez-eraginkor egiten duela, erabakitzeko ezintasunaren arriskua areagotzen baitu (Azzi, A. & Jost, J. P., 1994). Bada, arazo horrek bi irtenbide ditu. Batetik, berdintasunezko ordezkaritza eta gehiengo sinplea uztartzea. Bestetik, irtenbide onargarriago bat: ordezkaritza proportzionala eta gehiengo sinplea ezartzea, eta, aldi berean, gehiengo horrek osotasuneko talde bakoitzeko botoak barne hartzea, derrigorrezko bihurtzea. Irtenbide horren alde ona da hiru puntu bermatzen dituela: norbanakoen justizia ordezkaritza proportzionalaren bidez; eraginkortasuna, gehiengo sinplea eskatuz; eta justizia kolektiboa, gehiengo sinplean osotasuneko talde bakoitzeko botoak gotea derrigortuz (Azzi, A. 1994, 317 or.).

#### **4. Ikerlanaren ikuspegia: hipotesiak eta helburuak eratzen diren eremua osatzen duten osagaiak**

Kanadako gatazka federalari dagozkion erreferendumak azter ditzagun.

Antagonismo-aurrekariak badaude, Kandan, aldebakarreko kontroldun gehiengoaren eta gutxiengo taldeen artean, 1980ko hamarkadan. Esaterako, **1944ko errekrutatzearen krisia**; krisi politiko eta militar hori Bigarren Mundu Gerra bitartean gertatu zen. Kanadako armadan soldadu frantses-hiztunak gaizki kudeatu zituztenez, populazio frantses-hiztunak era aktiboan kontra egin

zien Kanadako gobernuak bere armadako soldadukopurua handitzeko egin zituen maniobrei; horren ondorioz, 1960ko hamarkadatik aurrera, gutxiengo batzuek ez zuten integrazioa onartu.

Gutxiengoak gehiengoarengana zeukan mesfidantzaz eta tentsioz bustitako giroa zela-eta, mugimendu politiko soberanista sortu zen Quebecen, 1980ko hamarkadaz geroztik. Hala, 1980ko erreferendumaren ekimena Quebeceko gobernuak izan zuen, René Lévesque buru zuela; hau da, Quebeceko alderdiko burua. 1976ko hauteskunde-kanpainan, René Lévesquek hitz eman zuen gobernuan izango zen lehen agintaldian erreferendum hori egingo zuela. 1979an, Quebeceko gobernuak konstituzio-proposamena aurkeztu zuen, agiri honen bidez “*La nouvelle entente Québec-Canada. Proposition du gouvernement du Québec pour une entente d'égal à égal: la souveraineté-association*”. Emandako hitza betetzeko, erreferenduma antolatu zuen 1980an, jakin arren iritzi-azterketen arabera kontsulta publikoan gehiengoa lortzeko aukera gutxi zuela.

Bozkatzaileei egindako galdera hau izan zen: “*Quebeceko Gobernuak Kanadako beste eskualdeekin batera herrien berdintasunean oinarritutako akordio berrira heltzeko proposamena aurkeztu du; akordio horri esker, Quebec legeak sortzeko, zergak jasotzeko eta kanpo-harremanak moldatzeko botere eskusiboa izango luke; hau da, burujabetza lortuko luke. Aldi berean, Kanadarekin elkarte ekonomikoa gordeko luke, eta biek moneta bera erabiliko lukete. Negoziazio horien ondorioz, estatus politiko aldaketarik ez litzateke ezarriko populazioaren adostasunik gabe, hau da, beste erreferendumik gabe. Horren*

*ondorioz, Quebeceko gobernuari Quebecentzat eta Kanadarentzat proposatutako akordioa negoziatzeko mandatua onartzen al diozu?”.*

Erreferenduma 1980ko maiatzaren 20an egin zen, eta independentzia-prozesua hasteko proposamena baztertu zuten botoen %59,44k. 1980ko maiatzaren 20ko gauean adierazi zuen René Lévesque bere esaldi famatu eta profetikoa: “Ondo ulertu badut, esaten diguzuena da beste bat arte!”.

Baina emaitzei buruzko zalantzak ez ziren argitu. Batzuen ustez, galderaren argitasun-falta izan zen porrotaren arrazoi nagusia. Aztertzaile batzuen ustez, aldiz, nahiz eta quebecar gehienak une hartan nazionalistak eta burujabetzaren aldekoak izan, askok ezezagunarenganako beldurragatik bozkatu zuten burujabetzaren kontra; erreferendumkanpaina egin bitartean, beldur hori ondo erabili baitzuten burujabetzaren kontrakoek.

Kanadako gehiengo antagonikoak kontrako eraso egin zuen: 1980ko irailean, Kanadako lehen ministro Pierre Elliot Trudeauak konstituzio-biltzarra antolatu zuen; aurreko biltzar guztiek bezalaxe, horrek ere porrot egin zuen. Konstituzio-lege berria 1982ko apirilaren 17an aldarrikatu zuten. Quebecoko Parlamentuak agiria ez zuen berretsi.

1984an, progresista-kontserbadore-federalen buru Brian Mulroneyk irabazi zituen hauteskunde federalak. Quebec eskualdea Kanadako familian “ohorez eta berotasunez” sarraraziko zuela hitz eman zuen. Hiru urte geroago, Kanadako gobernu berriak, Meech lakuko Akordioa bihurtuko zen proposamena egin zion Quebeci. Akordioa 1992an lehertu zen, Quebecek sostengatu arren –izan ere,

Quebec Kanada berrituaren barneko gizarte berezi gisa aintzat hartzen zuen akordioak—. Orduko iritzi-azterketetan, inoiz baino sostengu handiagoa agertzen zen Quebecen independentziaren alde: ia quebecarren %72 zeuden alde. Quebeceko lehen ministro liberal Robert Bourassak berak ere gizarte bereziari buruzko hitzaldi nazionalista famatua egin zuen Legebiltzarrean. Ondoren, Bourassak beste akordio bat sinatu zuen, Charlottetowngo akordioa, 1992ko abuztuaren 28an. Erreferendum bidez, quebecarrek eta kanadarrek baztertu egin zuten, 1992ko urriaren 26an.

Ondoko gertakariak oso adierazgarriak dira. 1994ko irailean, Quebeceko Alderdi Liberalak (PLQ, federalista) legebiltzarreko hauteskundeak galdu zituen, Quebeceko Alderdiaren mesedetan (PQ, subiranotasunaren aldekoa). Hauteskundeen ondorioz, PLQ alderdiak 47 jarleku eta botoen %44,3 lortu zituen; PQ alderdiak, berriz, 77 jarleku eta botoen %44,7. Quebeceko alderdiko lehen ministro berri Jacques Parizeauk aginduen artean, ondoko urtean Quebeceko burujabetzari buruzko erreferenduma egitea zegoen.

Mugimendu sezesionistak, beraz, aurrera segitzen zuen. Beste erreferendum bat idatzi zuten. Ekainaren 12ko akordioa Quebeceko Alderdiak, Quebeceko Blokeak eta Quebeceko Ekintza Demokratikoak eztabaidatu eta onartu zuten. Bozkatzaileei akordioaren testua postaz bidali zieten, erreferendum-kanpaina bitartean. Erreferendum-legearen arabera, Kanadarekiko eta beste probintziekiko negoziazioek ez zuten 1996ko urriaren 30a arteko epea gainditu behar, Quebeceko legebiltzarrak alderantzizko erabakia hartuz gero salbu.

1995eko erreferendumean, galdera hau egin zieten bozkatzaileei: *“Onartzen al duzu Quebec-burujabe bihurtzea, Kanadari formalki kidetza ekonomikoa eta politikoa proposatu ostean, Quebecoko etorkizunari buruzko lege-proiektuaren eta 1995eko ekainaren 12an sinatutako akordioaren arabera?”*.

Emaitzak subiranotasunaren aldeko mugimenduaren kontrakoak izan ziren: adierazitako 4,7 milioi bozketatik (bozkatzaileak 5 milioitik gora zirenez gero, parte-hartze tasa %93,5ekoa izan zen; hau da, Quebecen inoiz izandako altuena), %50,58ren erantzuna ezezkoa izan zen. Bi erantzunen arteko tartea 54.288 botokoa izan zen.

Hala ere, esan beharra dago, Estatu federalak eskua sartu zuela, Quebecoko probintziaren borondateari buruzko erreferenduma egin bitartean neutro egon behar zuen arren: autobusak eta hegazkinak mobilizatu zituen, Montrealen beste probintzietako milaka kanadar elkartzeko, 1995eko urriaren 27an, ezezkoaren aldeko sostengua eta “Quebecenganako maitasuna” aldarrikatzeko.

Politika-berriemaileak ez daude guztiz ados elkarretaratze horrek benetan izan zituen ondorioei buruz: batzuen ustez, baiezkoaren aldekoak kolokan jarri zituen elkartasun-manifestazioak eta ezezkoaren alde bozkatu zuten; beraz, baiezkoaren emaitzei zuzenean eragin zion. Beste batzuen iritziz, quebecar askok jo zuten manifestazio hori berei baino ez zegokien kontuan Kanadako beste eskualdeak sartzea zela, eta, beraz, baiezkoa eman zioten erreferendumari. Azkenik, batzuek uste dute bi gertaera horiek gertatu zirela.

Laburbiltzeko, esan dezagun Quebecoko erreferenduma ez zela oso eredugarria izan Estatu fede-

ralaren erakundeetan alde bakarreko kontrola duen gehiengoaren portaerarengatik; izan ere, Kanadak, kontua ez zegokien herritarrak sarrarazi baitzituen beren eskualdea ez zen lurralde bati buruzko erabaketan. Hain zuzen ere, beste eskualde horretako herritarrak deitu zituzten beren burujabetzari buruzko erabakia hartzera. Horrez gain, erreferendumei buruzko nazioarteko doktrina argi eta bakarra falta da, gutxiengo burujabetza zehazteko. Estatu-nazio bakoitzak bere baldintzak eta protokoloak ditu. Hala, parekotasunezko akordioa ez dute betetzen Estatu-nazio demokratiko garatuek. Gutxiengo sozial eta nazionalak ez dute eskubide unibertsalik.

Hala ere, beharbada, argi berri bat agertzen hasi da Westminster-eko Parlamentuko Komunaren Ganbaran Eskoziako Aferen Komiteak Britainiar Gobernuari zera eskatu dioenean, alegia, Eskoziari baimena emateko independentziarako erreferenduma planifikatu eta deia interferentziarik gabe egiteko. (Ikus Gara, 2012/8/8) Giza norbanakoenen alboan, eta ezinbestez, Herrien eskubideak ere ba daudela onartzera igaro direla konstatatuko genuke lehen ondorio nagusitzat. Badirudi eskariaren onarpena egin dutenak kontuan izanik, hots, disputatu kontserbadoreak, laboristak eta liberal-demokratik elkarrekin, Ingalaterrak, beste behin ere, demokrazia eta eskubideak lotzeko ildo harturik mota guztietako eskubideen zaindari edo behatzaile izan nahi duela dirudi.

Bestalde, geroz eta ozenago izaten hasi da, munduan zehar, une garrantzitsuetan. Erabakiak hartzeko kazetarien eta kazeta-jabeen eragina “de-

mokratizatzeke” ahalegina. Horrela, “hausteskunde-kanpainaren barnean kazeten eta kazetarien parte-hartzeak neutro bihurtu nahirik”, Ecuadorean Rafael Correa lehendakariaren itzalean “Código de la Democracia” onartu zen Batzar Nazionalan 2011ko azken egunetan. Eta horien ondorioz 2012ko otsailaren 4an indarrean sartu den lege berriak publizitate informatzaileen murriztapenak dakartza. Ikus-entzunezkoetan hautagai propioak pribilejiatzeko erabili ohi diren neurrigabekeri historikoak ekiditeko asmoz argudiatu dago lege berria. 21. artikulua honela dio: “komunikabideek hautagai postulatzaile baten aldeko ala kontrako promozio zuzena edo zeharkakoa egitea baztertuko dute, hauteskundeetan hobespenak edo tesi politiko jakinak erreportaje berezietan edo mezu-eramaile diren beste edozer formatutan erabiliz”.

Prozedura-justiziari buruzko ikerketa psiko-sozialen arabera, pertsonen beren ikuspuntua adierazteko aukera emateak erabakien emaitzei buruzko justizia-sentimenduari eragiten dio (Azzi, A., 1993). Baina beste pista batzuk ere aztertu beharko liriateke, testuinguru kultur aniztunetan akordio-baldintzarik gabe ados jarri behar duten talde edo instantzietako kideek nola funtzionatzen duten ulertzeko. Horretarako, beharrezkoa da esperimentazio politikoa eta baita eragileen eta beren eskaeren aniztasuna bereizgarri duen testuinguruak dakartzan erronka berriei emandako erantzun berritzaileen ezaugarriak antzematea ere. Pistak badaude, kontu hori dagokien eragileak anitzago bihurtzea ahalbidetzen duten erabakiak hartzeko prozedurak asmatzeko.

Elkarrizketa bidezko eta adostasunezko demokraziak soilik berrantola dezake orotariko talde eta mugimenduen parte-hartzea estatu-nazio demokratikoen eremu publikoan, talde eta mugimenduek nortasuna ezberdintasunean jokatzen baitute eta kategoria bakoitzak bere interesak defendatzen baititu, ezagupena emateko asmoz. “Ordezkapenezko demokrazia baino, badirudi esperientzia horiek elkarrizketa bidezko demokraziaren garapena estreinatzen dutela; azken hori hobeto egokitzen zaio heterogeneotasunari, erabakien arloko aukerak anizteari eta gutxiengoaren ezagupen-eskakizunei. Elkarrizketa bidezko demokrazia horrek funtzionatzeko, beharrezkoa da eskaera anitzak eta batzuetan kontrajarriak ere kontuan hartzea bermatuko lukeen prozedura bat martxan jartzea, baita prozedurak demokratikoak diren ikusteko eta gutxiengoaren botoa bermatzeko gaitasuna duten neurtzeko baliabideak ere.” (M. Sanchez-Mazas, 2004, 229 or.).

## **5. Ondorioak - eztabaida**

Garatu dugun problematikak ondorio praktikotara garamatza, eta ondorio horiek garrantzi izugarria dute erakunde demokratikoen gobernamenduan. Gure hausnarketari dagokionez: alde batetik, estatu-nazio demokratikoetan, osotasunaren gaineko aldebakarreko kontrola duen alderdi edo koalizio batek gutxiengo errotuak, jatorrizkoak edo txertatuak botere guztietatik kanpo jartzen dituenean, muturreko egoera bat sortzen da eta egoera horretatik gutxiengoek mugimendu



soberanista sor dezakete; bestalde, aldebakarreko kontrola duten alderdiek edo koalizioek kasu horietarako planteatuta daukatena da norbanakoen eskubideen eta eskubide kolektiboen arteko itxurazko oreka jartzea, baita erreferenduma edo parez pareko akordiorako talde-erabakiaren eskubidea formalizatuz itxura demokratikoak gordetzea ere. Baina mota horretako erreferenduma egiteak gehiengoaren botere absolutua birsortu baino ezin du egin; izan ere, ezarritako baldintzak, batzuen eta besteen baliabide material eta mediatikoen arteko ezberdintasuna eta, batez ere, estatu-nazio garatuen konstituzioan planteatutako erreferendumak nola gertatzen diren aztertuta, ezin da esan aldebakarreko kontrola duen gehiengoak eta gutxiengo taldeek aukera-berdintasuna dutenik.

Badakigu, baita ere, jendeak ezberdin tratatzen duela barne-taldeari dagokion informazioa eta kanpo-taldeari dagokiona; norbait barne-taldekoa dela onartzeko, kanpo-taldekoa dela onartzeko baino denbora gehiago behar du, eta kanpo-taldekoei buruz baino gehiago erratzen da barne-taldekoei buruz (Leyens, J-Ph. eta Yzerbyt, V. Y. 1992). Are gehiago, taldeen arteko harremanak zorrotzak dira eta barne-taldekoei kideen gizarte-osotasuna arriskuan jar dezakete (Yzerbyt, V. Y., Leyens J-Ph. eta Bellour, F. 1994).

Bestalde, jakinik gure gizarteak gero eta etnia anitzagoak eta kultur aniztunagoak dituela, pentsa daiteke estereotipoen, diskriminazioaren eta taldeen arteko harremanen gaiak gero eta arreta handiagoa piztuko dietela psikologo sozialei.

Azkenik, M. Sanchez-Masasen gogoeta bat ekarri nahi genuke hona (2004, 244 or.). Xede-aniztasunak eta xede horiei erantzuteko moduari buruzko akordioak bilatzeak alteritatearen paradoxa modu berrian planteatzen digute. Akordio demokratikoaren bidez aintzat hartutako Besteak ezin al du misterio apur bat gorde? Baina bere igarkizuna onartzeak alteritate osoa ulertzeari uko egitea dakar. Bestearen igarkizuna onartzeak esan nahi du posible ikusten dugula norbere nor-tasuna neurri bateko autonomian eraikitzea. Izan ere, Sennettek zioen legez, “ulermenezko berdintasuna baino, autonomiak besteengan ulertzen ez duguna onartzea dakar” (Sennett, R., 2003).

## **VII. AZKEN BERBAK: BEHIN-BEHINEKO ZIURTASUN MUGIKORREZ EMANAK**

Lurralde berean aurre-herririk ezagutzen ez zaion Herria daukagu gaurkoz euskaldunok. Zientziak, hala ere, ez du gaiaz azken barbarik esan. Ezin baitu esan, zientzia oro, zientzitasunaren printzipioz, erlatiboa delako, noski. Baina gure iraganari buruzko berba berriak han-hemen prestatuz doazela argi daukagu. Luzez pentsatu bada ere Homo sapiens, gure espeziekoak, duela 60.000 urte Afrikan sortu ondoren planeta osoa kolonizatu zuela, 2007an Txinan aurkitutako gure espezieko giza fosil batek, 100.000 urtez goitiko adina aitortzen zaionak, hankaz gora jarri ditu aurreko uste guztiak. Aurkikuntza horren jarraian hainbat arkeologo txinatarrek «Out of Africa» hipotesia itxi eta «Out of Asia» ireki behar dela aldarrikatzen du. Aurkikuntzak ekarritako nabaritasunaren ondorio, anglo-saxoiek eta bestek, hala ere, beste argudio baten alde erabili nahi izan dute datu berri hori, hots, gizakiaren jatorri bakarreko ideiare aurka eta sasitegiko bilakaera baten aldeko, zeinaren arabera, mutazio prozesuan sarturiko Homo erectus, aldi berean, talde desberdinetan gizaki modernoaren bidean jarduna dela adierazteko, alegia.

Bestalde, uste izan da, Homo sapiens izan dela gizatar forma berri bakarra, suposatuz Neanderthala ondorengorik gabe itzali zela. Baina 2003an Indonesian aurkitu zen Floreseko gizakiak, Neanderthalak duela 15.000 urteraino behintzat iraun zuela erakutsi du. Baita ere, duela 40.000 urte Siberiaren Hegoaldean kokatzen den Denisovan bizi izandako neskato baten behatz falangeari 2010ean egindako azterketa genetikoak, ezaguna ez dugun beste giza espezie bat ere izan zela erakutsi digu, eta Melanesiako egungo jendeen genomak haren eiteak gordeko lituzkeela. Aldi berean halaber, beste ikerketa batek erakutsi berri digu, orain arte esaten zenaren aurka, hots, Neanderthala eta Homo Sapiensa ez zirela inoiz nahastu eta gaurko europar jendetzetan Neanderthalaren ondare genetikoa ageri dela.

Honek guztiak, besteak beste, hain originala dugun mitologiako kontakizuna berrikustera eramane behar gaitu. Ondoko urteetan antropologoek zeregin bikaina izango dute. Ni neu hasita nago lan horretan eta oraingoz aho batez aitortzen ditugun mitologiako mezuak bestelako irakurketaz aberastera garamatzate. Espero dut luzeegia izango ez den epe batean lan bat agertuko dudala. Bego horretan puntu garrantzitsu hau.

Gogoeta-alorrez eta aroz aldatu egingo gara. Herriak erakunde politikoen xerka jardungo diren aroetara, alegia. Euskaldunok arrazoi desberdinengatik luzez ez genuen horren beharrik sentitu. Ez dut beste agerpenik ez axolarik horren aitzinean. Nafarroako Erreinuaren gertaerak hautsiko du inertzia hori. Baina gaur anitz aztertzen ari diren arrazoi desberdinengatik, maleruski eten egin zen

prozesu hura. Nik neuk horretaz dudan hipotesia formulatuko dut bidenabar. Nafar Erregeek ez zuten ikusi Herririk, are gutxiago Euskal Herririk. Erreinua bada, noble-familia baten aziendaondare bezala kudeatu zuten. Gehienera ere, beste noble-familia batzuen arteko konplizitate-sentimenduarekin une zailak ailegatu zitzaizkienean. Ez zuten etorkizuneko proiekturik, ezta pentsamendu jakirik ere. Hau da aldiz, 1215-1225 bitartean Londreseko «Araudi Handian» ageri dena. Etor-kizunari so, askatasuna eta eskubideen ikuspegia sortuko du britainiar nobleziak. Egia da, hala ere, 1689ko otsailaren 13an «Bill of rights», Zuzenen lege-proiektuarekin bakarrik heldu zela Eskubide Azdierazpen interklasistara, eta Herritik igaro gabe bada ere, zuzen-zuzen Estamentuetatik Naziorako bidea hartu zuela. Nazioaren garapena aldiz, Eskubide Adierazpenak Herria besarkatu duenean bakarrik abiatu da. HERRIA Nazio moduan eratzten denean, eta orduan bakarrik, aginte politikoa sortzen baita. Beraz, Nazioa da aginte politikoa iturri eta oinarri. Ondoriozta dezakeguna da halaber, HERRI bat Nazio gisa eraikitzen ez den bitartean, aginte politikoz gabetuta egongo dela. Eta hori gabezia larria izan da, da eta izango da beti. Herri-nazioa Estatua lortzean bakarrik garatzen da.

Gertakari latza da konstatatzea, gaur egun, 2013an, ingeles eta estatubatuar munduan abiatu zen Nazio-eraikuntzen prozesu hura ez dela bururaino heldu lurralde haietan ere. Gogora ditzagun Quebec eta Eskozia gori-gorian dabiltzala autoerabaki-eskubidearen eske. Eta Irlandari ez zaiola batasuna gauzatzen uzten. Horien alboan

eta horietarik hurbil gabiltza gu geu, Euskal Herria eta geurekin paretsuan ere Katalunia eta Flandria. Besterik ere badator atzeragotik bada ere: Korsika, Britainia... Ondorioa argia da: erreferendumei buruzko nazioarteko doktrina argi eta bakarra falta da, gutxiengoen burujabetza zehazteko. Estatu-nazio bakoitzak bere baldintzak eta protokoloak ditu. Hala, parekotasunezko akordioa ez dute betetzen Estatu-nazio demokratiko garatuek ere. Gutxiengo nazionalak ez dute eskubide unibertsalik.

HERRIA izenaren aipamenak badu beste dimentsiorik ere. Biziraupeneko trantsiziozko gutxiengoak sartu nahi ditugu hemen. Gutxiengo horietan, pertsona batzuek, behartutako erabakiz, jatorrizko lurraldea utzi dute, arrazoi ekonomiko, sozial edo politikoak direla medio, beste lurralde batera joateko eta bertan immigrante gisa bizitzeko. Etorkinen kopurua handia bada eta etorkinek ezaugarri komunak badituzte, trantsiziozko gutxiengoa sortzen dute. Immigrantea konturatzen denean kanpotar etorkin-nortasuna duela, inongo ez balitz bezala eta estatu-prozedurak jarraitu behar dituen produktu soil gisa tratatzen dutela, erabateko hutsunean erortzeko arrisku handia du. Eskubiderik gabeko atzerritarren egoera da; hau da, hemen egon beharko ez luketenena, kanporatu behar denarena. Immigraziotzat jotzen bada nazio-lurralde batean lan egitera sartzen diren pertsona guztiek osatutako taldea, immigrazioa zilegi den egoeratik zilegi ez den egoerara pasatzen gara. Betidaniko Euskal Herriak gutxiengo sozialak jaso eta bereganatu izan ditu. Gaur egun, ordea, hiritargo-eskubide unibertsalak behar ditugu arazo hori konpontzeko.

## VIII. BIBLIOGRAFIA

Idatzi honen prestakuntzan erabili ditugun obra nagusiak gogoratuko dizkiogu irakurleari zehaztasun sakonagoak jaso nahi baditu.

### 1. Lehen gizarte euskaldunen antolamendu politikoak

- ALLIÈRES, J. (1797): *Les basques*, P.U.F., Paris.
- ALTUNA, J. (1983): «La race basque», in Jean Harritschelhar, *Etre Basque*, Privat, Toulouse.
- (1997): *L'art des cavernes en Pays Basque*, Seuil, Paris.
- ARANZADI, E. –Kizkitza– (1932): *La casa solar vasca*, Editorial Vasca, S. L., Zarautz.
- BARANDIARAN, J. M. (1953): *El hombre prehistórico en el País Vasco*, Ekin, Buenos Aires.
- (1972): *Lehen euskal gizona*, Lur, Bilbao.
- (1974): *Obras completas*, T. V, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao.
- (1974): *Obras completas*, T. VI, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao.
- CARO BAROJA, J. (1985): *Los vascones y sus vecinos*, Txertoa, Donostia.

- CHÂTELET, F. (1972): *La philosophie païenne, Du VIe siècle av. J. C. au IIIe siècle ap. J. C.* T.1, Pluriel-Hachette, Paris.
- GRATACOS, I. (1987): *Fées et gestes. Femmes pyrénéennes: un statut social exceptionnel en Europe*, Privat, Toulouse.
- LAFOURCADE, M. (1989): *Mariages en Labourd sous l'ancien régime*, EHU/UPV, Bilbao.
- LAPLACE JAURETCHE, G. (1952): *Les grottes ornées des Arbailles*, Revue Eusko-Jakintza.
- MICHELENA, L. (1968): "L'euskaro-caucasien", in *Encyclopédie de la Pléiade, Le langage*, Gallimard, Paris.
- (1983): "La langue basque", in Jean Haritschelhar, *Etre basque*, Privat, Toulouse.
- MISTROT, V. (coord.) (2010): *De Néanderthal à l'homme moderne, L'Aquitaine préhistorique vingt ans de découvertes (1990-2010)*, Ed. Confluences, Bordeaux.
- (2011): *Aquitaine préhistorique - Historiaurreko Akitania*, Baionako Euskal Museoa, Inprimaketa Bonnin Laffontan, Hendaia.
- OPPENHAIMER, St. (2006): *The Origins of the British - A Genetic Detective Story*. Constable and Robinson. Oxford.
- OTT, S. (1993): *Le cercle des montagnes, Une communauté pastorale basque*, Editions du C.T.H.S., Paris.
- VIIERS, G. (1975): *Le pays basque*, Privat, Toulouse.



## **2. Gizarte politikoaren sorrerak antzinateko mundu greziar-erromatarrean**

ARISTOTELES (1981): *Política*, Editora Nacional, Madrid.

CHÂTELET, F. (1972): *La philosophie païenne*, T.1, Hachette, Paris.

HOWATSON, M. C. (zuz.) (1990): *Dictionnaire de l'Antiquité*, Robert Laffont, Paris.

PLATON (1993): *La república o el estado*, Espasa-Calpe, Madrid, 69-94. or.

ROUSSEAU, J. J. (1972): *Du contrat social*, Le Livre de Poche, Paris.

SANTO TOMAS DE AQUINO (1917): *De regimine principum o gobierno monárquico*, Imp. Gráfica Excelsior, Madrid.

THUILLIER, J. P. (zuz.) (2002): *Dictionnaire de l'Antiquité grecque et romaine*, Hachette, Paris.

VEYNE, P. (2001): *La société romaine*, Seuil, Paris.

## **3. Herrixka, hiria, ziutatea eta polisa**

APALATEGI, Jokin; PALACIOS, Xabier (ed.) (1993): *Poder y democracia*, Instituto de Estudios sobre Nacionalismos Comparados, Gasteiz-Vitoria, 131-156.

CARO BAROJA, Julio (1977): *Los pueblos del Norte*, Txertoa, Donostia, 154-155 or.

- (1983): “Le basque rural et le basque urbain”, in Jean Haritschelhar, *Etre Basque*, Privat. Toulouse, 125-162 or.
- (1984): *Paisajes y ciudades*, Taurus, Madrid, 64 or.
- (1985): “Características físicas de la tierra de los vascos”, in *Los vascos y sus vecinos*, Txertoa, Donostia, 21-31 or.
- CASAUBON, Jacques (2002): “Le toponyme iri et sa relation avec d’anciens lieux fortifiés”, *Munibe*, n° 54, 125-139 or.
- GOYHENECHÉ, E. (1979): *Le Pays Basque*, Ed. Mairimpouey, Pau.
- IZTUETA, P. (2010): *Berastegi*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 56-58 or.
- LÉVI-STARUSS, Claude (1985): *Arraza eta historia*, Kriseilu, Donostia.
- LARRAÑAGA, Nekane; AZURMENDI, Maria-Jose; APALATEGI, Jokin (2009): “Diversidad lingüística y cultural en la Comunidad Autónoma Vasca (CAV): Construcción psicosocial de la ciudadanía”, *Actas de Congreso de Psicología Social*, Tarragona.
- LARREA, Juan José (1998): *De Boeck Université*, Paris, Bruxelles, 119-122 or.
- LUCHAIRE, A. (1875): *Du mot basque iri et de son emploi dans la composition des noms de l’Espagne et de l’Aquitaine*, L. Ribaut, Pau, 12.
- MICHEL, F. (1983): *Histoire des races maudites de la France et de l’Espagne*, Elkar, Donostia.

- MICHELENA, L. (1956): “Guipúzcoa en la época romana”, in *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, XII, I, 69-94 or., Donostia.
- (1997): *Apellidos vascos*, Txertoa, Donostia, 106 or.
- YUNUS, Muhammad (2007): *Vers un nouveau capitalisme*, Le Livre de Poche, Paris.
- ROUCHE, M. (1979): *L'Aquitaine des Wisigoths aux Arabes (418-781). Naissance d'une région*, Éd. de l'École des Hautes Études en Sciences Sociales, Paris.
- ROUSSEAU, J.J. (1979): *El contrato social*, Biblioteca Edef, Madrid, 39-41 or.
- S. AGUSTIN (1984): *La ciudad de Dios*, Ed. Porúa, S.A., México.
- SANTO TOMÁS DE AQUINO (1917): *De regimine principum*, Imp. Gráfica Excelsior, Madrid.

#### 4. Giza eskubideen loratzea

- ALVAREZ SOLIS, Antonio (2011-1-23): “Incoherencia”, *Gara*, Donostia.
- APALATEGI, Jokin (1988): *Herria: sistema eta teoriak*, Kriseilu, Donostia.
- BOURDIEU, P. (2012): *Sur l'Etat, Raison d'agir*, Seuil, Paris, 464-467. or.
- F. R.; DARESTE, P. (1891): *Les Constitutions modernes*, 2ème édition, Challamel, Paris.

- DUC DE LA ROCHEFOUCAULD D'ENVEILLE (1783): *Constitution des treize Etats unis de l'Amérique*, 4<sup>e</sup> éd., Pierres/Pissot, Philadelphie/Paris.
- DUFAU, P. A.; DUVERGIER, J. B.; GUADET, J. (1823): *Collection des constitutions, chartes et lois fondamentales des peuples de l'Europe et des deux Amériques*, J. L. Chanson, Paris, t. V.
- FAURÉ Ch. (1988): *Les déclarations des droits de l'homme, 1789*, Payot & Rivages, Paris.
- Hobbes, Th. (1983): *Leviathan*, Editora Nacional, Madrid, 221 or.
- JOUVE, Edmond (1983): *Un tribunal pour les peuples, Mondes en devenir, Points Chauds-6*, Berger Levrault, Paris.
- OLYMPE DE GOUGES, (1791): *Les Droits de la femme*, BNF, Archives de la révolution française, Paris.
- Recueil de loix constitutives des colonies angloises confédérées sous la dénomination d'Etats-Unis de l'Amérique Septentrionales, Cellot & Jombert, Paris, 1778.
- ROUSSEAU, Jean Jacques (1979): *El contrato social*, Edaf, Madrid, 24 or.
- ROUVILLOIS, F. (2009): *Les déclarations des droits de l'homme*, Le Monde-Flammarion, Paris, 27.

## **5. Biziraupen asmoko gutxiengo sozialak**

- ALMUDEVER, B. (1998): "Relations interpersonnelles et soutien social en situation de transition

- psychosociale”, in BAUBION-BROYE, A (dir.). *Événements de vie, transitions et construction de la personne*. Paris, Erès.
- BAUBION-BROYE, A.; HAJJAR, V. (1998): “Transition psychosociale et activités de personnalisation” in BAUBION-BROYE, A (dir.). *Événements de vie, transitions et construction de la personne*. Paris, Erès.
- BLEGER, J. (1966): “Psycho-analysis of the psycho-analytic frame”. *International Journal of Psycho-Analysis*, 48, 511-519 or.
- BOURHIS et al. (1997): “Towards an Interaticve Acculturation Model: a social psychological approach”. *International Journal of Psychology*, 32, (6), 369-386 or.
- CAMILLERI, C. (1990): *Identité et gestion de la disparité culturelle*. Stratégies identitaires. Paris, PUF.
- CATANI, M. (1973): *Le journal de Mohamed*, Paris, Stock.
- CLANET, C. (1990): *L'interculturel. Introduction aux approches interculturelles en éducation et en Sciences Humaines*, Toulouse, P.U.M.
- DE RUDDER, V.; POIRET, C.; VOURC'H, F. (2000): *L'inégalité raciste*, Paris, PUF.
- DOISE, W. (1976): *L'articulation psychosociologique et les relations entre groupes*, Bruxelles, De Boeck.
- DUPUY, R. (1998): “Transitions et transformations des identités professionnelles” in A. BAUBION-ECHEPETELEC, H. (2010): *Stratégies*

d'acculturation de populations étrangères migrantes au sein de la Communauté Autonome Basque (CAB) : Approche comparative. Thèse de Doctorat par l'Université de Toulouse 2 Le Mirail (UT2 Le Mirail).

ERIKSON, E. H. (1968): *Adolescence et crise. La quête de l'identité*. trad. fr., Paris, Flammarion.

GUERRAOU, Z. (1992): *Interculturation et contraception. Étude comparative entre deux populations d'origine maghrébine en France: femmes migrantes et filles de migrantes*. Thèse de Doctorat. Université de Toulouse le Mirail.

GUILLEMEN, J. (1975): "Psychoanalyse, épreuve de la réalité psychique", *Nouvelle Revue de Psychoanalyse*, n° 12, 163-187 or.

— (2004): "Pour une méthodologie générale des recherches sur les crises" in René Kaës, (2004), *Crise, rupture et dépassement*, Paris, Dunod.

KAËS, R. et alt. (2004): *Crise, rupture et dépassement*, Paris, Dunod.

MORIN, E. (1976): "Pour une crisologie" *Communications*, 25, 149-162 or.

PARKES, C.M. (1971): "Psycho-social transition: a field for study". *Social Science and Medicine*, 5, 101-115 or.

SANCHEZ-MAZAS, M. (2004): *Racisme et xénophobie*, Paris, PUF.

SARTRE, J. P. (1960): *Critique de la raison dialectique*, Gallimard, Paris, 385 or.

TAJFEL, H. & TURNER, J. C. (1979): "An integrative theory of intergroup conflict", in W. G. AUS-

- TIN, S. WORCHEL (eds), *The Social Psychology of Intergroup Relations*, Monterey (CA), Brooks/Cole.
- TAJFEL, H. & TURNER, J. C. (1986): "The social identity of intergroup behaviour" in S. WORCHEL & W. G. AUSTIN (eds). *Psychology of intergroup relations*. Chicago, MI: Nelson-Hall.
- THOM, R. (1976): "Crise et catastrophe", *Communications*, 25, 34-38 or.
- WINNICOTT, D. W. (1935/1969): *De la pédiatrie à la psychanalyse*, Paris, Payot.
- (1971/1975): *Jeu et réalité. L'espace potentiel*. trad. fr. Paris, Gallimard.

## **6. Burujabetza asmoko gutxiengo nazionalak**

- AZZI, A. (1993): "Group Representation and Procedural Justice in Multi-Group Decision Making Bodies", *Social Justice Research*, 6(2), 193-218 or.
- (1994): "La dynamique des conflits intergroupes et les modes de résolution de conflits", in R. Y. BOURHIS eta J-Ph. LEYENS (eds), *Stéréotypes, discrimination et relations intergroupes*, Liège, Madaga.
- AZZI, A. & JOST, J. T. (1994): Votes without power: Distribution of control and procedural justice in majority-minority relations. Manuscrit non publié, Yale University.

- AZZI, A & PEPITONE, A. (1993): Conflict and cooperation among cultural and national groups: A socio-cultural approach. Manuscript presented at the General Meeting of the European Association of Experimental Social Psychology, Lisboa.
- DGEQ. Bulletins rejetés - Marche pour l'unité. Rapport du Directeur général des élections. Référendum du 30 octobre 1995, Québec: Directeur général des élections du Québec, 1996. 64. or.
- DROUILLY, Pierre: "Le référendum du 30 octobre 1995: une analyse des résultats", in *L'année politique au Québec. 1995-1996*, Presses de l'Université de Montréal, 1996.
- LÉVESQUE, M.; PELLETIER, M. (2005): *Les référendums au Québec: bibliographie*, Québec, Bibliothèque de l'Assemblée nationale du Québec, 82 or.
- LEYENS, J-Ph.; YZERBYT, V.Y. (1992): "The in-group overexclusion effect: Impact of valence and confirmation on stereotypical information search". *European Journal of Social Psychology*, 22, 549-569. or.
- LIPHART, A. (1977): *Democracy in plural societies: A comparative exploration*, New Haven, CT: Yale University Press).
- Référendum 1995: le Québec face à son destin. Les Archives de Radio Canada (archive).
- SANCHEZ-MAZAS, M.; ROUX, P.; MUGNY, G. (1994): "When the outgroup becomes ingroup



an when the ingroup becomes outgroup: Xenophobia and social categorisation in a resource allocation task”, *European Journal of Social Psychology*, 24, 417-423 or.

SANCHEZ-MAZAS, M.; VAN HUMSKERKEN, F.; CASINI, A. (2003): Towards a Social Representational Approach to Citizenship: Political Positioning in lay conceptions of the Belgian and of the European Citizenship, *Psychologica Belgica*, Special Issue: Identity and Citizenship, 43, 1-2, 55-84 or.

SANCHEZ-MAZAS, M. (2004): *Racisme et xénophobie*, Paris, PUF.

SENNETT, R. (2003): *Respect. De la dignité de l'homme dans un monde d'inégalité*, traduit de l'anglais, Paris, Albin Michel, 297 or.

YZEBYT, V. H.; LEYENS, J-Ph.; BELLOUR, F. (1994): “The ingroup overexclusion effect: Identity concerns in decisions about group membership”. *European Journal of Social Psychology*, 24.



## ERATXIKIA

### **Jokin Apalategiren beste liburu batzuk:**

*Marxisma eta nazional arazoa Euskal Herrian*,  
(Paulo Iztuetaekin), Zabal, Baiona, 1974.

*Sei idazle plazara*, 2 tomo, (Paulo Iztuetaekin), Ja-  
kin, Oñati, 1974.

*Nationalisme et question nationale au Pays Basque*  
(1830-1977), Elkar, Baiona, 1977.

*El marxismo y la cuestión nacional vasca*, (con Paulo  
Iztueta), Itxaropena, Zarautz, 1977.

*Askatasunaren ibilaldia /Marcha de la libertad/  
Marche de la liberté*, ( con José Luis Ruiz Larza-  
bal, Antton Agirre Sorondo, Patxi Maritxalar  
Leñena), Elkar, Donostia, 1978.

*Los vascos, de la nación al Estado*, Elkar, Donostia,  
1979.

*Euskal Herriaren oihua*, Conception SCOOP,  
Baiona, 1983.

*Los vascos, de la autonomía a la independencia.*  
*Formación y desarrollo del concepto de la nación*  
*vasca*, Txertoa, Donostia, 1985.

- Euskadi gduan/Euskadi en guerre/Euskadi en guerra*, (con Alfonso Sastre, J.L.Davant, J.L. Cereceda, M.Castells) Ekin, Baiona, 1987.
- Gatazka eta bortxa*, Kriselu, Donostia, 1987.
- Herria: sistima eta teoriak*, Kriselu, Donostia, 1989.
- Soziologia orokorra*, U.E.U., Bilbao, 1989.
- Julio Caro Baroja. Premio Nacional de las Letras Españolas, 1985*, (con Joxemartin Apalategi, Antonio Carreira, Jesús Antonio Cid, Davydd J.Greenwood), Anthropos, Barcelona, 1989.
- Sociología de una nación en movimiento*, Instituto de Estudios sobre Nacionalismos Comparados, Vitoria-Gasteiz, 1992.
- Psicosociología de los movimientos asociativos vascos: sus representaciones sociales*, Instituto de Estudios sobre Nacionalismos Comparados, Vitoria-Gasteiz, 1999.
- La anticipación de la sociedad. Psicología Social de los movimientos sociales*, Promolibro, Valencia, 1999.
- La idea de nación en los niños vascos. Adquisición y desarrollo del concepto de la nación en la infancia*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 2001.
- Haurren nazioak. Solasaldiak*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 2002.
- Aitona gurearen Makilakixki*, (Joxemartin Apalategi, Jaionen Apalategi, eta Ur Apalategirekin), Utriusque Vasconiae, Donostia, 2006.
- Los vascos, de la nación al estado*, (reedición corregida), Herritar Berri S.L.U.,Astero, Colección "Erroak", Iruña, 2006.

## **Elkarlanean:**

- “La pratique politico-syndicale au Pays Basque depuis 1936”*, pp.14-20 eta *“Les forces culturelles de 1959 à 1970”*, pp. 21-27, in Batasuna, La répression au Pays Basque, Maspero, Paris, 1970.
- “Le mouvement basque aujourd’hui”*, pp. 423-452, in *Révue Temps Modernes*, n° 357 bis, Directeur Jean Paul Sartre, Paris, 1976.
- “Liberación nacional y socialismo-comunismo como problematica de síntesis teórica desde la V asamblea de E.T.A. hasta nuestros días”*, pp. 189-209, in *Nacionalismo y socialismo en Euskadi*, Ipes, Bilbao, 1984.
- “Euskal abertzaleen sozialismoak”*, Vol.1, pp. 558-567, in *Euskal Herria*, 2 Vol., Caja Laboral Popular, Donostia, 1985.
- “Origen y desarrollo de los discursos alusivos a los elementos constitutivos de la especificidad vasca o en torno al concepto de la nación vasca. Siglos XVIII, XIX y XX”*, pp. 101-137, in *Autodeterminación de los pueblos, un reto para Euskadi y Europa*, 2 vol., Herria 2000 Eliza, Bilbao, 1985.
- “Euskal nortasunaren erroak etorkizunari so”*, pp. 277-297, in *Euskal Herria, presente y futuro*, Servicios Editoriales de la Universidad del País Vasco, Bilbao, 1986.
- “Gizarte informatizatua”*, pp. 53-60, in *U.E.U.ko ihardunaldien bilduma*, .U.E.U., Bilbo, 1986.

- “*Sarrera hitz giroztaileak*”, in Itxaro Borda-Mark Legasse, *Infante zendu batendako pabana*, Txertoa, Donostia, 1986.
- “*Intereses políticos del adolescente*”, pp. 269-286, in *Psicosociología del adolescente vasco*, Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz, 1986.
- “*Euskal sendia giza banakoaren defentsarako funtzioetan*”, pp. 945-959, in Julio Caro Barojari Omenaldia, Eusko-Ikaskuntza, Donostia, 1986.
- “*Principios básicos de sociología general para la comprensión y tratamiento de la toxicomanía*”, pp. 81-90, in Cuadernos de extensión universitaria. Las drogas: reflexión multidisciplinar, Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco, Vitoria-Gasteiz, 1987.
- “*Euskal Herria y los movimientos de liberación nacional*”, pp. 277-297, in *Euskadi ante la Historia*, Ipes, Bilbao, 1987.
- “*El marxismo ante la legitimación, deslegitimación del poder de clase*”, pp. 43-53, in *Legitimación, deslegitimación del poder en Euskadi*, Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco, Donostia, 1988.
- “*Ocupación y resistencia en Euskadi: democracia, violencia y autodeterminación*”, pp. 37-57, in *Derechos Humanos Individuales, Derechos de los Estados, Derechos de los Pueblos*, Herria 2000 Eliza, Bilbao, 1990.
- “*La ética del estado nación y el espíritu de su nacionalismo*”, pp. 283-299, in *Ilustración y Revo-*

lución Francesa en el País Vasco, Instituto de Estudios sobre Nacionalismos Comparados, Vitoria-Gasteiz, 1991.

*“Europaren etorkizun historikoa: gaur egungo egoera eta askapen bideak Europako Herrietan ( El devenir histórico de Europa: situación actual y caminos de liberación en los Pueblos de Europa)”*, pp. 35-51, in Pueblos y Estados en la construcción de Europa, Herria 2000 Eliza, Bilbao, 1993.

*“Identidad social e identidad nacionalitaria”*, pp. 15-25, in Eugenio Garrido Martín y Carmen Herrero Alonso, Actas del V Congreso Nacional de Psicología Social, Libro Psicología política, Jurídica y Ambiental, Eudema, Salamanca, 1995.

*“Le Pays Basque à l’heure de l’Union européenne et de la Démocratie espagnole”*, pp. 119-192, in Denis Laborde (Ed.), La question basque, L’Harmattan, Paris, 1998.

*“Territorialidad y consenso”*, pp. 153-163, in Colectivo, Tiempo de cerezas, Herria 2000 Eleiza, Getxo, 1999.

*“Le temps d’une construction nationalitaire chez les enfants basques à la lumière de Jean Piaget”*, pp. 23-33, in Hommage à Jacques Allières, Domaines basque et pyrénéen, Atlantica, Angelu, 2002.

*“Psychologies sociales des mouvements sociaux”*, pp. 287-303, in Sous la direction de Alexis le Blanc, Mohamed Doraï, Nicolas Roussiau, Chistine

Nonardi, *Psychologie Sociale Appliquée*, Press Editions, Paris, 2002.

*“Euskal emigrazio eta exilio amerikarraren zenbait gizarte ezaugarri”*, pp. 65-99, in Actes du Colloque, L’immigration de basques aux Amériques, Laboratoire de Recherches en Langues et Littératures Romanes, Etudes Basques, Espace Caraïbe de l’Université de Pau et des Pays de l’Adour et Utriusque Vasconiae, Pau, 2003.

*“Identidad y memoria vasca en la encrucijada de la construcción institucional de Europa”*, pp. 127-161, in Colectivo, Tiempo de soluciones, Proyectos políticos, análisis y sugerencias, Herria 2000 Eliza, Bilbao, 2003.

*“Construcción psicosocial de la identidad nacional y estrategias de aculturación en la Comunidad Autónoma Vasca”*, pp. 373-381, e, *“Influencia de la lengua en las orientaciones de aculturación entre los grupos étnicos en contacto en la Comunidad Autónoma Vasca”*, pp. 381-389, in Actas del IX Congreso de Psicología Social, José Romay y Ricardo García Mir (eds.), Psicología política Cultura, Inmigración y Comunicación Social, Biblioteca Nueva, Madrid, 2005.

*“Euskal pentsamendua azpiegituratzeko konprometituriko idazlea”*, pp. 33-55 in Paulo Iztueta, Euskal Pentsamenduaren erailtzaila, argitaratzaileak Begoña Bilbao Bilbao, Karmele Perez Urraza eta Kepa Perez Urraza, EHU, Bilbao, 2007.

*“Bilingualism, identity, and citizenship in the Basque Country”*, pp. 35-62 de Maria-Jose Azurmendi,



Nekane Larrañaga and Jokin Apalategi, in *Bilingualism and Identity, Spanish at the crossroads with other languages* edited by Mercedes Niño-Murcia and Jason Rothman, John Benjamins Publishing Company, Amsterdam/Philadelphia, 2008.

“*Un futur passé basque de l’Europe?*”, pp. 131-146, in Denis Laborde (dir.), *Désirs d’Histoire. Politique, mémoire, identité*, L’Harmattan, Paris, 2009.

“*Hitzaurrea*”, pp. 7-17, in Kepa Fernandez de Larriñoa, *Ikergaiak eta adierazpenak antropologia soziokulturalean, Utriusque Vasconiae*, Donostia, 2009.

“*Ahozkotasunetik hirian murgildu zen antropologoa*”, pp. 21-37 in Colectivo, *Joxemartin Apalategi Begiristain oroimenez-En recuerdo de-A la mémoire de*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 2011.

## **Kudearitzan**

*Baloreak eta irakaskuntza*, (J.P. Urrosolo autore izanaz), Kriselu, Donostia, 1989.

*Gartzelatuen gartzela*, (Jose Antonio Etxebarri, Frantzisko Jabier Martinez, Fernando Arburua autore izanaz), Kriselu, Donostia, 1989.

*Movimientos sociales y nacionalismo*, Preámbulo, Presentación y Capítulo, “Movimientos asociativos y movimientos de liberación nacional”, pp. 5-55, Instituto de Estudios sobre Nacionalismos Comparados, Vitoria-Gasteiz, 1992.

*Poder y democracia. Los nacionalismos en la crisis del estado del Bienestar.* Preámbulo, pp. 5-18. Capítulo, “Ongizatedun Europa Batuan: hiritartasuna eta subirania”, pp. 131-156, Instituto de Estudios sobre Nacionalismos Comparados, Vitoria-Gasteiz, 1993.

*Conciencia y espacialidad. Dudas y creencias en la conciencia de los pueblos y de las naciones,* Vol. 1. Capítulo, “El estado nación y sus mitos”, (pp. 155-170), Instituto de Estudios sobre Nacionalismos Comparados, Vitoria-Gasteiz, 1994.

*Símbolos y mitos. Dudas y creencias en la conciencia de los pueblos y de las naciones.* Vol. 2., Instituto de Estudios sobre Nacionalismos Comparados, Vitoria-Gasteiz, 1994.

*Identidad vasca y nacionalidad. Pluralismo cultural y transnacionalización.* Vol. 1. Preámbulo, pp. 7-17, e Capítulo “Guerra de lenguas y de culturas en el estado nación”, (pp. 55-68), Instituto de Estudios sobre Nacionalismos Comparados, Vitoria-Gasteiz, 1995.

*Nacionalidad y cultura. Pluralismo cultural y transnacionalización.* Vol. 2. Instituto de Estudios sobre Nacionalismos Comparados, Vitoria-Gasteiz, 1995.

*Eta gerra etorri zen* (Nerea Elias-Ainara Gorostitzu autore izanaz), “1936ko gerra Ataunen”, nire Hitzaurrea, pp. 11-15, XIII Gerriko Ikerlan Beka, G.E.E., Lazkao. 2008.

*Goierriko egitura industrialaren erradiografia,* (Jone Ormazabal autore izanaz), “Goierri Beherearen

Ekonomia jarduerak”, nire Hitzaurrea, XIII Gerriko Ikerlan Beka, G.E.E., Lazkao, 2008.

*Auto Ibilbideak, Goierriko gazteen automobil kulturaz*, (Maddi Garcia Olaskoaga autore izanaz), “Automobila Goierriko gazterian” nire Hitzaurrea, pp., 11-16, XIV. Gerriko Ikerlanbeka, G.E.E.,Lazkao, 2011.

“*Ordiziako «perie»: erreal eta sinbolikoa*”, Hitzaurrea, XV Gerriko Ikerlanbeka, G.E.E., Lazkao, 2013.



# ***IDEIAK***

## **BILDUMA**

1. Fito Rodriguez. *Jerusalem. Xalimen hiria*. 2008.
2. Eneko Bidegain: *Gerla Handia, muga sakona*. 2009.
3. Fito Rodriguez: *Buru ta zioak*. 2010.
4. Jokin Apalategi: *Euskal Herriaren emantzipazioaz*. 2013.